



ARALAR

**EUSKO LEGEBILTZARRERAKO
2009ko martxoko
HAUTESKUNDEETARAKO
PROGRAMA**

AURKIBIDEA

0. Sarrera.....	3
1. Gizarte politikak sakondu, krisiari aurre egiteko.....	16
2. Giza eskubide guztiak guztientzat.....	46
3. Berdintasuna.....	49
4. Etxebizitza duina izateko eskubidea.....	58
5. Ingurumen politikak: Euskal Herria ekosozialista.....	65
6. Hizkuntza, Hezkuntza, Gazteria, Kultura eta Kirola, Euskal Herriaren ardatz.....	87

0. Sarrera

Hauteskundeak egingo dira Euskal Autonomia Erkidegoan, eta hauteskunde horietatik beste gobernu bat, gobernu berri bat aterako da, lau urtean erkidegoko eguneroko arazoak eta betiko arazoak kudeatuko dituen gobernu, hain zuzen ere. Eguneroko horri krisi garaiotan hartu beharreko neurri bereziak gehitu behar zaizkio. Abertzaleok erabakitzeko eskubidearen gauzatzea eta honi buruzko akordioa izango dugu jomuga, baita elkargune ere. Horretan egiten dugu bat: abertzale guztiok uste dugu erabakitzeko eskubidea dagokigula. Hortik kanpora, ezberdintasun handiak daude proiektu batzuen eta besteen artean: alegia, edozein herritako ezkerretik eskuinera dauden ezberdintasun berberak, batetik, eta erabakitzeko eskubidea lortzeko bide egokia zein den, bestetik. Horregatik, hurrengo hauteskundeetan ardatz biren inguruko botoa eman beharko dugu herri honetako soberanistok: aspaldiko arazo politikoari zein konponbide eman eta, aldi berean, eguneroko politikari, politika sozialari, ekonomikoari, krisi ekonomikoari, azpiegitura-politikari, hizkuntza-politikari... nolako garapena eman nahi diogun, egunero-egunero. Basoa eta zuhaitzak, biak hartu beharko ditugu kontuan, etorkizuna gaur egungo hazian dagoelako: gaur nolako gizartea garatzen dugun, halakoa izango da etorkizuneko Euskal Herria. Aspaldi alboratu baikenituen independentzia-egunak gainerako arazo guztien konponbidea berez ekarriko zigulako ustea.

Krisiari erantzun soziala

Krisi ekonomikoa da herritarren kezka nagusia uneotan. Milaka herritarren lan egoerak okerrera egin du azken hilabeteotan, langabezi tasak aspaldiko hazkunderik handiena izan du, eta ERE kopurua nabarmen handitu da. Honen aurrean, egoerarik ahulenean daudenak babestuko dituen politika sozialak indartzea ezinbestekoa da. Bazterketa soziala eta pobrezia ekiditeko behar diren neurriak hartu behar dira, eta horretan administrazioek berebiziko zeregina dute. Euskal instituzioek ahalegin askoz handiagoa egin behar dute, eta egin dezakete. BPG dagokionean Europar Batasunaren 3. herria bagara ere, gastu sozialei dagokionean 14. lekuan gaude. Familien ia %5 pobrezia atarian dago. Horretarako aldaketa sakonak egin beharko dira eredu sozio-

ekonomikoan. Benetako **ongizate gizartea eraikitze**ko neurriak hartu behar dira, gure garaiotara egokituta. Eta enplegua sortzeko politikak, orain artean bezala, azpiegitura erraldoiak sortuz egin beharrean, arlo sozialera bideratu behar dira: osasuna, hezkuntza, zerbitzu sozialak, kultura, aisialdia, euskara edota ingurumen arloko profesionalekin sortu behar dira lanpostuak, langabezi tasa jaistearekin batera gizartearen ongizatean sakontzeko balioko baitu.

Beste aukera galdu bat

Garai historiko bat atzean utzirik, badirudi trantsizioa egin beharko duela herri honek, hurrengo garai historikoa ailegatu arte. Patua ere badirudi: garai historikotik garai historikora, baina benetako une historikoa –erabakigarria izango den une hori– inoiz erdietsi gabe.

Gordin esana dago, baina gordinkeria hori da askoren artean dagoen sentsazioa. Ekin eta ekin betiko maratilaria, berriz ere esku hutsik ateratzeko etorkizun hobe baten oinarri izan nahi zuenetik. Eta hainbeste urte, hainbeste ahalegin joan dira dagoeneko! Nekea eta etsipena dira bakerik ezak eragiten diguna; nekea da arazo politikoak eragiten duena. Nekea, asko eta asko izan garelako bakea eta normalizazioa bazetozela sinetsi dugun pertsonak, eta ez bakarrik azkeneko honetan, baizik eta aurretik saiatu ziren guztietan ere.

Oraingoan, ostera, sakonagoa da krisialdia. Batetik, borroka armatuak jarraitu egiten du, ekin egiten diote, gizarteak aspaldi eskatzen duenari entzungor. Ez du helburu politikorik lortu, bat ere ez, eta gero eta gaitzagoa du inoiz inolako helbururik lortzea. Baina jarraitu egiten du, giza-eskubideak zapaltzen eta sufrimendua eragiten, euskal herritarroi etorkizuna erraztu gabe korapilatu egiten digula kontuan hartu nahi ez dutelako. Guztion abangoardia direla uste, oztopo besterik ez izanik. Militarismo zaharkituenaren erakusgarri bihurtuz doaz, ez diskurtsoa ezta praktika aldatzeko gaitasunik ez dutela erakutsiz. Horregatik dute jarraitu beharra, uzteko ausardiarik ez dutelako. Izan ere, gatazka militarra gatazka politikoaren ondorioa dela planteatzen du oraindik ere hura defendatzen duen gutxiengoak. Gutxiengo horrek esaten ez duena da, berriz, gatazka politikoak ez daukala zertan adierazpen militarrik izan: Ipar Euskal Herrian, esate baterako, gure herriak estatuarekin duen gatazka

politikoa, gaur egun, ez dauka adierazpen militarrik, nahiz eta hain justu Ipar Euskal Herrian den gure herriaren egoera txarren: autonomiarik ez, hizkuntza-eskubiderik ez, herri onarpenik ez...

Temati eta entzungor jarraituko zutela, beraz, gauza jakina zen azkeneko akordio-aukerak kale egin zuenetik; zalantza bakarra zen ea nolako indarrekin berragertuko zen, nolako atentatuak eginez. Zalantza hori argitua dago. Zoritxarrez.

Beste akordio-aukera galduetan ere berdin gertatu izan da, eta abertzaletasunak aurrera egin du, aurrerapausorik egitea lortu ez izanak horietako bakoitzean eragin izan duen krisialdiari aurre eginez. Oraingoan, berriz, badirudi sakonagoa dela krisialdia, beste osagai bat gehitu zaiolako, beste zerbaitek ere laguntzen duelako abertzaletasunaren krisialdi oraingoa sakonagoa izatean: normalizazio politikoaren bide politikoan ere bere mugak agerian utzi ditu. Eusko Jaurlaritzak ezin izan du Legebiltzarrak doi-doi onartu zuen kontsulta gauzatu estatu espainiarraren debekuaren ondorioz, eta horrek indartu egin du aterabide onik ez dagoelako sentsazioa: ez batetik, ezta bestetik. Hainbeste urte eta aukera galduren ondotik, euskal gizarteak gero eta urrutiago ikusten du arazo politikoaren konponbidea, gero eta arrotzago sentitzen du arazo politikoa bera ere. Hala ere, etsipena da antzuen, etsipenean erorita ez dugu ezer egiten. Bide politikoek baino ez dutela balio esaten genuen **Aralar** sortu zenean, eta halaxe diogu gaur ere, baina bide politikoek ere kale bere mugak dituzte. Zelan egin aurrera, orduan, etorkizuna burujabea izan dadin? Zelan berpiztu gizartearen baitan abertzaletasunak lantzen duen etorkizuna egingarria dela eta, gainera, guztion –abertzale zein ez abertzale– etorkizuna hobetzea ekarriko duela?

Ez da erronka makala abertzaleok daukaguna. Herri honek erabakitzeko eskubidea merezi duela uste dugu. Bide militarri ekin zioten batzuek, aspaldi, hori lortzeko. Ez dute lortu. Bide politikoari ekin diogu gehienok. Horrela ere ez da lortu. Nondik jo behar dugu, orduan? Zein da urratu beharreko bidea? **Aralarren** zalantzarik ez daukagu: bide politikoari ekinez jarraitu behar dugu, ez beste ezein bidek. Indar metaketa bide politikoetatik baino ez delako etorriko.

Eta indar metaketa gabe, ez dago arrakastarako zirrikiturik. Bide politiko-militarrak, ostera, sufrimendua besterik ez du ekarriko eta zailago egiten du abertzaleon helburu politikoak lortzea.

Zer dela eta, borroka armatuari gagozkiola, euskal herritarrak hil, trenbide-proiektu bat gerarazteko? Zer zerikusi du horrek gatazka konpontzeko ekimenarekin? Zer zerikusi du tren batek gatazkarekin? Aspaldi hasi ziren euskal herritarrak zuten iritzi politikoagatik hiltzen, eta orain areagotu egin dute deriba, eta euskal herritarrak hiltzen dituzte, egiten diharduten azpiegitura-proiektuaren kontra daudelako. Astakeria, astakeriaren gainean.

Borroka da bidea. Bai: bidezkoa bada. Bidezkoa ez bada, borrokak ez du gatazka konponduko, ez du abertzaletasuna indartuko, ez digu etorkizun hobe bat lortzen lagunduko. Lortzekotan, bidezko borrokarekin baino ez dugu lortuko.

Kantuak dioen legez, herri baten lanak gogor dira, zatiturik gaudenontzat. Hortik abiatu beharko genuke erabakitze eskubidearen aldeko jarduna: batera.

Batera, bide politikoak bakarrik jorratuz eta bestelako bideak arbuiatuz eta baztertuz. Batera, Estatua eman nahi ez diguna onartzera zelan behartuko dugun pentsatu, garatu eta burutuz. Batera, erabakitze eskubidearen aldeko jardunari egutegia eta epemuga jarririk. Batera, erabakitze eskubidearen auzia abertzaleen kontua beharrean demokraton kontua dela ikusaraziz. Batera, Europaren eta munduaren aurrean arrazoia gurea dela erakutsiz. Guztien indarrak behar dira horretan. Eta hori dela eta, defendatu dugu batera joatea nazioarteko foro desberdinetara legebiltzarrak onartutako Kontsulta Legearen debekuaren berri eman eta gure eskubideak aldarrikatzera. Eta hori dela eta, joango gara Estrasburgoko Giza Eskubideen epaitegira Estatu espainiarraren kontrako demanda jartzera eta Epaitegi Konstituzionalak bertan behera utzi zuen erabakia parte-hartze politikoaren eskubidearen aurkakoa dela aditzera eman dezan eskatzera.

Guztien indarrak, bai, baina ez indar guztiak. Indar guztiak ez daitezke arazo politikoan jar. Abertzaletasuna erakargarri egin behar dugu, galtzen ari garen jende-multzo puska berriz ere berreskuratzeko ahalegina eginez. Horretarako, abertzaletasunaren helburuak herritarren gehiengoaren ongizatearekin uztartu behar ditugu herri honen burujabetza nahi dugunok. Hori lortzeko, ezinbestekoa da proiektu ezkerrekoa aurkeztea, aurrerakoia, justizia sozialean eta elkartasunean oinarriturikoa. Herritarren neurriera eginiko etorkizuna burujabetzatik askoz ere errazagoa dela argi baino argiago utzi behar zaio herritarri. Ez da Espainia seduzitu behar duguna: euskal herritarren borondatea da irabazi beharrekoa.

Datozen lau urteetan nondik joan nahi dugun zehaztu beharra dugu, arazo politikoan bezala gainerakoetan ere, arloz arlo. Boto erabilgarriaren izenean, ez gaitzala inork berriz ere erabili.

Erabakitze eskubidea

Horixe dago gaur egungo eztabaida politikoaren muinean, azkeneko hogeita hamar urteetan behintzat egon den legez. Gai honetan **Aralar**ren jarrera zein den azaltzea erraza da gero: erabakitze eskubidearen alde gaude, independentistak garelako. Baina bidea egiteko, ezinbestekoa da bai Nafarroan eta baita EAEn erabakitze eskubidea jasoko duten estatutu bana onartzea. Eta modu berean, euskal erabaki esparru desberdinen arteko harremanak estutzea eta bateratzea aurreikusiko dituzten estatutuak. Independentziara ailegatu nahi dugu, herritarren atxikimendu librean oinarrituz. Euskal Herrian erabakitze esparruak daudela pentsatzen dugu, eta esparru bakoitzari dagokiola erabakia hartzea. Horregatik bultzatu genuen, zalantza izpi gabe, hiru herrialdeetarako pentsaturiko galdeketa: dagoenetik abiatuz, ez daukaguna lortzera. Hori horrela, argi dago **Aralar**rek ez duela babestuko erabakitze eskubidea bere egiten ez duen eta gai honi buruzko akordiorik egin nahi ez duen gobernurik. Demokrazian sinesten dugulako, ezinbestekoa da herri honi erabakitze eskubidea aitortzea eta bide horretan gidaritza bertoko erakundeek egin behar dute, Euskal Autonomia Erkidegoan Eusko Jaurilaritza buru dutela. Legebiltzarrean erabakitze eskubidearen aldeko lana egingo dugu, azkeneko lau urteetan egin izan dugun legez.

Noranzko aldaketa

Hori esanik, badago ezinbestean ziurtatu beharreko beste puntu bat: herri honen eta abertzaletasunaren onerako, gobernu-jardunak aldatu beharra dauka. Helburu politikoekin batera, gizarteak eguneroko arazoei aurre egitea ere eskatzen du. Eta bada apurka-apurka gure gizartean nagusitzen ari den ikuspegia: herri honetako bizitza-kalitateak atzera egin du, eten gabe, azkeneko urteetan. Egia da ekonomiak okerrera egin duena, inguruko herrietan egin duen legez, baina bizitza-kalitatearen galera haratago ere joan da eta, batez ere, ekonomiaren krisialdia baino lehenago hasi zen. Ekonomia ondo zihoanean ere, sanitatearen kalitateak ardura larria eragiten zigun; hezkuntzan baliabideak urri eta behar ez bezala erabiliak direlako sententzia nagusituz zihoan eta, oro har, zerbitzu publikoak kalitate irizpide batekin beharrean, bakarrik diruaren arabera kudeatzen ziren ustea zen herritarren artean nagusi. Horixe da herritarrok, oro har, sentitzen duguna: narriatu egin da sanitatea, narriatu hezkuntza, narriatu etxebizitza izateko eskubidea. Gabeziak gero eta nabarmenagoak dira horietan eta beste hainbat arlotan, baita gizarte sektore ahulenei zuzendutako babes politiketan. Ondorioz, egia bat nabarmenduz doa: ez datoz bat Euskal Autonomia Erkidegoak duen errenta per capita eta errenta horrek ahalbidetzen dituen zerbitzu sozialen kalitatea. Bat ez datozen bezala gure erkidegoko aberastasuna, eta hezkuntza, sanitate edo justizia sozialean egin litekeen inbertsioa. Guztia ez dela estatutua bete gabe dagoelako edo Espainiak eskumenak ukatzen dizkigulako. Alegia, erkidego justuagoa lortzea geure esku ere badagoela, dauzkagun tresnak erabiliz, eskumen berriak noiz lortuko begira geratu gabe. Hau da: herritarren bizitza-kalitatea, hein handi batean Jaurlaritzaren eskumenen barruan egonik, bizitza-kalitate hori ez dela izan beharko lukeen bezain ona. Eta pairatzen ari garen krisiak egoera hori muturtu baino ez duela egingo, agintetik hori saihesteko bitartekorik pentsatzen, taxutzen eta abiarazten ez bada. Jaurlaritzak ausardia pixka bat erakusten ez badu, jarraitzen badu lehengo lepotik burua, herritarren sententzioak ere bere horretan jarraituko du: geure bizi-kalitatea narriatuz doala sentituz. Horregatik beharko da, esate baterako, aurrekontuetan defizita jasotzeari beldurrik ez izatea. Urteetan izan dira erkidegoko agintariak behi gizenen garaia zela-eta, flakaturiko behien garairako aurrezten. Bada, behiak ziztu bizian flakutzen ari

diren honetan, gastu-politika orokorra aldatu beharra dago, defizit publikoa helburu ekonomiko eta sozialetarako erabiliz. Eta horrek, halabeharrez, politika fiskala ere berrikustea eskatzen du, azken urtetan hartu duenaren kontrako noranzkoa hartu behar du, birbanaketa politika bidezkoa egin nahi badugu behintzat.

Narriatzearen sentsazio antzekoa gertatzen ari da euskararen normalizazioari dagokionez: Jaurlaritzaren publizitateak gauzak ezin hobeto doazela esaten digun arren, gabeziak, hutsuneak eta, beharbada okerrrena, ausardia falta gero eta nabarmenagoak dira. Legeak aldatu nahi dira (joan zen urtean hezkuntza-ereduak kenduko zituena jendaurrean jarri zuen Jaurlaritzak, nahiz eta gero Legebiltzarrera eroan ere ez zuen egin), baina ez da esaten orain indarrean dauden legeak ere ez direla bere osoan betetzen. Ez da esaten nahikoa litzatekeela indarrean dauden legeetan jasotzen dena abiaraztea, euskarak aurrerapauso sendoak ematen jarrai dezan. Beste era batera esanik: euskarari eta euskalgintzari beste lege batzuk ezarri nahi dizkietenek ez dute esaten kale egin dutela oraingo markoaren garapenean. Hezkuntza-ereduak aldatzeko premia aldarrikatzen dutenean, ez dute esaten hezkuntza-ereduak eurak ere osorik garatzeko gauza ez direla izan; ereduak irauli gabe doituz, badagoela emaitzak hobetzea. Beste eredu baterako jauzia egin nahi izan dute, aurretik probatu gabe dagoen eredura, baina ez dute esaten Lanbide Heziketan, esate baterako, ez direla D eredu normaltasunez ezta askitasunez eskaintzeko gauza izan. Hizkuntza-politika berria ezarri nahi dute, baina ez dute esaten Legebiltzarrak duela hogeita sei urte onarturiko normalizazio-legearen erabateko garapena noizko planteatzen duten.

Iraganeko inertzietan murgildurik dago Jaurlaritza, erabaki zailak hartu beharrean aurrera ihesean. Horren adierazgarri da, zalantza gabe, Abiadura Handiko Trenarekin gertatu dena. Eusko Jaurlaritza, hura osatzen duten alderdiek, ez dute galdeketa egin nahi izan, nahiz eta ondotxo jakin gure herrian inoiz egin den azpiegitura lanik handienaren aurrean gaudena. Nahiz eta jakin —edo beharbada horrexegatik— Y grekoaren proiektua zaharra dela oso, eta nabarmen hobegarria. Parte-hartze zuzena ukatu dute, demokrazia parte-hartzailean sinesten ez dutelako. Horregatik, erabakitzeko eskubidearen

defentsan batu nahiko dituzte abertzale gehienon botoa, egiten duten eguneroko politikak asebetetzen ez gaituela ondo baino hobeto dakitelako.

Hanka bi

Herri honek hanka biren ganean ibili beharra dauka, hain justu normalizazio politikoa lortu ez dugulako. Hanka biak ditugu beharrezkoak, baina, zoritxarrez, bakarra, herren eta ezinean, erabiltzen dela ikustera ohitu gara. Azkeneko hamarkadan, Jaurlaritzak normalizazio politikoaren aldeko apustua egin duela ematen du: hitza herriari eman behar zaiola planteatu du, gatazka politikoari aterabide politikoa eman behar zaiola, ez adierazpen militarra dagoelako, baizik eta gatazka politikoak konpromiso politikoaren bitartez konpontzen direlako. Erabakitzeko eskubidean zentratu du bere politika, lehenago ez bezala, eta normalizazio politikoa erabakia herri honen esku dagoenean ailegatuko dela planteatu du. Baina, aldi berean, politika ekonomikoan eta politika sozialean ez du planteamendu aurrerakoirik hartu. Zerga-politika opakoa egiten dihardu, aldundiekin batera, Legebiltzarrari —munduko beste edozein parlamentutan gertatzen denaren kontrara— politika fiskala erabakitzeko aukera ukatuz. Sindikatuek behin eta berriro salatu dute zerbitzu publikoen pribatizatze eta narriatzea, eta halaxe gertatzen ari dela sumatzen duten herritar askok eta askok ere. Argi dago gobernu-jardunaren lehentasuna ez dela politika birbanatzailea eta kohesio sozialaren aldekoa. Baina, batez ere, argi dago ausardia falta duela gobernu honek; ausardia, eguneroko arazoetan politika propioak bilatzeko eta gauzatzeko. Ausardia edo borondate falta, Europarekin erka daitezkeen zifra ekonomikoak behin eta berria aurkezten dizkiguten arren, ez dituztelako jendaurrean erabiltzen babes sozialaren alorreko zifrak: horretan ez ei daukagu Europarekin konbergentzia egin beharrik.

Beste aldean sozialistak ditugu: ezkerreko politika aurrerakoia egingo dutela ziurtatzen dute —praktikan lau urteotan hirukoarekin paktu soziala egin eta politika sozial berbera proposatu badute ere— herri honek soberanismoa alde batera utzi eta beste premia batzuk dituela aldarrikatzen duten bitartean. Hala diote, nahiz eta Nafarroan politika aurrerakoi hori egiteko aukera izan eta paso egin duten eta arrazoi nazionalistak tarteko (nazionalismo espainolarenak, jakina) Estatuko eskuin atzerakoienari alfonbra gorria berriz ere zabaldu dioten.

Zein urruti dauden Kataluniatik Hego Euskal Herri honetako sozialistok! Han, behintzat, ausardia erakutsi zuten beste bide bat urratu eta Kataluniari bere eskubideak onartzeko prozesuan urratsak egiten jarraitzeko. Hemen, oster, ukatu egiten digute nazioa garela ere. Hego Euskal Herriko sozialistek ahaleginik ere ez dute egin nortasunaren arloan diskurtso propioa egituratzen hasteko, hizkuntzaren arloan egin ez duten legez: beste nonbaiten ezartzen zaien estatu-politika betetzen dute, beste gabe.

Batean zein bestean, bakoitzak berean, ausardia da falta dena. Politika egiteko orduan arriskuak hartzeko beldurrik ez izatea. Gauza jakina da politikan dagoen arriskurik handiena norberaren familia politikoan deserosoak diren egiak eta planteamendu berriak egitea dena. **Aralar**ren behintzat, ondotxo dakigu hori.

Ezker abertzaleokoak alternatiba sendorik gabe

Esan dezagun argi: ez gara gauza izan gobernu-alternatiba bat taxutzeko, abertzaletasun instituzionala gobernu lanetan ordeztu ahal izateko. Orain, beraz, abertzaletasun instituzional horrek hainbeste urtetan gobernatzearen ondorioz umotze zantzoak ematen hasi den honetan, ez da ezker abertzaleko ezerein adierazpide izango hura ordezteko alternatiba. **Aralar** bere ibilbide motzean ezkerreko alternatiba abertzalea taxutzen ari da, ETArri itxaron gabe, baina oraindik ez dugu nahikoa indar gobernu-alternatiba izateko. Gure apustua epe-ertainekoa da, eta aurrera begira ezkerreko alternatiba abertzalearen oinarriak sendotzea izan behar du gure helburua. Hauteskunde hauei begira, euskaltzaletasunetik, ezkerretik eta abertzaletasunetik akuilu lana egitea izango da, inoiz baino irekiagoa izango den panorama politikoan, eta beraz elkarrizketa eta akordio asko beharko den une batean. Gero eta indar gehiago izan parlamentuan, orduan eta gehiago eragin ahal izango dugu akordio horietan. Egoera honetan, jeltzaleek ahalegina egingo dute, berriz ere, botoa emateko unean nazio-auziak izan dezan garrantzia, ez eguneroko politika sozial askiezak. Ahalegina egingo dute, Euskal Herriaren, euskararen eta euskal nortasunaren izenean, betiko proiektua babes dezaten ezkerreko abertzaleek ere. Izango da, beste hauteskunde batzuetan izan den legez, horrela egingo duenik. Gure lana da, ezkerreko abertzaleona, hori gehiago horrela gerta ez dadin lan egitea. Euskal herritarrek argi utzi digute, horretarako aukera izan

dutenean, zein den euren nahia: ezker abertzale huts-hutsean politikoa, ezgintza sistematikotik haratago gobernu-alternatiba izateko asmoa ere mahai gainean jartzen duena.

Ikusi besterik ez dago aurreko hauteskunde autonomikoen ostean zer gertatu zen: Ibarretxe edo Lopez, bietatik bat aukeratu behar zen lehendakari izateko. Azkenean, EHAKk boto bi eman zizkion Ibarretxeri, lehendakaria bera izan zedin. Ahalaren botoak gabe, ezinarenak izan ziren: ezinarenak, jeltzaleei botoak ezeren trukean eman zizkietelako. Kontua Lopez lehendakari ez izatea ei zen eta, horrela, jeltzaleek berriz ere lortu zuten agertoki politikoaren zentralitatea. Ezker abertzale ortodoxoak ez zuen akordiorik bilatu jeltzaleekin, baina, hala eta guztiz ere, lehendakaritza eman zien, jakinik zein politika ekonomiko eta sozial egingo zuten horiek: ordura arte bezalakoa. Jakinik abiadura handiko trenaren auzian ez zutela herri galdeketa egingo, jakinik euskararen normalizazioan ez zutela aparteko biderik urratuko, jakinik zerga-politikak jarraituko zuela lehengo lepotik burua, eta abar.

Hautesle abertzaleek –ezkerrekoek zein eskuinekoek-, bestalde, saritu egiten dituzte abertzaleon arteko akordioak: horrela egin zuten Ipar Euskal Herrian joan zen urtean, Abertzaleen Batasunak, Batasunak eta Eusko Alkartasunak osaturiko ‘Euskal Herria Bai’ koalizioaren kasuan, eta berdin jokatu izan dute Nafarroako abertzaleek ere, **Aralarrek**, Eusko Alkartasunak, Batzarrek, Eusko Alderdi Jeltzaleak eta independente multzo batek osaturiko ‘Nafarroa Bai’ koalizioaren kasuan. Guk argi daukagu: indarrak metatzea da bidea, Ipar Euskal Herrian eta Nafarroan bezala, Euskal Herriaren mendebalde honetan ere. Baldintzak zein diren, gainera, Euskal Herriko beste eremu politiko horietako esperientziek erakusten digute. Lehenengoa, borroka armaturik ez izatea –Ipar Euskal Herrian– edo harekiko gaitzespen-jarrera tinkoa izatea –Nafarroan–, pribatuan bezala publikoan ere. Bigarren baldintza da, eremu eta koalizio politiko bakoitzeko indar abertzale nagusiak (Abertzaleen Batasuna Ipar Euskal Herrian eta **Aralar** Nafarroan) abangoardia izateko borondaterik ez izatea. Euskal abertzaletasunak askotan egin du akats berbera; hau da, askotan pentsatu du Euskal Herriaren askapenaren gidaritza Euskal Autonomia Erkidegoak eroan behar duela. (Sarri askotan, larriagoa izan da hanka sartzea:

eguneroko praktikan, zenbatetan ez ote ditugu parekatu Euskal Herria eta Euskal Autonomia Erkidegoa, gure herriaren mendebalderako ona zena automatikoki beste guztientzat ere ona zela erabakiz?). Beharbada hauxe dugu garaia beste eremuetara umilago begiratu eta haietatik ikasten hastekoa. Hemengook ere beste euskal herritarrengandik ikasi beharko genuke, indarrak metatzea lortzeko. Beharbada, Telesforok eskatzen zuen bezala, Maltzagaraino ailegatzeko besterik ez bada ere.

Copy left

Aralarrek orain arte bezala lan egiteko konpromisoa du. Jarraitu egingo dugu, euskal sozieteteak ematen digun babesarekin, herri honen onarpenaren aldeko lanean. Horretarako bidea zein den argi dugu: ezker abertzale politikoa. Barruko demokrazia eta parte-hartzea kanpoko helburuaren isla izango duena. Herritarren parte-hartzea erreibindikatuko duena, eguneroko proiektuak erabakitzeko orduan ere bai. Erabakitzeko eskubidea bide huts-hutsean politikoetatik bilatuko duena. Erabakitzeko esparruak defendatuko dituena. Eskubide propioak bestearenak urratu gabe defendatuko dituena. Erakundeak eraikitze eta eguneroko politikan jarduteko erabiliko dituena. Helmugara noiz iritsiko zain egon gabe urratsak zentzuz egiten jakingo duena. Jakin badakigulako guztion indarrarekin baino ezin izango dugula aurrera egin, elkarren errespetuan oinarrituriko elkarlanerako prest gara eta izango gara.

Jakin badakigulako oinarri horiek dituen ezker abertzalea dela etorkizuneko ezker abertzalea, **Aralarrek** konfiantza osoz begiratzen dio etorkizunari.

Parte-hartzea, oinarrizko eskubidea

Aralarrek parte-hartzeari buruz hitz egiten duenean hiru esparru jorratu nahi ditu:

- Gizartearen parte-hartze zuzena erabaki politiko estrategikoetan.
- Gizartearen eskubidea instituzio publikoetan mugitzen den informazio guztia eskuratzeko
- Administrazio eta instituzio publikoak hurbiltzea eta funtzionamendua erraztea gizarte osoari.

Aralarentzat EAEan bizi diren guztiek izan behar dute eskubidea parte-hartzeko edozein prozesu parte-hartzailetan. **Aralar** ez dago ados parte-hartzea paperak dituztenei eta errolda administratiboetan daudenei soilik mugatzera.

Aralarrek exigitzen du “hiritartasun” kontzeptua izatea irizpide bakarra gure gizarte osoarekin batera parte-hartzeko eskubidea izateko. Hiritartasuna lortzeko erroldaren ziurtagiriarekin nahiko izan beharko litzateke.

Gizartearen parte-hartze zuzena erabaki politikoetan sustatzeko, honako neurriak hartu beharko lirateke:

- Kotsulten lege bat egitea.
 - Eusko Jaurlaritzak izan beharko luke erreferendumak zein herri-kontsultak antolatzeke eskumena.
 - Debate sozial handia sortzen diren gobernuko proiektuak (udal, herrialde edo herri mailan) edo beste gaiak kontsulta erabakigarrietara eramane daitezene aukera ematea gizarteari.
- HEL (Herri ekimen legegilea) berria egitea, egungo HELak dituen ahuleziak gaineitzeko:
 - HEL berriak hiritar guztioi emango lieke aukera parte-hartzeko
 - HEL berriak ekimena hartu dutenen esku utziko luke Legebiltzarrean defentsa egitea zein proposamena lantzea eta negoziazioa bera ere. Parte-hartzea irekiagoa izateko eta legebiltzarren atean gera ez dadin.
 - Udal legea bultzatzea eta lege honen barruan parte-hartzea metodologiak zehaztea, batzorde zein aurrekontu parte-hartzaileak bermatuz.
- Informazio batzordeen arautze organikoa, udalean ordezkariak duten alderdi guztien parte-hartzearekin, eta, aldi berean, interesaturik edo ukiturik dauden gizataldeei presentzia eta ahotsa ematea.

- Egoitza eta instalazio publikoak uztea Administrazio Publikoaren zein gizartean eragin zuzena duten gai edo aferetan interesa duten herritar taldeei.
- Herritarrek udalen organo erabakigarriari proposamenak egiteko eskubidea onartu eta aitortzea.
- Ideien lehiaketa eta sariketa irekiak bultzatzea, herrian edo eskualdean eragin berezia duten plan eta proiektuak egiterakoan.

Herritarrak informazioa eskuratzeko bide guztiak erraztu beharko lirateke:

- Internet bidez administrazioaren informazioa eskuratzeko sarbidea ematea jende guztiari.
- Administrazioaren ekimenen ahalik publizitate handiena egitea, zenbait herritar talderekin zerikusia dutenean, edo haiek parte hartu behar dutenean.
- Herrian gaurkotasuna duten gaiei buruzko informazio eta eztabaida gune berariazkoak sortzea.
- “*Herritarraren defendatzailea*” instituzionalizatzea. Hau da, bitarteko bat sortzea Administrazioaren eta erabiltzaileen artean, herritarrentzako zerbitzua egokia zaintzeko eta herritarrek egiten dituzten galderei erantzuna eman dakien.
- Auzoko edo barrutiko batzarrak egitea aldian-aldian.

Administrazio eta instituzio publikoak hurbiltzea eta funtzionamendua erraztea gizarte osoari. **Aralar**ren helburua Prozedura administratiboak zentzuzkoago bihurtzea da:

- Tramiteak erraztea eta azkartzea. Horretarako, afera arruntak erabakitzeko epeak gehienez ere 3 hilabetekoa izan behar luke.
- Leihatila bakarreko sistema ezartzea, baita espedienteen segimendu programa zorrotza ere.
- Espedienteak erabakitzeko metodo gisa baztertzea isiltasun administratiboa. Sistema hori ez erabiltzeko konpromisoa.

- Plantilla organiko osoari prestakuntza etengabea emateko programa.
- Auditoria publikoen bitartez, kudeaketan finkatutako helburuen segimendua eta kontrola egitea urtero-urtero.
- Departamentuen arteko lankidetzarako lotura zeharkakoak eta horizontalak sortzea, zeregin administratiboa programatutako xedeak betetzeko bideratu dadin.
- Udalbiltzaren instituzionalizazio bateratua

1. Gizarte politikak sakondu, krisiari aurre egiteko

Politika Soziala

Politika Soziala herritarren ongizatea sustatzea helburu duen interbentzio publikoa da, berdintasuna eta segurtasuna bermatze aldera. Botere publikoen eta politikoen zeregina izan behar du merkatuko ekonomiak sortutako desberdintasunak gutxitzeak eta aberastasunaren birbanaketa bultzatzeak. Horretarako tresnarik eraginkorrena dira Politika Sozialak, estatuak bere jardueraren ardatz bihurtuta, “ongizatearen gizartea” adierazpideak ongi islatzen duen bezala.

Gizartean sortzen den aberastasuna banatzeko bi bide daude: batetik, politika fiskala eta, bestetik, politika soziala. Politika fiskalari dagokionez, baliabide publikoak lortzeko zerga-progresibitatez ez badago, nekez lortuko dugu aberastasunaren birbanaketa. Eta, bestetik, politika soziala ongizatearen estaturantz jotzeko botere publikoak dituen jarduerarik garrantzitsuenetakoa da.

Berdintasunaren aldeko borroka horretan funtsezkoa da herritartasun kontzeptua zabaltzea; eskubide sozialak, laboralak eta demokratikoak bere baitan biltzea. Helburua litzateke ahalmenak eta beharrak demokratikoki definituta izango dituen gizartea eraikitzea.

Herritartasun kontzeptua zabaltzearen baitan eskubideen unibertsaltasunaren aldarrikapenarekin egiten dugu bat. Eskubide sozialek, laborek eta demokratikoek unibertsalak izan behar dute izango badira. Hau da, herritar guztientzat. Eta, zentzu horretan, Politika Sozialek ere herritar guztientzat izan behar dute.

Aralarrek planteatzen dituen Politika Sozialen azken helburua ez da soilik pobrezia aurkako politika edota gizarte-bazterketa pairatzen dutenen egoera hobetzea. Gure ustez, Politika Sozialak herritar guztiak hartu behar ditu bere baitan eta guztien premiak asetzeko planifikatu behar dira. Hezkuntza,

Osasuna, Gizarte Babesa.... Herritar guztiei zor zaizkien eskubideak dira, herritar izate hutsagatik.

Globalizazioak, gure ekonomia ereduak, ezagutzaren gizarteak... horrek guztiak gure antolaketa ekonomikoan eragiten du eta ongizatearen arloa berrantolatzen garamatza aldioro. Ongizate gizarteak bere egin behar du herritarrek baldintza ekonomiko, sozial eta pertsonal duinetan bizi izateko eskubidea dutela. Hortik abiatuta derrigorrezkoa da gure herriaren hazkunde ekonomikoak herritarren bizi kalitatea hobetzeko balio izatea. Justizia, elkartasuna eta kohesio soziala helburu behar du izan gure politika sozialak ardatz nagusi.

Euskal Autonomia Erkidegoko errealitatea:

Euskal Autonomia Erkidegoak hazkunde ekonomiko etengabea izan du azken 14 urtetan. 2006an Barne Produktu Gordina 4,2koa izan zen, Europar Batasunaren batez bestekotik oso aurrean. INEren datuen arabera, EAEk Estatuko lehen tokia bete zuen biztanleko BPG aldagaian, 30.500 euroak gaindituta, Estatuko batez bestea 23.300 eurotan eta 27 kidez osatutako Europar Batasunaren 24.700 eurotan zeuden bitartean. 2007ko errentari erreparatu ezkerro, EAEn 130,8ko errenta zegoen (1998an 121,1ekoa zen), beti ere espainiar estatuko errentekin alderatzen badugu; izan ere, Europa mailan, 2007ko errentari dagokionez, EAEk 137,4koa izan du (1998an 115,7).

Errenta maila horrek ez du berarekin ekarri errentaren banaketa. Errentarik altuenak igotzen doaz etengabe, baina ez da gauza bera gertatzen errentarik baxuenekin. Errenta-banaketa ere atzerakorra izan dugu; 1993an lan errenta %55 bazen, 2006an %48 besterik ez zen izan. Beraz, hazkunde urteak bai, baina datuek erakusten dute hazkunde eta irabazi horiek nora joan diren eta botere publikoetatik ez dela egin behar adina banaketa-politika ziurtatzeko. Gainera, lana dutenen tasa handitu egin da, baina gurean aldi baterako kontratuen portzentajea (%27) Europar Batasunekoaren batz bestekoaren ia bikoitza da (%13). Beraz, gero eta errenta handiagoa dago, gero eta aberastasun handiagoa dugu, baina banaketa gero eta desorekatuagoa da.

Eta gauza bera esan behar da politika sozialean egindako inbertsioaz. Hazkunde horrek ez du parekoa izan gastu sozialean izandako inbertsioa. EAEko gastu soziala ez da BPGren %19ra heltzen; 15eko Europar Batasuneko herrialdeen batz bestekoa ia 10 puntu gorago dago (2006an esaterako, 1.457 milioi euroko gastua egon zen gizarte zerbitzuetan, EAEko BPGaren %2,4.). EAEn 5.645 eurokoa bada, Europar Batasunean, batez bete, 6.000tik gorakoa da; Suedian, adibidez, 8,500 eurotan dago. Beraz, argi da ez datozela bat gure erkidegoko politika soziala eta gure hazkunde ekonomikoa.

Egungo krisi egoeran, ezinbestekoa da gizarteko sektorerik ahulenari gutxieneko bermeak eskainiko dion politika soziala diseinatzea, bazterketa soziala eta pobrezia ekiditeko behar adinako neurriak ezarriko dituen eta behar adina aurrekontu bideratuko duena eginkizun horietarako. Irabazi ekonomikoa izan dugun urteetan egin ez dena, orain egin beharko da, horretarako aurrekontu defizitarioak onartu behar badira ere. Izan ere, BPG dagokionean Europar Batasunaren 3. herria bagara ere, gastu sozialei dagokionean 14. lekuan gaude eta Eustaten datuen arabera 1996an familien %4,6 eta 2004an populazioaren %4,9 pobrezia atarian zegoen.

Krisi ekonomikoari aurre egiteko hobeto prestatuak omen gaude. Eta Estatuarekin alderatuz gero, hori horrela izan daiteke, baina krisi ekonomikoaren zama guztia gizarteko sektorerik ahulenen gainean ez erortzeko, ezinbesteko da gure eredu sozio-ekonomikoan sakoneko aldaketak egitea. Hego Euskal Herrira eta, kasu honetan, EAera ez da heldu, modu xume batean ez bada, ongizate gizartea. Eta aukera izan dugu. Azkeneko 13 urtetan ekonomiaren gorakada izan arren, Europar Batasunaren batz bestekoaren gainetik hazten egon arren, gero hazkunde hori ez da plano sozialera pasatu.

Benetako **ongizate gizartea eraikitze**ko neurriak hartu behar dira, gure garaiotara egokituta. Krisiaren aurrean zerbitzu publikoek azpiegiturek egun duten zentralitatea hartu beharko lukete, gizartearen aldeko gastua inbertsio gisa hartuz eta hori lehenetsiz. Etorkizuneko erronka sozialei benetan behar bezala aurre egin nahi badiegu, biztanleen zahartzea, kontziliazioa, hezkuntza, familia eredu desberdinak daudenez hauei zuzendutako laguntzak, alargunei

laguntzak, etorkinen harrera... zerbitzu sozialen premia eta babes sozialaren handitzea etengabe handitzen joango da. Beraz, aldaketa instituzional erraldoia beharrezkoa da eta zerbitzu publikoaren maila Europar Batasunekoaren parera ekartzea ezinbestekoa. Hori dela eta, ongizate gizarte aurreraturantz urratsak emateko itun soziala eta politikoa egitea proposatzen dugu, epe erdi-luzean ongizate lerroetan baliabide publikoak %50 handitzea helburutzat hartuz **ongizate gizartea eraikitzeko ezinbesteko legeak egin behar ditugu**. Haietariko asko legealdi honetako helburuen artean egon arren, ez dira heldu legebiltzarrerara edo berandu heldu dira, legegintzaldi amaieran heldu dira eta behar besteko eztabaida izan gabe. Politika sozialari zuzenean lotutako hiru lege garrantzitsuetatik, bi hala moduzko onarpenarekin atera dira aurrera legebiltzarrean; oso hobekuntza gutxi eginda eta askorik sakondu gabe herritarron beharretan.

Zerbitzu sozialak

Zerbitzu sozialak zein zerbitzu sanitarioak eskubide subjektiboak dira, beraz, helburuak ezin du izan ahalik eta jende gehiengoarena heldu nahi izatea, baizik eta eskaera guztia erantzutea bermatzea. Gizarte zerbitzuak unibertsalak direlako, pertsona guztientzako, salbuespenik gabe. Gizarte zerbitzuak eskubide subjektibo gisa arautu beharra dagoelako, estatu sozialaren laugarren hanka osatzen dutelako. Era berean, ezinbestekoa da hiru herrialdeetan bizi garen euskal herritar guztiak zerbitzu guztiak modu berean jasotzeko eskubidea bermatzea.

Horretarako gizarte zerbitzuen sare publikoa indartu beharra dago, batez ere, Gizarte zerbitzuen pribatizazio prozesua areagotzen ari denean. Izugarritzko diru transferentziak ari dira gertatzen sektore publikotik sektore pribatura eta horrek bere ondorioak ari dira uzten gizarte zerbitzuetan.

Besteak beste, pribatizazio horrek sektoreko langileen lan baldintzen prekarizazioa, lan taldeen egonkortasunik eza, zerbitzuen gaineko kontrola galtzea, zerbitzuen kalitatearen jaitsiera, erabiltzaileen hizkuntza eskubideak ez errespetatzea dakar.

Gauza bat da irabazi asmorik gabeko entitateek, edota puntualki enpresa pribatuek, bete behar duten paper osagarria gizarte zerbitzuetan eta beste bat, oso ezberdina, enpresa pribatuen gainean eraikitzea zerbitzu horiek, irabazi asmorik gabeko entitateen laguntzarekin eta, puntualki, sektore publikoarekin.

Administrazio publikoak uste du zerbitzu horiek sustatzearekin eta diruz hitzartzearekin bere ardura amaitu egiten dela. Baina ez da horrela. Erantzukizuna eta ardura berea da eta berak eskaini behar ditu zerbitzuak. Eta bere ardurapean dago zerbitzu horien kalitatea eta langilegoaren lan baldintzak.

Horrek dakar gizarte zerbitzuak administrazioak berak zuzenean ematea, horren ardura eta kontrola uneoro berak eramatea eta, gainera, langile propioekin egin ahal izatea. Modu horretan, administrazioak kontrol zuzena izango luke, langileek lan baldintza duinak eta zerbitzuen kalitatea bermatuta legoke.

Zentzu horretan, **Aralarrek gutxieneko hauek jasoko dituen legea proposatzen du:**

- Gizarte zerbitzuen izaera unibertsala bermatzea eta eskubide subjektibo gisa hartu behar dira, estatu sozialaren laugarren hanka osatzen duelako. Beraz, gizarte zerbitzuen sistemak publikoa behar du izan.
- Ezinbestean beharrezkoa da hiru herrialdeetan bizi garen euskal herritar guztiak zerbitzu guztiak jasotzeko eskubidea bermatzea.
- Gizarte zerbitzuak publikoak izango dira eta gizarte zerbitzuen euskal sistematik kanpo dauden zerbitzu pribatuek eta ekimen sozialeko zerbitzuek izaera subsidiarioa izan behar dute. Administrazio publikoarekiko osagarriak izan behar dute, eta ez administrazio publikoaren ordezkio.
- Izaera sozial edo sozio-sanitarioa duten zerbitzuak unibertsalak izatea bermatu behar da.

- Izaera sozio-sanitarioa duten zerbitzuak doan izango badira ere hainbat zerbitzuen kasuan ere, ostalaritzan esaterako, erabiltzaileak kostuaren zati baten ardura beregain hartzea proposatzen du **Aralarrek**; bakoitzaren diru-sarreraren arabera izango da zerbitzu horren ordainketa, baina inoiz ez da izango %60 baino gehiagokoa.
- Gizarte Zerbitzuen arloan ari diren profesional guztiek, bai arlo publikoan ari direnak zein pribatu itunduan, bermatua izango dute lan baldintza duinetan aritzeko eskubidea. Ezinbestekoa da hori, langile guztiek lan baldintza duinak izateko eskubidea dutelako.

Gizarteratzea eta diru sarrerak bermatzea:

OCDE erakundearen arabera pobreziaren ataria kalkulatzeko hartu behar da kontuan herrialde baten Barne Produktu Gordina biztanleko. Horren erdia baino gutxiagoko errentak dituztenak pobreziaren atarian leudeke. Metodologia hori jarraituz, 2008. urterako Elkartzen mugimendu sozialak kalkulatu du Euskal Herrian 1.030 euro baino gutxiago jasotzen dutenak pobreziaren ataritik behera daudela. Bazterketa sozialaren kontra era orokor eta eraginkor baten ekin behar da; premia sozial larriak dituzten herritar guztiei bizi behar duina ahalbidetzeko behar adinako laguntzak ziurtatu behar ditu botere publikoak. Aralarrek ziurtatu nahi dituen laguntzak ez dira izango populistak baizik eta justuak eta solidarioak, diru laguntzak biztanleen errentan oinarrituko dira, modu horretan, benetan behar dutenentzat bideratuko dira.

Aralarrek hauxe proposatzen du:

- **Oinarrizko Errentaren igoera pobreziaren atariaren gainera egon behar da.** Ezinbesteko deritzogu oinarrizko errenta pobrezia-atariaren gainera ezartzeko eztabaidari heldzea. Estrategikoki ezin dugu onartu LGS (lan egiten duena) eta Oinarrizko Errenta (lan egiten ez duena) diru berdina kobratzea baina biak pobrezia-atariaren azpitik egon diren bitartean taktikoki Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren (LGS) %100era iritsi behar da oinarrizko errenta. Espainiar estatuan dagoen LGSren azpitik dagoen oinarrizko errenta bat ezartzea pobrezia-atariaren egotea

dakar; gaur egun Espainiar estatuan LGS 600 euro/hilero dira. Horregatik Aralarrek proposatu egin dio Jaurlearitzari sozialistekin hitzartu zuen oinarritzko errenta LGSren %88a izateko akordioa gaindi dezala eta %100era iristeko ahalegina egin dezala. Honez gain, Oinarritzko errenta 18 urteetara jaistearen aldekoa da Aralar.

- **1.000 euro baino gutxiagoko prestaziorik edo soldatarik ez:** Ez da onargarria gaur egun 1.000 euro baino gutxiagoko prestaziorik edo soldatarik. Ez da onargarria pobrezian bizitzera kondenatzen baititugu errenta horiekin bizi behar dutenak. Beraz, bi borroka mota eramango ditu **Aralarrek**. Batetik, jarraituko dugu taktikoki aldarrikatzen gaur egungo LGSrekin parekatuta ez dauden prestazioak diru kopuru horrekin parekatzeko; esate baterako, oinarritzko errenta. Bestalde, estrategikoki, defendatuko dugu aberastasunaren birbanaketan sakondu egin behar dela eta horri begira ezinbestekoa dela pobrezia ataritik edo Europako Gutun Sozialak ezarri zuen LGStik gorako diru sarrerak bermatzea herritar guztiei.
- **Pentsioen osagarria:** Aralarrek salatu egin du osagarri hori hain mugatua izatea. “bigarren etxebizitza baten jabe diren pentsionistak esaterako (herrian beste etxe bat dutenak, adibidez) edo lanordu oso gutxiko lanaldia dutenak (alargun askoren kasuan gertatzen den bezala) edo diru kopuru minimo bat aurreztu duenak (pentsionisten kasuan jende asko) osagarri hori jaso gabe geratuko dira lege proiektuaren arabera. Horregatik, ezinbestekoa da benetan izango dena mugatzea. Positiboa izanik ere, zabalagoa beharko luke izan eta ez lituzke aipatutako mugak izan behar.
- Era berean, **Aralarrek** 700 eurora arteko pentsio osagarria eskatu du gerrako umeentzako.
- **Etxebizitza osagarria diru-laguntza hartzaile guztientzako.** Gobernuaren asmoa da diru-laguntza zehatz hori aurrez beste laguntzaren bat, oinarritzko errenta esaterako, jasotzen dutenei bakarrik mugatzea. Gure ustez diru-laguntza osagarri hori bestelako diru-laguntza sozialetatik bereizi beharra dago.

Eskubide subjektiboa behar du izan, beraz, beharra daukan orok laguntza hori jasotzeko eskubidea izan behar du, bai oinarrizko errenta jasotzen dutenek, zein LGSaren %125era heltzen ez den soldata bat dutenek, zein LGSaren azpitik geratzen diren errentak edo pentsioak jasotzen dutenek ere. Gutxieneko kopuru bat zehaztearen alde egiten dugu, EAEn etxe batek alokatzea balio duenaren %70-90aren artekoa, esaterako; pentsio-hartzaileentzako 490 eurokoa esaterako eta Larrialdietarako laguntzak jasotzen dutenentzako 210 eurokoa.

- **Gizarte Larrialdietarako laguntzak:** Akats izugarria da GLLak 15.000 eurora mugatzea 6-7 urte arte gehienezko epe batera. Muga hauek erabat arbitrarioak dira, izan badirelako, zoritxarrez, era horretako laguntzak bere bizitza osoan beharko dituzten pertsonak. Era honetako neurriekin ez da pobrezia kontra jotzen; murrizketa bakar-bakarrik presupuestarioa da. Hortaz, erabat kontra gaude denbora mugak jartzearekin eta aurrekontua mugatzearekin.
- **Oinarrizko Errentaren, etxebizitza osagarriaren pentsioen eta Larrialdi sozialerako laguntzen eta Lanerako laguntza osagarriaren denbora mugak ezabatu.** Laguntza mota hauek guztiak eskubide subjektibo izan behar dute; premia duen orok izan behar du laguntza hauek jasotzeko eskubidea. Hortaz, laguntzak jasotzeko eskubideari denbora muga jartzea ez pertsonen premiak asebetetzeko modurik egokiena.
- **Laneratzeko hitzarmenak egingo dira.** Beharrezkoa da laneratze hitzarmena gizarte laguntzekin lotzea, baina salbuespenak zehaztuz. Ezinbestekoa da salbuespenak ondo zehaztea, jende guztiak ez baitu lan merkatuan jarduteko aukera berdinak eta hori ezin da izan gizarte laguntza sistematik at geratzeko aitzakia.

Familien sostengurako politika

Familiei laguntzeko lege proiektua egiteko eskaria onartu genuen Legebiltzarrean; familia guztiei laguntzak eskaintzeko aukera ekarriko duelako

Familia Legeak eta onurak ekarriko dizkielako etxekoren bat —umeak izan edo edozein mailatako menpekotasunen bat duen edonor izan— zaintzeko ardura dutenei, besteak beste. Legebiltzarrean 2006an hartu genuen erabaki hori. Jaurlaritzak, ordea, 2008an aurkeztu du lege proiektua eta legegintzaldia amaitu da proiektua eztabaidatzeko aukera izan gabe. **Aralarrek hainbat proposamen ditu lege hori egiteko:**

- Familia eredu guztiek (biologikoak ala adopzioz sortutakoek, sexu bereko edo heterosexualek, biparentalak edo monoparentalak) zerbitzu guztietara iristeko eskubide unibertsala.
- Seme-alaben ardura dauzkaten familiei laguntzeko diru-laguntzak unibertsalak eta subjektiboak izatea eta diru-laguntza zuzenaren izaera izan dezatela
- Laguntza zuzenak hileroko pentsio izaera izatea: familiei seme-alaba bakoitzeko hileroko diru kopuru bat esleituz laguntzen zaie seme-alaben mantenu eta zainketan modu nabarmenean, haurrak 18 urte egiten dituen arte. Gutxienezko laguntza maila bat ezarri dugu hileroko pentsio horien kopuruak duinak izan daitezzen ziurtatzeko. (gure gutxienekoa ezarri)
- Jaiotzagatik, adoptatzeagatik eta haurrak etxean hartzeagatik jaso beharreko diru-laguntzak.
- Hiri, herri eta auzoetan haur-eskola, haurzaindegi eta jantoki publikoak eraikitzeko behar den gutxieneko azalera gordetzeko hitzarmenak.
- Sare publikoko haur-eskolen sarea erabat osatzea, 0 eta 3 urte bitarteko umeentzat.

Zeharkako neurriak ezgaitasun-politiketan

- Ezgaitasuna duten pertsonentzako hezkuntza-arretako plan autonomiko bat onartzea eta abiatzea.
- Lehen mailako arretarako baliabideak eta laguntzak sustatzea
- Eskolan integratzeko/sartzeko apustu tinkoa egitea: ikasle ezgaituen irakasleek eta laguntza ematen dieten espezialistek

etengabeko prestakuntza izatea, eta haiek behar bezalako eta behar adinako hezkuntza-baliabideez hornitzea.

- Indarrean dagoen lege-esparrua finkatu eta garatzea, ikastetxeen curriculum-proiektuan (bi urteko gelak barne) dibertsitate funtzionala duten pertsonen arreta emateko beharrezkoak diren pedagogia-, antolaketa- eta funtzionamendu-neurriak sartzea ziurtatzeko; eta horiekin batera, pertsona honek hizkuntza-alarrean berdintasun-aukera eraginkorra lortzeko.
- Aisian, astialdian eta familiaren atsedenean oinarritutako programa publikoak sortzea; eta ezgaitasun-elkarteek kudeatzen dituztenak ere hitzarmenen bitartez finantzatzea.
- Herrietako haur-parkeetako ekintza guztiak nahitaez haur ezgaituei egokituta egotea.
- Museoetan, kultura- edo arte-guneetan eta kirol-instalazioetan pertsona ezgaituen irisgarritasuna bermatzea.
- EAEn azaleratzen ari diren ezgaitasunentzako erreferentzia-zentroak sortzea (hartutako kalte zerebrala eta gaixotasun arraroak).
- Pertsona ezgaituentzako eta beraien familientzako arreta soziosanitarioko plan autonomikoa garatzea. Plan horrek osasun- eta gizarte-alderdiak eredu sozio-sanitario integratu batean elkartu behar ditu, eta haren barruan izango da, besteak beste, osasun mentalerako arreta sozio-sanitarioko plan autonomikoa.
- Gizarte-zerbitzuen legearen barnean sail espezifiko sozio-sanitarioa sortzea.
- Hiru lurralde historikoetan dauden aldeak kentzeko konpromiso tinkoa izatea: diagnostikoan, tratamenduan, deribazioan, bai eta finantziazioan, konponketan eta laguntza teknikoan aldaketan ere.
- Erkidego mailan, alde batetik, zeinu-mintzaira onartzea eta arautzea, eta bestetik, gorren entzumen-ezgaitasuna dutenen eta gor-itsuen ahozko komunikazioa laguntzeko baliabideak arautzea.

- Metroa duten hirietan, oraindik irisgarri ez diren metro-linea guztiak irisgarri egitea legealdi honetan.
- Hiriarteko garraio-zerbitzuetarako (autobusak) egindako administrazio-emakida berri guztietan, garraio elementu guztiek irisgarritasun-arauak erabat betetzea exijitzeko konpromisoa hartzea.
- Alde batetik, konpromisoa hartzea Autonomia Erkidegoko webgune publiko guztiek informazio-gizartearen eta merkataritza elektronikoaren zerbitzuen legea bete eta erabilerrazak izan daitezen, eta bestetik, abian jarriko diren administrazio-zerbitzu elektronikoak erabilerraztasun-irizpideekin diseinatzea.

Migrazio-politika

Gizakien joan-etorriak fenomeno unibertsalak dira, eta gizateriaren historia bezain zaharrak. Planetako toki guztietan dago fenomeno hori. Bere historia modernoaren zati handi batean zehar, euskal gizartetik jende asko joan da kanpora eta estatu barneko immigrazio-kopuru handi bat jaso izan du. Hala ere, atzerriko immigrazioaren fenomeno berri samarra da gure artean. Laurogeita hamargarren hamarkadaren amaieran joera aldatu egin zen, ordea, eta nazioarteko migrazio-sareetan sartu ginen. Hala, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo jaiotako gero eta pertsona gehiago jasotzen hasi ginen.

Immigranteen kopuruak gora egin ahala, immigrazioak arazoak sortzen dituelako ustearen aldeko eta kontrako ikuspegiak ere areagotu egin dira. Azken horiek informaziorik ez dagoelako edo aurreiritziak daudelako sortzen dira gehienetan. Horregatik, behar-beharrezkoa da erabat fenomeno honen errealitatea euskal gizarteari sentsibilizazio-kanpainen bitartez helaraztea, eta pertsona horietaz dagoen ikuspegi interesatuan gera ez gaitezen. Immigranteek EAE eraikitzen eta garatzen egiten duten ekarpen ekonomikoaz eta sozialaz jabetu behar dute gure lurralde-esparruko hedabideek. Horretaz jabetzearekin batera, hedabideek immigranteekiko postura integratzaileak eta kultur artekoak bultza ditzatela lortu behar dugu. Hala, immigrazioa ez da **ekintza txarrekin**

lotuko, delituekin. Sentsibilizazioarekin batera, immigranteen bizi-kalitatea hobetu behar da gizartetik at gera ez daitezen, eta bertakoek immigranteen kulturaren ezaugarriak eta bizimodua zuzenean ezagutu behar dituzte. Aldi berean, immigranteak ere sentsibilizatu egin behar dira gure gizarteak normalean onartzen dituen balio eta arau demokratikoaren gainean. Finean, kontua da immigranteek ematen duten desberdintasunarekin eta aberastasunarekin elkarrekin bizitzen jakitea. Kultura-aberastasunaz gain, immigranteek aberastasun ekonomikoa ematen ere laguntzen dute.

Lan-merkatuan sartzea da migrazio horren arrazoi nagusia eta, horregatik, ezinbestekoa da immigranteak lanean hastea, bertakook lan egitea bilatzen dugun moduan. Normalean prestakuntza txikiko eta gizartean gaizki ikusitako lanpostuak betetzen dituzte, bertakoek betetzen ez dituzten lanpostuak, hain zuzen ere. Ildo horretan, ezinbestekoa da, alde batetik, immigranteak helduen hezkuntzako programetan sartzeko aukerak hobetzea, eta bestetik, ikasle immigranteak nahitaezkoak ez diren etapetan sartzera bultzatzea, lurpeko ekonomian egiten diren legez kontrako kontratazioaren aurka borrokatzea. Legez kontrako eta klandestinitateko egoerak amaiarazi behar ditugu ahalik eta gehien, egoera horiek ez gizarteratzea, esplotazio ekonomikoa eta gatazka ekartzen baitituzte.

Atzerritarrei buruzko egungo legearen alderdi oso garrantzitsu batzuen aurka gaude, esaterako: familia berriro elkartzea murrizten duen araua, indarkeria matxista jasandako emakume immigranteen eta laguntzailerik gabekoa adin txikiko immigranteen babesik eza, beste alderdi batzuen artean. Gai horiek guztiak ez ditu hobetzen Alderdi sozialistak proposatutako atzerritarrei buruzko legearen arautze berria. Arautze hori atzerritarrei buruzko egungo legearen aurka doa, izan ere mugen kontrolean, esku-lanaren legitimazioan eta eskubideen hierarkian oinarrituta dago. Egoera horrek immigrante asko legez kontra uzten ditu, eta herritar guztiak gizarteratzearen kontzeptuaren kontrakoa da guztiz. Eta hori guztia ez da hobetuko eztabaidatzen ari diren aldaketekin. Premiazkoa da legeak ematen dituen aukera ausartak aztertzea, arian-arian berdintasun juridikoa eta pertsonen berdintasuna lortzeko bidezkoak diren aukerak, hain zuzen ere.

Gizarteratzea sustatuko duen eremu juridiko berri bat bilatu behar dugu, atzerritarrei buruzko legetik haratago doan gizarteratze-lege bat, alegia.

Atzerritarrak, emigrazioa, immigrazioa eta asilo-eskubideari buruzko eskumenak estatuaren esku daude. Beraz, Estatuaren erakunde nagusiak arduratuko dira esparru horietako legeak egiteaz eta haiek administratzeaz. Dena den, beharrezkoa da alor horretako eskumenak aldarrikatzea, eskubideak eta betebeharrak parekatzean eragozpen gutxiago izateko. Eskumen gehiago onartzen ez diguten artean, aurrerapausoak ematen jarraitu beharko dugu gure eskumenen esparruan eskubide gehiago hedatzeko, esate baterako: etxebizitzan, lanean, osasunean, hezkuntzan eta gizarte-ongizatean, eta, aldi berean, immigranteen eta bertakoen arteko berdintasuna ere onartu beharko dugu.

Eskubideen eta betebeharren berdintasunak ez du esan nahi euskal gizartean barneratzea, benetako gizarteratzea izatea baizik.

Gizarteratze horrek bi norabide izan behar ditu argi eta garbi: elkarrekiko errespetuan oinarritua izan behar du, eta identitate desberdinak garatu behar ditu eskubideak eta betebeharrak partekatuz. Kontua ez da gutxieneko eskubide batzuk "aitortzea", baizik eta eskubide osoko herritarrak direla onartzea, bizilekuari erreparatuz, ez nazionalitateari. Gure ardura da herritar guztiak gizarteratzearen kontzeptuan aurrera egitea, ez gizarte-prestazioak jasotzen dituzten herritarren kontzeptuan, bizitza sozialean eta politikoan eragile aktiboa diren herritarren kontzeptuan baizik.

Gizarteratzean aurrera egiteko, desberdintasunari zor zaion errespetuaren garrantziaz jabetu behar gara. Jatorrizko kulturak aintzat hartu eta babestu egin behar dira, geurearekin egiten dugun moduan.

Eskubide berdinak izateko borroka horretan ezin dugu genero-ikuspegia ahaztu. Beharrezkoa da emakumearen diskriminazioa errotik kentzeko lan egitea, eta aldi berean emakume immigranteei oro har emakumeentzako diren programa espezifikoetan sartzen lagundu behar zaie.

Immigranteen benetako gizarteratzea bermatu ahal izango dugu soilik, haien partaidetza sustatzen badugu, boto-eskubidearen alde dagoen euskal gizartearen gehiengoak nahi duen bezala. Partaidetza hori funtsezkoa da politikan, gizartearen eraikuntzan eta hezkuntzan. Elkarrekin bizitzen irakasteko, elkarrekin bizi egin behar dugu, justiziagatik edo egoismoagatik ere. Toki askotan bigarren belaunaldiek ez dute sustrairik errotu, eta egoera horrek arazoak sortu ditu. Gurean halakorik ez gertatzeko, haurrak jatorriari erreparatu gabe heziko dituen herri bat lortu behar dugu; eta hori ezin da egin familia gabe, ingurunea gabe. Herriko erakundeek, herritarrengandik hurbilen dauden administrazioa izanik, immigranteei harrera modu egokian egiteko behar adina laguntza eta prestakuntza izan behar dute.

Benetako gizarteratze eraginkor bat sustatzeko, funtsezkoa da migrazioak zerk eragin dituen jakitea. Oro ohar, biztanleek bere bizi-baldintzak hobetzea bilatzen dute. Alde horretatik, immigranteak finkatuta daudenean, beraien jatorriko lekuak hobeto garatzeko ahaleginak egiten dituzte; ahalegin horiek eraginkorragoak izango dira immigranteek bertakoekin egindako prestakuntza egokia badute, eta garapenerako lankidetzarako arrazoizko politika bat badago. Hala, politika horrek jatorrizko herrialdeak hobetzea bilatuko da, ez "kontzientziak garbitzea".

Aralarrek honako gai hauek proposatuko ditu:

- Gizarteratze-protokoloak definitzea eta abiatzea.
- Erroldatzeko askatasuna.
- Boto-eskubidea.
- Zerbitzu-publiko guztiak erabiltzeko benetako eskubidea.
- Tokiko administrazioetan hurbileko zentroak sortzea EAEn jaio ez diren pertsona guztientzat.
- Laguntza-sareak sortzea.
- Familia elkartzeko izapidea erraztea
- Bisitatzeko eskutitzen izapidea erraztea.
- Hezkuntza-sisteman ghettoak ez sortzea. Horretarako, ikasle immigranteak ikastetxe publikoetan, itunpekoetan eta pribatuetan

banatuko dira, eta ahalegina egingo da ikasle immigranteen ratioa gehienez ere %30ekoa izan dadin ikastetxe bakoitzean.

Osasuna

Herritarren osasun-eskubidea, hezkuntza-eskubidearekin eta gizarte-babesarekin batera, ongizate-estatuaren funtsezko zutabeetako bat da. Horregatik, osasun-sistema gertuago bat behar dugu, argiagoa.

Osasun publiko unibertsala eta kalitatezkoa ongizate-estatua garatzeko funtsezko oinarria izan da, eta gizarte batean elkartasuna eta zuzentasuna ziurtatzeko zutabeetako bat da. Azken urteotan, osasun-sistema publikoei ospea kentzeko eta haiek desegiteko kanpainak zabaldu dira. Osasun-sistema publikoak pribatizatu nahi dira, eta haiek negozioa egiteko aukera bihurtu.

Oraindik ere osasun unibertsal batez hitz egin dezakegu, guztion eskuragarri dagoena, eta bidezkoa dena. Egia da, ordea, politika neokontserbadoreak eta neoliberalak direla-eta, enpresa kudeatzeko era berriak sartzen ari direla, berrikuntzaren aldeko diskurtsoarekin, baina benetan bilatzen dutena, aurreztea da osasun-laguntzaren kalitatea baino gehiago. Aldaketa hauen aurrean herritarrak atera dira galtzen. Unean uneko gobernuek zuhurtzia handiz egindako aldaketa horien ondorioz, osasun-zerbitzuak kalitate eskasagokoak izango dira, kostea handiagoa izango delako eta izaera unibertsal eta bidezko hori galduko duelako. Hala, norberak duen diruaren araberako osasun-laguntza jasoko du, eta pobreenek ez dute kalitatezko osasun-laguntzarik izango.

Politikaren aldetik osasun publikoan dagoen interes urria nabaria da masifikazioan edo ebakuntzak egiteko, espezialisten, pediatren edota lehen mailako kontsultetako, eta beste hainbat zerbitzutako itxoite-zerrendetan. Osasun publikoarekiko interesik ez izatea eta horren ospea galaraztea aldeztu aurretik pentsatuta daude, eta lehen pausoa besterik ez dira oso ondo planifikatutako estrategia baten barnean: "presarik gabe, baina geratu gabe".

Horren helburua herritar guztien osasuna babesteko eskubidea ez izatea da, aitzitik, ordain dezaketenen pribilejioa izatea.

Lehen mailako arreta

Lehen mailako arretak gaixoaren arreta integratu, koordinatu eta kudeatu behar ditu, eta horrekin batera, osasuna sustatu eta gaixotasuna prebenitu. Hori guztia osasun publikoko zerbitzuekin eta osasunarekin lotuta dauden edo osasun-arloan ardurak dituzten (partaidetza soziala barne) gainerako eremuekin koordinatuta beti.

80ko hamarkadan egindako erreformaren ondoren, gobernuek aldeko jarrerak izan zituzten, baina 1995. urtetik aurrera, atzera egiten hasi ziren, eta egun, lehen mailako arretak osasun-sistemaren "arriba pobrea" izaten jarraitzen du. Izan ere, behar duena baino diru gutxiago jasotzen du lehenago aipatu diren lehen mailako arretaren eginkizunak betetzeko, hau da, gaixoaren arreta integratzeko, koordinatzeko eta kudeatzeko, bai eta osasuna sustatzeko nahiz gaixotasuna prebenitzeko ere.

Lehen mailako arretak ematen dituen zerbitzuak areagotu egin dira, baina lantaldea ez da era berean handitu. Hori dela eta, langileak asko haserretu dira, motibazioa galdu dute eta zerbitzuaren kalitatea ere jaitsi egin da. Osasun-arloak oso gutxi garatu dira, osasun-planak baztertu, eta zerbitzuen eskaintza handitu egin bada ere, neurri handi batean lehen mailako arretak teknifikazio handiagoa lortzeko izan da (koagulazioaren kontrakoa, espiometriak, kirurgia txikia eta beste hainbat). Eta hori guztia ona bada ere, baliabiderik ez izateak erreformak jasotzen zuen filosofiaren berezko beste jarduera batzuk bidean uztea ekarri du: hain zuzen, osasuna sustatzearekin eta gaixotasunak prebenitzearekin zerikusia duten jarduera guztiak.

Erizaintzan eta medikuntzan giza baliabide eta denbora gutxi izateak, kontrako beste alderdi batzuk ekarri ditu: erizainek ezin dute komunitate-lanik egin, eta medikuntzan, prozesuak medikalizatu egiten dira. Azken horrek, gainera, ondorioak izango ditu herritarrengan eta osasun-gastuan.

Langile gutxi dagoenez, orain lehen mailako arretan eta pediatrian ere itxotez-zerrendak sortzen ari dira.

Herritarren partaidetzarako sortutako egiturek ez dute behar bezala funtzionatzen, eta haien eginkizunak kontsultarako besterik ez dira. Partaidetzako organoak baino, burokrazia- eta administrazio-organok dira gehiago. Ezinbestekoa da, osasun-alorrean ere, herritarrek erabakiak hartzeko partaidetza handiagoa sustatzea eta profesionalak ere kudeaketan zeresan handiagoa izatea. Kudeatzaile politiko gehiegi daude.

Herritarrek dituzten eskari gehienak maila berean dagozkie osasun-sistemari eta gizarte-zerbitzuei. Horregatik, plan sozio-sanitario bat izan behar dugu; behar horiek guztiak jasotzeko, behar den aurrekontuarekin hornitzeko eta Osasunaren eta Gizarte Ongizatearen artean benetako elkarrekintza lortzeko.

Zerbitzu publikoek profesionalen prestakuntza eta horiek egindako ikerketan lanak sustatu behar dituzte, baita lehen mailako arretan ere. Prestakuntza eta ikerketa-lan horiek, gainera, profesionalen lan-orduetan egin behar dira, ahal den neurrian. Izan ere, haiek lan-orduetatik at egin behar badituzte, dagoeneko duten gainkarga kontuan hartuta, lan horiek norberaren kontu geratuko dira, eta horrek, azken batean, zerbitzuaren kalitatea kaltetuko du.

Horregatik, honako **neurri** hauek proposatzen ditugu:

- 1- EAEko osasun-gastua Europar Batasuneko batezbestekoarekin handitzea eta osasunean BPGren %7ra iristea.
- 2- Aurrekontua igotzea baino garrantzitsuagoa izango da beharbada banaketa hobetzea edo egokitzea. Lehen mailako arretan aurrekontu guztiaren %20 gainditu behar da gutxienez; ordainetan, erabakitzeko gaitasuna hobetuko du eta botika generikoen portzentajea igoko da (batezbeste %35era igoko da gutxienez hurrengo lau urteetan).
- 3- Lehen mailako arretako kontsultetan dagoen masifikazioaren kontra egitea. Horregatik, lehen mailako arretan, asistentziako prozesuaren antolaketa hobetzeko proiektuak egitea proposatzen dugu. Izan ere,

ARALARko kideok uste dugu LMeko arazoak ez direla baliabide ekonomiko gehiago jarrita bakarrik konponduko; beharrezkoa da, halaber, antolaketa aldatzea eta aldaketa horren euskarria profesionalen estamentu eta maila guztiek partekatutako printzipioak eta balioak izatea, hasi zuzendaritzatik eta lehen mailako arretako estamentu profesional guztietara iritsi arte, herritarrak beraiek barne.

- 4- LMaren erreforma guztia EAeko lurralde guztira zabaltzea.
- 5- Erreformak ukitzen dituen pertsonen partaidetza erraztea proiektuen hedapena eta eztabaida sustatuz. Herritarren partaidetza OSASUN-BATZORDEAK sortuz eta sustatuz piztea.
- 6- Osasun-alorrean nahi den espezialista, espezialitate-zentro edo anbulatorioa aukeratzea.
- 7- Epe ertainean anbizio handiko plan bat ezartzea, botika-gastuak kontrolatzeko. Plan horrek barnean hartuko ditu botikak zentzuz erabiltzeko, aginduak kontrolatzeko (lehen mailakoak eta espezialistak) eta herritarrak kontzientziazteko jarduerak. Botika generikoak erabiltzea sustatuko dugu.
- 8- Oporretan edo irakaskuntzan dauden langile guztiei (%100) ordezkioak jartzea, eta horrekin batera, lan-eskaintza publikoari eta langile guztiei buruz sindikatuekin hartutako konpromisoak betetzea.
- 9- Eskualdeko ospitaleetan eta baserrialdeetan arratsaldeko txandetako lana sustatzea.
- 10- Plan sozio-sanitarioa aurrekontua egokiaz hornitzea.
- 11- Lehen mailako arretan prestakuntza- eta ikerketa-planak erraztea.
- 12- LMn bioetika-batzordeak ezartzea.
- 13- Lehen mailako arreta lehen aipatutako filosofiari jarraituz egitea. Hala, gaixotasunaren prebentzioa eta osasunaren sustapena garatuko dira, laguntza baztertu gabe. Horretarako, sustapeneko eta prebentzioko plan horietarako baliabideak handituko ditugu.
- 14- Osasun Saila eta Osakidetza beste era batera antolatu behar dira, beraien ekintzak koordinatuagoak, integratuagoak eta eraginkorragoak izan daitezen.
- 15- OSALAN eta bere programa eta baliabide guztiak Osasun Sailera eramatea. Lan-istripuak, laneko gaixotasunak, berriak eta zaharrak, edo

- lanerako ezintasun iragankor eta iraunkorrak ugaritu egin dira. Hori dela eta, osasun-sistemarekin, Osakidetzarekin, koordinazio handiagoa duten esku hartzeko tresna eraginkorragoak, zorrotzagoak behar dira (eta beren esku-hartzeetan bizkorragoak direnak).
- 16- Nerbioi ibaiaren eskuinaldean Osakidetzaren ospitale bat berehala eraikitzea. Uribe Eskualdean. Hura eraikitzea behar-beharrezkoa da, Guruzetako Ospitalearen funtzionamendua arintze aldera eta eskuinaldeko herritarrei, erdi mailako klasekoak gehienak, zerbitzu hori hurbiltzeko.
 - 17- Gernika, Urduliz eta Zallarako Bereizmen Handiko Zentroen proiektuak aztertzea eta berrikustea. Haien finantzaketa- eta antolaketa-planak aztertzea eta espero diren emaitzak ere gardentasunez eta eraginkortasunez aztertzea.
 - 18- EAEko ospitaleetako mediku guztiek bigarren txanda edo arratsaldeko txanda izatea. Profesional-eskasiak, sistema oso erabilia izateak eta sistema publiko eraginkorragoa lortu nahi izateak hala gomendatzen dute. Goiz eta arratsaldeko txandak zentro guztietan eta osasun-sistemak guztiz funtzionatzea. Hala, eskuragarritasuna nabarmen hobetuko da.
 - 19- Heriotza duina izateko eskubidea. Osakidetzaren ospitale guztietan zaintza aringarriak izateko eskubidea.
 - 20- Eutanasiarako eskubidea. Nork bere buruaz beste egiten laguntzeari buruzko legea, herritar bakoitzak bere gorputzarekin nahi duena egitea errespetutako duena.
 - 21- Abortatzeko eskubidea. Laugarren hipotesiaren gainean lege argiak egitea, eta haurdunaldia eteteko eskubidea ez kriminalizatzea.
 - 22- Emakumeak hala eskatzen badu, in vitro ernalketarako probak egiteko eskubidea izateko emakumearen adina 45 urtera arte igotzea.
 - 23- Osasun-zentroetan eta ospitaleetan immigrantearentzako arretan kultur artekotasuna babestea, guztiak barnean hartuko dituen euskal osasun-zerbitzu baten alde.
 - 24- Erreferentziazko edo hirugarren mailako ospitale nagusi guztietan akutuen unitate bat izatea.

25- Akutuen eta egonaldi ertaineko ospitale guztietan: diziiplina anitzeko aholkulari talde bat eta balorazio geriatrikorako unitate ambulatorio bat izatea.

26- Geriatriako diziiplina anitzeko ekipo higikorrak ezartzea (medikua, erizainak eta gizarte-langilea). Ekipo horiek ospitaleko zerbitzuetan modu proaktiboan egingo dute lan, eta alta jasotzean ere zuzeneko arreta eman eta baliabideak eskuragarri jarriko dituzte. Ekipo higikor horiek geriatriako akutuen unitaterik ez duten eskualdeko ospitaleetan egingo dira.

HIESa

Nazio Batuen arabera, egunero 8.000 lagun hiltzen da munduan HIESaren ondorioz. Eta egunerako 14.000 lagun kutsatzen da GIBarekin, HIESa sortzen duen birusarekin.

Egoera bereziki larria da, Saharaz azpiko Afrikan eta Asiako eskualde batzuetan daude gehien kutsatutako herrialdeak eta pandemiaren ondorioak suntsitzailak dira maila guztietan. Gure lurraldean gaixotasun kronikoa bihurtu den bitartean hein handi batean, arestian aipaturiko lurraldeetan tratamenduak helarazteko zailtasun handiak daude, eta aplikatzen direnean ere bere eraginkortasuna murriztu egiten da, pertsonak dituzten desnutrizio eta osasun ahula medio. Gogoratu bizirauteko tratamendu hori behar duen 10etik 9ak ez duela eskura. Egoera hori onartezina da eta ahaleginak egin beharko lirateke tratamendu horiek ahalik eta lasterren behar duten guztien esku egon daitezen, dauden tokian daudela.

Baina tratamendua mundu osoaren esku egon arren, GIBa hedatzen jarraituko da, ezingo dugu hori geldiarazi. Ohiko prebentzio metodoak ez dira nahikoak. Esaterako preserbatiboak eraginkorrak dira, baina mugak dituzte. Gaur egun, HIESaren pandemiarekin bukatzeko itxaropenik onena txerto prebentibo bat aurkitzea da. Eta iruditzen zaigu, txerto hori garatzeko, ahalik eta bitarteko gehien jarri behar ditugula erakundeetatik, behar duen besteko bultzada emanaz. Eta horretan saiatuko gara Aralarretik HIESari aurre egiteko txertoa garatzeko erakundeetara proposamenak eramaten, bereziki ikerketa

bultzatzeko eta indartzeko bitarteko ekonomikoak jar daitezzen eta babes politikoa eman dadin. Aldi berean, gizartea kontzientziatzeko sentsibilizazio kanpaina desberdinak bultzatuz eta praktikara eramanez, prebentzio alorretik hasiaz eta beste alor guztietara iraganez.

Espetxeak eta osasuna

Aralarren uste dugu presoak berriz gizarteratzea sustatu behar dugula, zigor-erakundeak inolaz ere pertsona-edukiontzia bilaka ez daitezzen. Espetxeetan dauden pertsonen aske daudenen osasun-eskubide berbera izan behar dute.

Presoen egoera aztertzen badugu, espetxeratuen portzentaje handi batek toxikomaniak, buruko gaitzak edota kopuru handi batek biak dituela ikusten dugu. Pertsona horiek espetxeetan eman ezin zaien arreta espezializatu behar dute; horretarako badira beste erakunde batzuk, esate baterako buruko gaitzen zentroak. Horregatik, egiazko beharrak hautematen baditugu, hobeto esku hartuko dugu.

Langileak ere diskriminaziozko egoeran bizi dira Osakidetzako osasun-langileen lan-egoerarekin alderatuta, eta horregatik ondokoa eskatzen dugu:

1. Transferitutako eskumena osasunaren alorrean garatzea, Osakidetzaren bitartez.
2. Toxikomaniekin eta buruko gaitzekin lotura duten programak garatzea.

Sozio-ekonomia

Burujabetza ekonomikoa bitarteko gisa: Europar Batasunean egoteari esker izan ditzakegun ekonomia-alorreko eta gizarte-alorreko eskumen guztiak eduki nahi ditugu. Ahalmen arauemaile osoa nahi dugu, mendekotasunik gabe —hau zerga-esparruari ere badagokio, Kontzertu Ekonomikoa barne; izan ere, Luxemburgeko Auzitegiak epaia eman arren, Estatuarekiko zerga-koordinazio eta -harmonizazioaren printzipioaren eraginpean dago—. EBko hainbat ekonomia-forotan egotea, alegia Euskadiko agenteek defendatzeko interesak

izan ditzaketen esparruetan egotea aldarrikatzen dugu (Ecofin, NPB, konkurrentziaren politika eta beste foro batzuk). Ezinbestekoa dugu, beraz, arauak emateko, esku hartzeko eta erabakitzeko ahalmen osoa lortzea. Ezinbestekoa da gure gain ahalmen osoak hartzea eremu sozio-laboralean—gizarte-segurantza eta enplegu-politika pasiboak barne—, transferitu gabeko azpiegituren alorrean (portuak eta aireportuak) eta, horrekin batera, esparru burujabe bat lan-harremanetan. Ekonomian ere kudeaketa-esparru burujabea behar-beharrezko baliabidea da, justizia eta elkartasun soziala eta iraunkortasuna lortzeko nahikoa ez bada ere.

Eredu ekonomiko iraunkor eta solidarioa, plangintza estrategiko publiko batean oinarritua

Sozio-ekonomiaren eremuan honako sei helburu partzial hauek lortzeko:

- **Gizarte-produktuaren bidezko banaketa.**
 - Enplegua sortzeko eta lan-ezegonkortasunaren kontrako politika publikoak. Legeen bidez lanaldia asteko 35 ordura murriztea. Euskal Administrazio Publikoak egun dituen lanak azpikontratatzeko formulak arbuiatzea. Enplegu-politika aktiboak garatzeko eskumen eskusiboak bere gain hartuko dituen Enplegua Sustatzeko Euskal Kontseilua. Lanbide arteko gutxieneko soldata, gaur egun pobreziaren mugaren azpitik dagoena, 1.107 euroko 14 ordainsaritara igo dadin (per capita errentaren %50) exijitzea. Lan-alorrean genero-berdintasunerako arau eraginkorrak ematea eta biztanleria aktiboan emakume gehiago sartzeko sustapen-neurriak hartzea.
 - Garatu eta finkatu egin behar diren sektore tradizionalak defendatzea. Banaketa masiboko sistemen aurrean, nekazaritza eta abeltzaintza tradizionaleko eta arrantzako sektoreak babesteko elikadura-burujabetzako irizpideak ezartzea. Hiltegi tradizionalei eta banaketa-ziklo laburrei eustea.

- Merkataritza tradizionala defendatzea eta hiriko merkataritza suspertzea. Bereziki hiriguneetako merkataritza berriz gaitzeko helburua duen plangintza nagusi izatea. Plangintza horretan azalera handien ezarpena zorrotz arautu eta gune saturatuak zehaztu behar dira. Horrekin batera, merkataritzako ordutegi tradizionala defendatzea.
 - Sektore berriak bultzatzea. Bidezko merkataritzaren sareak zabaltzea. Turismo iraunkorra babestea. Ekonomia soziala eta solidarioa indartzeko, mutualitateen, kooperatiben eta elkarten bitartez bideratzea.
 - Garapen solidarioa. Ekonomia Sozial eta Solidarioko Ganbera sortzea, esku-hartze eta inbertsio sozial arduratsuen eremuan egiten diren ahaleginen katalizatzailea izan dadin. Garapenerako Laguntza Ofiziala zabaltzea eta herrialde hartzaileekiko merkataritza-harremanetatik bereiztea.
- **Garapen iraunkorra.** Hornidura Publiko Arduratsua (Procurement), hau da, erosketan publikoetan ingurumena eta gizarte-kodeak errespetatzen dituzten produktuak eta zerbitzuak gero eta gehiago izateko konpromisoa oinarritzat duena. Ekoizpen, merkataritza eta turismo iraunkorrak; alegia, enpresek ingurumenarekiko duten erantzukizuna sustatzea eta, horretarako, isuri kutsatzaileak eta ez itzultzeko ontziak gehiegi erabiltzen dituztenak zigortzea eta ingurumenarekiko ardura printzipioa errespetatzen dutenei hobariak ematea. Eraikuntzaren sektoreak duen pisua gaur egungo BPGbren %8,5etik %6ra (EBko batez bestekoa) jaitea berehala, eta ingurumen- eta gizarte-arloetan ekimenak eginez konpentsatzea: esate baterako, azpiegiturako obra handiak ahalik eta gehien mugatzea, bai eta higiezinaren sektorearen nagusitasun ekonomiko eta soziala ere.

- **Ongizatearen gizarteari lehentasuna eman eta sendotzea.** Zerbitzu eta ondasun publikoak hornitzeko baliabide gehiago ematea, legealdian %50 gehitu arte. Zerbitzu publikoen privatizazio-prozesuak aztertzea. Zerbitzu publikoen eremua gastu publikoaren ardatz bilakatzea eta azpiegitura handietan eta obra zibil megalomanoetan egindako gastuaren aurrean hari lehentasuna ematea. Oinarrizko Errenta unibertsala eta lanbide arteko gutxieneko soldatarekin parekatua lortzea.
- **Ekonomia gizatiartzea.** Hirugarren sektorea bultzatu eta dinamizatzea; sektore honek barnean hartuko ditu dirutan egiten ez diren trukeak bai eta gai sozialekin eta ingurumenarekin lotutako jarduerak ere. Elkartasun Kutxa edo Banku Etikoa hedatu eta laguntza ematea, bidezko finantza-bitartekotza lortzeko eta Inbertsio Solidario Arduratsuko (ISA) fondoak sustatu eta sortzeko.
- **Ekonomia-garapenean gidaritza publikoa izatea.** Garapenerako bankuak edo Toki Garapenerako Finantza Entitatea. Industria-politika eraginkorra eta integrala egitea, eta esku hartzeko honako esparru hauei lehentasuna ematea:
 - Sektore estrategikoetan helburuak zehaztean eta enpresak sortu, haietan parte hartu eta kudeatzean, administrazio publikoak ahalmeneko plangintza bat egitea eta gidaritza bere gain hartzea. Enpresen Partzuergo Publikoa eratzea; tokiko ekoizpen-sareak sortzeko edo bideragarriak izan daitezten laguntzeko zuzenean esku hartuko duen plataforma bat izango da.
 - ETEen jarduera sustatzea, enplegua sortzen laguntzen dutelako, tokian errotuago daudelako eta kapital soziala sortzeko ahalmena dutelako. Horretarako Tokiko Garapen Agentziak indartuko dira, eskualdeetako herri nagusietan enpresa txikiei laguntzeko zerbitzu espezifikoak sortuko dira, lurralde barneko eta eskualde barneko komunikazio-azpiegituren sarea hobetuko da eta tokiko ekoizpen-profilei

egokitutako etengabeko prestakuntza integrala antolatuko da.

- Gizarte-berrikuntza zientzia-, teknologia- eta berrikuntza-politiken ardatza izatea. Hezkuntzarako eta Unibertsitateko zientzia-ikerketarako den aurrekontu publikoa handitzea.
 - Hurbileko merkataritza-sareak ezartzea, azalera handietan antolatuta dagoen banaketa masiboko sistema zuzendu dezaten, eta herrietako eta auzoetako merkataritza txikiari eta ertainari lehentasuna ematea.
 - Laneratzeko enpresen gizarte-kontseilua sortzea.
 - Laneratzeko enpresak sustatu eta lehentasuna ematea, pobrezia-eraren kontrako borrokan ekonomia-eragile izan daitezzen.
- **Ezgaitasunak dituzten pertsonak lan-munduan sartzeko eta haien ekonomia-garapenerako politikak.**
- Sektore publikoko kontratazioan gizarte-klausulak sartzeko eta sektore publikoko kontratuen 30/2007 legean horretarako beharrezkoak diren aldaketak egitea.
 - Ezgaitasunaren sektoreko irabazi-asmorik gabeko entitateei laguntzea, ezgaitasunak izanik langabeak diren pertsonentzako ibilbideak sor ditzaten, lan-munduan sartzeko.
 - Lanpostuen egokitzapenean I+G+B indartzea, enplegua lortuko dela eta gaixotasunak eta haien larriagotzea saihestuko direla bermatzeko.
- **Ekintza kolektiboak, publikoak eta gizartearentzat interesa dutenak nagusi izatea.** Ildo horretan, honako baliabide eta foro hauek sortzea:
- Enpresa Partzuergo Publikoa: EAEko ekonomiarentzat estrategikoak direnez, zati batean edo osorik titulartasun publikoa duten enpresen taldea.

- Ekonomia Garapen Iraunkorrerako Zuzendaritza Integrala: gidaritza publikoa izango duen sozietatea. Bertan eremu sozio-ekonomikoan lehentasuna duten ekintzak aztertu eta ebaluatuko dira modu koordinatuan.
- Gobernuak oro har gizarte-eragileekin eta bereziki sindikatuekin elkarrizketa sozial etengabea izatea.

Zerga- eta aurrekontu-politika aurrerakoiak

Zerga-politikaren eta aurrekontu-politikaren egungo joera murriztailea eta atzeragarria errotik aldatzea, desberdintasun sozialen kontrako eta ongizatearen estatua berreraikitze baliabide eraginkor gisa. Berehala eman beharreko urratsa da presio fiskala EBko batez bestekoarekin parekatzea (BPGbren %7 igotzea) eta aurrekontuen superabitak gizarteko sektore aberatsenei zergak murrizten jarraitzeko erabiltzeari uko egitea.

Honako proposamen zehatzak egiten ditugu fiskalitate bidezkoago, aurrerakoiago eta Euskadiko herritarrek hobeto onartutako baten alde:

1- Zerga Koordinazioko Organoa kentzea eta fiskalitateari buruzko eztabaida eta erabakiak Gasteizko Legebiltzarrera eramatea.

2- Zerga zuzena zeharkakoaren aldean nagusitzea. Zeharkako zergaren aldean zerga zuzena nagusitzeko eta zerga-iruzurra hedatzea saihesteko, Eusko Jaurlaritzak eta Euskadiko zerga-administrazioek konpromisoa hartu behar dute legeetan eta araudietan beharrezkoak diren aldaketa guztiak egiteko. Horretarako, soldatakoak ez diren errenten heren bat urtero ikuskatzea bermatuko da eta, gainera, arreta berezia jarriko da sistematikoki iruzur egiten duten sektoreetan eta Euskadiko ekonomiari kalte egiten diotenetan.

3- PFEZren mailaz mailako igoera, eta hala:

- Azken erreformatako joera atzeragarria aldatzea –2007koa barne–. Laneko errenten eta kapitaletako errenten (azken erreformatik tarte bakarra duena) tarteak handituko dira eta,

lehenik, tarte altuenetarako tasak azken erreforma egin aurreko maila berean jarriko dira.

- Pobrezia-mugatik (ELGAren irizpideen arabera) gorako diru-sarrerak dituzten pertsona guztiek zerga-aitorpena egin behar izatea.
- Tarifa orokorraren tarteak Europako batez besteko tasetara egokitzea.
- Gainbalioen gaineko tarifa berezia Estatukoa baino handiagoa izatea, desagertzen ez bada eta haren ordeztu beste mekanismo bidezkoago batzuk jartzen ez badira behintzat.
- Etxebizitzak eskuratzeko arautze fiskala alokairuaren alde orekatzea.
- Pentsioen eta borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeen zerga-tratamendua parekatzea, pixkanaka desagerrarazteko joerarekin.

4- Ondarearen gaineko zerga mantentzea. Errenta altuenak zergapetzen dituen zerga hori kentzeari kontra egitea.

5- Sozietateen gaineko zergan tasaren beherapena indargabetzea. Azken urteetako tasa jaisteko joera aldatzea eta berehala aurreko tasa, %32,6koa, berriz ezartzea.

6- Iruzuraren kontrako politika eraginkor bat prestatzea. Zerga-iruzurraren kontrako borrokan baliabide publikoak %300 gehitzea eta zergak ez ordaintzeko joera handiagoa duten sektoreetan kontrol publiko eraginkor baterako neurriak hartzea, ikuskapenen bitartez.

7- Kontzertu Ekonomikoan establezimendu egonkorraren kontzeptua ezartzea. Kontzeptu horrekin zergak kudeatzeko, ikuskatzeko eta biltzeko gaitasuna lotzea, nazioartean kontzertuari buruz eta zerga-egitateak burutzen diren tokiari buruz onartutako irizpideei jarraiki; horixe baita Euskadiko ogasunak EAEn dauden ekonomia-unitateak kontrolatzeko modu bakarra. Euskadiko ogasunak EAEn dauden faktoria eta merkataritza-establezimendu guztiak kontrolatzea eta Espainiako ogasunak Espainian daudenak

kontrolatzea da helburua, Europar Batasuneko hainbat herrialdetan gertatzen den moduan.

8- EAEko gizarte-segurantzaren eskumen osoa izatea, ahalmen arauemaile osoa barne. Euskaldunok ere badugu ekonomia-politikaren funtsezko elementu den honi buruz askatasunez erabakitze eskubidea.

9- Aduanen kudeaketa aldarrikatzea. Ez du zentzurik Europar Batasunak bere eskumenak Estatuko ogasunaren esku uzteak, beste zerga guztiak euskal ogasunen eskumenekoak direla kontuan hartuta. Horrek ez du esan nahi aduanak jarri behar direnik edo halakorik, aduanen politika Bruselako komunitateko gobernuaren eskumenekoa da-eta. Guk proposatzen duguna da Euskadiko ogasunak zerga guztien kudeaketa integrala, aduenetakoa barne, bere esku izatea. Horretarako, nahikoa litzateke administrazioak erabaki bat hartzea EBen konturako zerga horien kudeaketa euskal ogasunaren esku uzteko, Estatuko ogasunaren esku kudeaketa isolatu bat mantendu ordez.

Gainera, zerga jakin batzuen honako alderdi hauetan aurrera egin daiteke:

10- Oinordetza eta dohaintzen gaineko zergan enborreko ondasunen oinordetzetarako eta dohaintzetarako tasa txiki bat ezartzea, etxebizitza transmititzearen ondoriozkoa dena salbu muga jakin bateraino.

11- Sozietateen gaineko Zergan tasa aplikagarria igotzea. Kuotaren zerga-gastuak, kenkariak eta beherapenen kategoria guztiak aztertzea. Eta EAEko ekonomiaren garapen iraunkorarekin eta solidarioarekin batera ezin daitezkeenak kentzea. Haien ordez ahal den guztietan laguntza zuzenak edo zeharkakoak jartzea, neurri hauek eraginkorragoak baitira.

12- Lurraren fiskalitatea espekulazioaren kontrakoa izan dadin berriz bideratzea, Lurren balio-gehikuntzaren gaineko udal-zergaren bitartez (gainbalio-zerga).

13- **BEZen moduluak kentzea.** Estatuak BEZen gainean duen eskumen arauemailea erreklamatzeko. Ondasunen entrega batzuek eta zerbitzuen prestazio batzuek ezarrita dituzten tasak berriz aztertzea.

14- **Gaur egun Estatuaren esku dauden kontsumo espezifikoaren gaineko zergen eskumen arauemailea eskatzea.** Egiazko ekologia-zerbak ezarri behar dira, gehien kutsatzen duenari zerga handiagoak ezartzeko eta, azkenean, egoera txarrean dauden klaseek zerga handiagoak ez ordaintzeko.

2. Giza eskubide guztiak guztientzat

Indarkeriari zilegitasuna kendu

Bakean bizitzeko eskubidea daukagu. ETAk bakea zor dio gizarte honi, horrela eskatzen duelako euskal gizartearen gehiengoak. Urte gutxian gertatutako bigarren bake prozesuak porrot egiteak eta berriz ere indarkeria krudelena itzuli izanak, garondoan tiro egitekoak, euskal gizarteari etsipena ekarri dio; nagusitu den ideia da politikatik eta gizarte lanetik ez dugula ezer egiterik, edo oso gutxi, bakea lortzeko. Baina egoera horrek sekula baino gehiago eskatzen du ezkerrekoak eta abertzaleak izatea indarkeriari zilegitasuna kentzeko lan handiena egin behar dugunok. Gu gara —ETAk gure izenean aritzen dela esaten baitu— ETA Euskal Herriko nazio eraikuntzan soberan dagoela ozenen eta garbien esan behar dugunok. Isiltasuna oso nabaria delako. Isiltasun gehiegi dago, oraindik ere, batere esplikaziorik, eta are gutxiago justifikaziorik ez duten gertaeren aurrean. Jarraitu behar dugu isiltasunaren hesia hausten, eta besteek ere hauts dezaten ahalegintzen, hori izanen baita bakearen alde borrokatzeko modu eraginkorrena.

Bertan behera uztea tortura eta inkomunikazioa

Tortura bertan behera uztea eginkizun dago, oraindik ere, estatu espainiarrean. Hala baieztatzen dute, bai EAEn egon diren NBEko kontalariek, bai behin eta berriz Amnesty International erakundearen txostenek, kanpoko iturriak aipatzeagatik. **Aralarrek** lanean jarraituko du eta tortura zein inkomunikazioa gainditzeko egin daitezkeen ekimen guztiak proposatuko ditu, esate baterako:

- Gorteetan ekimen legegilea defendatzea bertan behera uzteko inkomunikazioa ahalbidetzen duten Prozedura Kriminaleko Legearen artikuluak.
- Kamerak sistematikoki jartzea herrialdeko komisarietan, hala Ertzaintzarenetan nola beste polizienenetan.
- Salatzea antzematen diren tortura kasuak eta biktimak laguntzea...

Biktimak

Aurreko legegintzaldian zehar asko aurreratu da kontu honetan, Terrorismoaren Biktimekiko Elkartasun Legea onartu da, bere baitan talde armatu guztien biktimak biltzen dituena. Halere, gai honetan arreta handiz aritu behar da konparaziozko bidegabekeriak gerta ez daitezen. Honi dagokionez, badira bi biktima talde, Egia, Justizia eta Ordainerako eskubidea bermatuta ez dutenak.

- **Frankismoaren biktimak:** aurreko legegintzaldian zehar Eusko Jaurlaritzak ez ditu entzun, eta ez ditu kontuan hartu, frankismoaren biktimen elkarten erreklamazioak. Nahikoa ez den Memoria historikoaren legearen aurrean, eta nahikoak ez diren laguntzen aurrean —batzuek jaso dituzte Gizarte Gaietarako Departamentutik (beste askok ezin izan dituzte bete ezinezkoak ziren betebeharrak)—, gizarte laguntzak jasotzea baino duinagoa den aitorpen bat eskatzen dute.

Makina bat alditan eskatu dute kontu hau giza eskubideen zuzendaritzatik jorratzea. Proposamen zehatzak egin dituzte, **Aralarretik** gure egiten ditugunak, honako hauek, besteak beste:

- Frankismoaren biktimen errolda egitea.
- Frankismoaren garaian egindako konfiskazioen errolda egitea.
- Frankismoa pairatu eta bizirik jarraitzen duten pertsonen lekukotasunak biltzea.
- Abian jartzea, euskal esparruan, egiaren batzorde bat. Era horretan biktima eta familiako guztiek argitu ahal izango dute beren ahaide zehatzarekin gertatutakoa, eta gizarteak argazki zehatzagoa izango du gertatutakoaz. (batzorde hau sortzeak Legebiltzarrak onartu zuen, baina ez da abian jarri).

Politika arrazoiengatik indarkeria jaso duten biktimak (ez dira aitortzen terrorismoaren biktima gisa): Biktimen Legea onartzen zen aldi berean, Eusko Jaurlaritzako Giza eskubideen zuzendaritzak txostena igorri zion Legebiltzarrari (honek hala eskatuta). Bertan esaten zen bazeudela beste biktima batzuk (gutxienez 109), politika arrazoiengatik indarkeria jaso dituztenak, eta

instituzioek aitorturik edo kontuan harturik ez zeudenak. Txosten horretan berean gomendioa ematen zen biktima horietarako arreta bulego bat sortzeko, Legebiltzarrean batzorde txostengilea sortzeko, baita biktima horiek aitortu eta haiei ordaina emateko legea onartzeko ere. Hala eta guztiz ere, gobernuak ez du deus egin. **Aralarrek** bere egiten ditu gomendio horiek, eta lehentasuna izango dira hurrengo legegintzaldian.

Presoak

Presoak eskubideak dituzten pertsonak dira. Euskal Herrian egoteko eskubidea dute, ikastekoa, eta bere espetxealdia betierekoa ez izatekoa. Osasun arazoak dituzten presoek tratamendu egokia jasotzeko eskubidea dute eta, jakina, legeak aitortzen dizkien espetxe onurak jasotzekoa ere. Espetxetik ateratzea barne. Presoek, halaber, eskubidea dute herrialde honetan gertatzen diren eztabaidetan parte hartzeko, edozein dela ere pertsona gisa eztabaida horietan defendatu nahi duten iritzia.

Sakabanatzea bukatu behar da, zigor gehigarri bat delako; gainera, presoek bisita egiten dieten ahaideak eta lagunak ere zigortzen ditu.

3. Berdintasuna aniztasunean

Hona hemen egin beharreko lehenbiziko galdera: zergatik?

Berdintasunean oinarritutako diskurtsoa eta printzipioa itxura batean nahikoa zabaldu eta gero, hainbat lege indarrean jarri eta gero, Berdintasun Planen ondoren... oso inertzia indartsuek irauten dute oraindik ere gizartearen baitan, besteak beste, ondoriorik lazgarriena eragiten dutenak... "indarkeria matxista".

Aralarren uste dugu hain negargarria den izurrite hori oinarritzen duen ideologia matxistak, baita ere, emakumeen eta gizonen arteko beste edozein ezberdintasun egoera oinarritzen duela. Hartara., **bada ideologia matxista bat.**

Ideologia hau ez da arrotza gure gizartearen inongo estamentutan, ez da eskusiboki gizonena, eta askotan Erakundeak eurak dira beren egitekoak ez betetzearen ondorioz (legezkoak, etikoak eta politikoak) indartzen dituztenak. Hau, beste konturen batean sekulako **eskandalu demokratikoa** litzatekeena, anekdota hutsa da sexu berdintasunaren aferan.

Eta honek erakusten digu erakunde horietatik berdintasunari buruz hitz egiten digutenen konpromiso politikoaren neurria.

Emaitza begi-bistakoa da. Aldarrikatzen dutenen zilegitasun eza, emakumeen alde lan egiten dutenena, hain zuzen. **Emakumeen** zilegitasun eza, funtsean.

Horregatik, **Aralar** alderdiak **parekotasunean** oinarritutako berdintasunezko gizarte baten aldeko apustua egiten du. Eta zer da hori? Bada, berdinak izateaz gain, gizonek hartzen dituzten botere publiko zein pribatuaren sektore berdinak **hartu** nahi ditugula guk. Gizarte eta politika esparru guzti-guztietan.

Gizartearen egitura aldatu nahi dugu, **emakumeak ahalbidetuko** diguna, **aurrera egiteko.**

Aldaketa horrek **ideologia paritario** berri bat sortu nahiko luke, lan, politika eta kultura esparruetatik. Horrek egungo ereduari aurre egingen dio eta etorkizuneko gizartearen garapenaren funtsa izango da.

Honi dagokionez, eta azken urteotan egin diren aurrerapenak aitortuta, helburu horretarako funtsezko ikusten dugu honako hau:

1. Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Legea etengabe betetzea, garatzea, aldatzea eta ebaluatzea.

Legeak funtsezko kontu asko geroan garatzeko utzi zituen, baina beharrezkoa da horiek lehenbailehen garatzea. Araudiaren Garapen Osoa.

Orobat, ezinbestekoa da legea aldatzea honako arlo hauetan:

Diskriminazio jokamoldearengatik egindako arau-hauste katalogo bat eratzea. Horren bidez **administrazio zigorrek ezarriko zaizkie kargudun publikoei, politikak izendatutako kargudunei edo administrazio publikotik aritzen direnei**, ez badute behar bezala egiten berdintasuna bultzatzeko eta defendatzeko bere lana.

Balioestea modu garbian jarduera pribatuak, eta dagozkien zigorrek, gizartean eragina badute (bide publikoan gertatzeagatik, edo baimen publikoa edo administratiboa eskatzeagatik). Uste dugu bereziki sentiberak direla kontu horiek diskriminazioaren aferan, berdintasunaren irudi desitxuratua ematen dutenean edo horren aurkakoak direnean.

Genero eragina baloratzeko dekretua aldatzea, balorazio horietan ondorio garbiagoak eskatu ahal izan daitezten. Horrela argiago ikusiko da legeak nondik jo behar duen genero ikuspegia kontuan hartzeko. Zama burokratikoak kentzea eta arinago zein eraginkorrago bilakatzea.

Emakumearen defendatzailea sortzeko dekretua aldatzea, Legebiltzarraren mende dagoen erakundea izan dadin eta ez Jaurlaritzaren mendekoa, Arartekoaren edo Europako Iparraldeko herrialdeetako emakumearen defendatzailearen antzera.

Era horretan, esku hartu ahal izango da eremu publikoan zein pribatuan, eta ez soilik laneko esparruan, gizartekoan ere bai.

Era berean, epaile prozedurak abiarazi ahal izango ditu, hau da, bidezkoa izango zaio auzibide-prozedurak abiaraztea bai jurisdikzio zibilean, bai laneko jurisdikzioan.

Arartekoarekin koordinazio garbia izatea lortuko da horrela. Karguak ezin dira bikoiztu.

Sexu estereotipoak antzematekoa den **Begira organoa bultzatzea,** Jokabide aktiboa indarkeria matxistari lotutako estereotipo horiek antzemateko lanetan, eta sustatzea estereotipo berriak, berdintasunarekiko begirunea eta gizartearen parekotasuna bultzatuko dituztenak.

Berdintasunaren behatokia, emakumeak eta gizonak elkarlanean bilduko dituenak. Gizarte estamentu guztietan antzemate, salatze, hezte eta sentiberatze lanak egingo ditu.

Indarkeria matxistaren aurkako borrokarik onena berdintasunaren aldeko borroka da.

Azken bolada honetan harriduraz eta arranguraz ikusi dugu honako paradoxa hau gertatzen dela: elkarrengandik bereizten dira bi kontu horiek. Zergatik?

Emakume bat indarkeriaz hil izana salatzeak pankarta baten atzean kokatzeaz gain, eskubide berberak ditugula defendatu eta esan behar da, adibideak ugari ditugu.

Zentzu horretan:

Oso larria da, egoera ere halakoa baita, indarkeria matxistaren gaian, Erakundeen arteko erabateko koordinaziorik ez egotea.

Indarkeria matxistaren gaian, hasteko eta behin, erabateko koordinazioa egon behar da modu arinean eta azkarrean ikuspegi integraleko arreta eskaintzeko. Era berean, ikuspegi askotatik egin behar da, hau da, lagundu behar ditu inplikaturako alde ezberdinen arteko koordinazioa, protokoloen etengabeko berrikustea, eta biktimen iritzia kontuan hartzea.

2. 3/2007 Legea Autonomia Araudiari egokitu beharra dago. Bere arlo guztietan.

3. Udal Legeak berdintasun politikak garatzeko tresna izan behar du.

Udal Lege berriak argi eta garbi islatu eta garatu behar du Erakunde guztien papera zein den berdintasuna bultzatzeko orduan. 4/2005 Legearen 3.5 artikulua dio **“neurri bereziak eta aldi baterakoak hartuko dira sexuarengatik bizitzaren esparru guztietan gertatzen diren ezberdintasunak desagerrarazte eta murrizte aldera”**; argi dagoenez, agindu horretaz gain, garrantzi handikoa da herritarrengandik hurbilen dagoen Erakundearen eskumenak eta erantzukizunak zein diren zehatz-mehatz finkatzea. Arestian hitz egin dugu jadanik, **“administrazio zehapenez jokamolde diskriminatzaileengatik eta gizartean eragina duten jarduerak balioesteaz”**; araudi horretan islatu beharko lirarteke edo hari egokitu.

Horretaz gain, oso garrantzitsua da Udalek honako hauek bultzatzea eta eratzea:

- Berraztertzea Udal eskumen guztiak genero ikuspegia haietako bakoitzean ezartzeko.
- Berdintasun planak eta Ekintza Positiboa (Udal guztiak)
- Berdintasuneko zinegotziak (2.500 biztanle baino gehiago)
- Berdintasuneko Kontseiluak (Udal guztiak)
- Genero ikuspegia duten aurrekontuak (Udal guztiak)
- Asoziazionismoa bultzatzea (Udal guztiak)
- Harrera etxebizitzak eta indarkeria matxistaren aurkako planak (5.000 biztanle baino gehiago)
- Kontzilio planak Toki mailan (Udal guztiak)
- Pizgarriak Zerga araudietan, ordenantzetan eta prezio publikoetan. Helburua litzateke saritzea Berdintasun Planak eta Kontzilio Programak aurreikusten dituzten enpresak eta elkarte pribatuak (Udalak eta Aldundiak).

4. Araudiak aldatzea kargu publikoek amatasun eta aitatasun baimena izan dezaten. Estatuko legeriak gai hau arautzen du bestelako esparru batzuetan. Autonomia Araudiari egokitu beharra dago.

Garrantzitsua da honako mezu hau ulertaraztea: berdintasuna ez da soilik emakumeen kontua.

Hezkuntza arloan hezkuntza proiektu integral baten beharra ikusten da. Berdintasun elkarteekin laguntzarekin eta berdintasun ikuspegitik eratu beharko litzateke proiektu hori. Behatokiak zainduko du aipatu proiektu hori betetzea eta garatzea.

5. Eusko Jaurlaritzak, Osakidetzaren bidez, genero ikuspegia sartu behar du bere esku-hartze guztietan, emakumeek daramaten gehiegizko zamatik eratorritako arazo guztiak antzeman daitezten. Hortik abiatuta, genero ikuspegia duten programa espezifikoak sartu beharko ditu.

7. **Ahalduntzea.** Emakumearen parte-hartze politikoa: berdintasunaren aldeko lanean lehentasunezko helburuetako bat da emakumeak

ikusaraztea eta haien parte-hartzea erabakiak hartzeko esparruetan. Honek, halaber, gizonen ardura eskatzen du berdintasunaren aferan.

Aralarrek dei egiten dio gizarteari prostituzioaren erregularizatzeari buruzko eztabaidan hasteko eta sakontzeko konpromisoa eta beharra.

Abortua

1. Legeriaren aldaketa behar da, abortua delitu gisa arautua egon ez dadin, eta beraz, Zigor Kodean ager ez dadin. Arautu beharko da emakumeek bere haurdunaldia boluntarioki eteteko eta beren amatasunaz erabakitzeko eskubide gisa.
2. Legeak aitortu eta bermatu beharko du emakumeen ugalketa autonomiaren eskubidea, eta bere erabaki pertsonala hartu beharko du haurdunaldia soilik eteteko arrazoi gisa.
3. Eskubide hau zehazki eta garbi aitortu beharko da, eta bere praktika ezin izango da baldintzatu ezta oztopatu hirugarren pertsonak agertutako iritzi moralengatik, ezta osasun sare publikoaren zerbitzuen gabeziarengatik ere.
4. Haurdunaldiaren etete boluntarioaren estaldura ospitale sare eta ospitalez kanpoko sare publikoetan egin beharko da. Horrela bermatuko dira eskubide horren izaera unibertsala, eta osasun zerbitzu gisa normalizatuko da.
5. Kontzientzia objekzioari buruzko araudia eratu beharko da, bere mugak zehaztuko dituena. Halaber, xedapen bat ezarriko da, erakundeen eta administrazioen objekzioa galaraziko duena, eta bermatuko duena zentro publiko guztietan egotea emakumeen abortu eskariari erantzuteko behar diren profesional taldeak.
6. Erakundeek laguntzea eta babestea abortuak egiten dituzten profesionalak, bai sare publikoan, bai sare pribatuan.

Lesbiana, gay eta transexualak

Aralarrek aniztasun sexualaren aldeko apustua egingo du, sexualitate aske eta

osasuntsua izatea herritarrei dagokien eskubidea delako. LGTB (Lesbiana, gay, transexualak eta bisexualak) kolektiboak, gutxiengo genero-sexuala den neurrian, berezko ekintzak eta politikak behar ditu, kolektibo honen eskubideak bermatu ahal izateko.

2003ko maiatzean Eusko Legebiltzarrak Izatezko Bikoteen legea onartu zenetik egoera erabat aldatu da Euskal Herrian zein Europako testuinguruan. Lege horri esker lesbianek eta gay-ek izatezko bikotea osatzeko eskubidea lortu zuten. 2005eko ekainean Espainiako kongresuan Kode Zibila aldatu zen, ezkontzeko eskubidea lortuz. **Lesbiana eta gayen nabarmentasuna izugarri handitu da gizartean azken urteotan, diskriminazioa eta homofobia, ordea, ez da gutxitu.** Transexualen egoera oraindik zailtasunez beteta dago, aurrerapauso batzuk egon diren arren.

Euskal Herrian, diskriminazio mota batengatik euren bizi-tokitik kanpo joan diren lesbianen, gayen eta transexualen kopurua ezezaguna da, eta homofobia, lesbofobia eta transfobia gehienetan salatu gabe geratzen da.

- EAEko **Homofobia, Lesbofobia eta Transfobiaren aurkako behatokia** sortzea proposatuko du Eusko Legebiltzarrean, orientazio sexualarengatik gertatzen diren diskriminazio guztiak jaso ahal izateko eta homofobiari eta transfobiari aurre egiteko. Euskal Herriko LGTB mugimenduarekin batera egitea bultzatuko dugu. **Behatokiak egindako hausnarketan arabera, sentsibilizazio kanpainak egitea bultzatuko du Aralarrek.** Aralarren ustez LGTBen egoera sozio-ekonomikoari buruzko informazioa (pobrezia, langabezia, emakumeen egoera) jakitea ezinbestekoa da politika eraginkor bat egin ahal izateko.
- **Aniztasun sexualaren hezkuntza planak** proposatuko ditu Aralarrek, orientazio sexualak existitzen direla adierazteko asmoz, errespetua eta sexualitatea askatasunez bizitzeko eskubidea bultzatuko dituenak. *Bullying* homofoboaren aurkako politika egingo du Aralarrek. LGTB kolektiboa diskriminatzen duten hezkuntza-erakundeei subentzio publikorik ez ematearen aldekoa da **Aralar**.

- Transexualen kolektiboaren aldeko ekintzak garatuko ditu **Aralarrek**. **EAEn bizi diren transexualen errolda egitea proposatuko du Aralarrek. Sexu aukera prozesua EAEn egitea bultzatuko du Aralarrek Osakidetzaren bidez**, beste erkidegoetara bideratu gabe. **Aralarrek** transexualitatearen despsikiatrizazioaren aldeko politikak proposatuko ditu.
- **Ertzaintzan Homofobia eta transfobia salatzeko protokoloa** egingo du **Aralarrek**, Ertzaintzak kasu hauen aurrean zer egin jakin dezan, inpunitate homofoboarekin apurtuz.
- **Aralarrek** LGTB mugimenduak egiten duen ekarpenari eta aspalditik egindako borroka sozialari behar duen garrantzia eman nahi die, eta **ekitaldiak zein omenaldiak bultzatuko ditu**.
- Aralarrek etengabeko **elkarlana** egin nahi du LGTB taldeekin, euren aldarrikapenak legebiltzarrera eraman ahal izateko legealdi honetan.

4. Etxebizitza duin batean bizitzeko eskubide unibertsala

Herritarrek azken urte hauetan izan duten kezka nagusietako bat etxebizitza izan da. Prezioek bat-batean gora egin dute –soldatak baino asko ere gehiago igo dira–, eta horrek berekin ekarri du etxebizitza librearen merkatuan sartu direnak neurri handian zorpetzea. Egoera hori izanik, ordea, botere publikoek izan duten jokabidea, baita autonomietako botereena ere, uste izatekoaren azpitik egon da; izan ere, etxebizitza politika eraginkor batek helburu izan behar du herritar guztiek etxebizitza duin batean bizitzeko aukera izatea. Besterik ez.

Higiezinaren aktiboek ekonomia krisi sakonaren egoeran faktore bereziki erabakigarri gisa jokatu duten rola (batik bat, finantza sistema espainiarraren kasuan) agerian uzten du zein neurritan jarri behar diren zalantzan errotik lurzoruaren eta etxebizitzaren politikan nagusi izan diren ildoak, bakoitzak bere merkatuan prezioak igotzea bizkortu baitu.

Baita autonomia erkidegoaren esparruan ere, azken hamarkadak ezaugarri izan du lurzoruaren merkatuaren “desarautze” politika izeneko eta, hedaduraz, baita etxebizitzaren merkatuarena ere. Legegintzaldi honetan, Eusko Jaurlaritzak eta Legebiltzarrak merkatu horiek arautzeko eta kontrolatzeko gauzatu dituzten ekintzak ez dira nahikoak izan, argi eta garbi, batik bat, hainbat eta hainbat aldiz agindu duten etxebizitza legea ez delako inoiz iritsi. Hori dela eta, ezinbestekotzat jotzen dugu etxebizitza lege hori onartzea, eta lege horrek honako lau arlo hauek barne hartzea:

1. Etxebizitzarako eskubidearen izaera unibertsala.

Diru sarreren mugen mende egon gabe, baina, babes sistemaren onuradun diren biztanleek duten mailaren arabera, heldu ahal izateko lehentasunak eta baldintzak modu zabalean eta zorrotzean araututa dituela.

Eskubidea edukitzearen bermeak ez dio egin behar erreferentzia jabegoari, baizik eta alokairuan heldu ahal izateko bermea sustatu

behar da. Etxebizitza duin batean bizitzeko eskubidea dugu, ez horren jabe izatekoak.

Eskatzaileen erregistroan izena emateko aukera izatea, pertsona bat adinez nagusi den unetik bertatik.

Etxebizitzarako eskubidearen babes judiziala indarrean jartzea, legea indarrean jarri eta hurrengo egunetik aurrera, gehienez ere lau urteko epean eraginkortasun osoa duela (legegintzaldi bat).

Etxebizitza eskatzaileen zerrenda bateratzea, bai eta etxebizitza babestua emateko zerbitzua ere.

Kalifikatze etengabearen eta bigarren eskualdaketetan nahitaezko salmentaren erregimena orokortzea, babes publikoko etxebizitzaren multzorako.

2. Etxebizitza politikaren izaera osoa.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen azken xedapen laugarrena gauzatzea eta garatzea. Etxebizitzak alokatzea sustatzeari buruzkoa da azken xedapen hori, hain zuzen.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen hamaikagarren xedapen gehigarrian aurreikusita dagoen EAEko Hirigintza eta Etxebizitzarako Topagunea garatzea, EAEko administrazio publikoek parte hartuta.

Zerga politika zuzentzea, jabe izanda etxebizitzara heltzea saritzen baitu, alokairuan heltzearen aldean.

Euskal Etxebizitza Zerbitzuaren integrazio funtzionala eta organikoa.

Etxebizitza politika garatzean EAEko administrazio publiko guztiak erantzunkide izatea.

EAEko etxebizitza plan gidatzailea egitean eta gauzatzean EAEko administrazio publiko guztiak erantzunkide izatea.

3. Alokairuko etxebizitzaren kopuru publikoaren garrantzia. Gizarte kohesioa bultzatzea. Baliabide publikoek izan behar duten lehentasunezko helburuak alokairu babestua sustatzea izan behar du.

Tokiko erakundeek etxebizitza babestuak alokatzeko berariazko programa batez hornitzea.

Alokairu babestuaren kalifikatzeak lehentasuna izatea, babes publikoko erregimenen baten pean dauden etxebizitzaren artean, alokairuko etxebizitzaren kopuru publikoak hornitzeko dauden helburuak guztiz bete arte.

Alokairu babestuko etxebizitzetan kupoak ezartzea (etxebizitza babestu guztien %50), udaletako hirigintza plangintzetan.

Alokairu babestuko errenten kalkulua progresiboa izatea. Errentaren kalkuluan oinarritzeko errentaren baliokide diren diru sarreren zenbatekoa kanpo gelditzea.

Alokairuko etxebizitza babestuko eskaintza nahikoa sortu ahal izateko, esku-hartze publiko koordinatua bultzatzea.

Alokairuko etxebizitzaren sustapenerako laguntza publikoak handitzea, bai sustapen publikorako, bai eta pribaturako ere.

Alokairuaren alde egiteko, zerga neurriak indartzea hiru lurralde historikoetako foru aldundiek.

Hornidurazko lur sailetan aldi baterako ostatalekuak sortzeko ekimenei bultzada ematea.

4. Erabiltzen ez diren etxebizitzaren tratamendua.

Gutxiegi erabilia dauden etxebizitzari zerga tratamendu progresiboa egitea (bigarren etxebizitzak barne).

Etxebizitza hutsari aplikatu ahal zaion sari edo zerga ez fiskala ezartzea, lurraldearen okupazioaren iraunkortasunaren ikuspegitik justifikatua.

Ez erabiltzearen arrazoiengatik etxebizitzaren merkatuan hirigintza esku-hartzerako lehentasunezko alorrak arautzea.

Beharrezkoa izateaz gain, hori guztia premiazkoa da: orain arte egin den etxebizitza politika zuzendu behar da, interes tasa baxuek higiezinaren burbuila handitu baitzuten eskaera soziologikoaren hedatze abagune batean (biztanleriaren piramidearen maila zabalenak 30 urte bete zituen 2006. urtean). Etxebizitzaren prezioan lurzorua balioak geroz eta eragin handiagoa izatean funtsatuta, hedatze desintegrazio politikak honen oinarriak honako hauek izan dira:

- Lurralde eta hirigintza antolamendurako finkatu diren irizpideek mesedetu egin dute garapenerako egiazko premiei erantzuteko beharrezkoa dena baino askoz ere lurzoru gehiago sailkatzea, hirigintzari dagokionez, horiek eraldatu ahal izateko.
- Foru administrazioek zerga politika manipulatu dute; etxebizitzara jabe gisa heldu ahal izatea mesedetzeari indarra jartzen duen politika, hain zuzen ere, eta hartara, alokairuari kalte egin diote, eta lurzorua espekulazio balioak azkar gaitzatea bermatu dute.

- Autonomia administrazioak ohartuki murriztu du babestutako etxebizitzaren sustapen publikoa egitea. Hain zuzen ere, merkatuetan eragin erabakigarri izateko aukerarik ematen ez duen mailara murriztu du.
- Lurzoruaren udal ondareak arautzeko duen betebeharra praktikan jarri gabe jarraitzen du tokiko administrazioak, eta modu arruntean egiten du, gainera.
- Lurzoruaren eta etxebizitzaren balioen kontrola koordinatzera edo sendotzera bideratutako administrazio integrazioko edozein ildo atzeratu, baztertu edo blokeatu ere egin da.

Eusko Jaurlaritzak eta Legebiltzarrak legegintzaldi honetan merkatu horiek arautzeko eta kontrolatzeko gauzatu dituzten ekintzak ez dira nahikoak izan, argi eta garbi, aurrerapen batzuk egin badituzte ere.

- Hirigintzako legedia (Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legea) ez da arauzko moduan garatu (oraindik ez dira kaleratu erregelamendu sistematikoak) eta ez zaio egokitu Estatuko oinarrizko legedi berriari (Lurzoruaren 8/2007 Legea). Honenbestez, aplikatzeko izan dituen aukerak modu nabarmenean murriztu dira.
- Lurralde antolamenduaren garapenak (lurraldeko zati-planak) oinarri izaten jarraitu du lurzoruaren egiazko premiak biderkatzeko (hirukoizteko) irizpide ezin eutsizkoa, indarrean dauden lurralde antolamenduko zuzentzaruetan zehaztuta dagoen moduan.
- Udal legea enegarren aldiz blokeatzeak, aurrekontuen diru sarrerak murrizteko egungo testuinguruan, udal administrazioaren bigarren mailako rola nabarmentzeko aukera ematen du. Ondorioz, lurzoruaren eta etxebizitzaren merkatuak arautzeko duen legezko betebeharra gauzatzean edozein aurrerapauso ematea oztopatzen dio.
- Etxebizitza babestuaren sustapen publikoak ez du lehenetsuneko helburu izan alokairuko etxebizitza babestuaren kopuru publiko batez hornitzea. Hain zuzen ere, handitze

soziologiko handieneko fase historikoan, etxebizitzaren eskaerari erantzun ahal izateko nahikoa tamaina duen etxebizitza babestuko kopuru publikoa behar da.

- Lurzoruaren eta etxebizitzaren administrazio ekintzan integrazioa bultzatzeko legezko helburuetan ez da inolako aurrerapenik izan (Etxebizitza alokatzea sustatzeko politiken eragin bateratua; Hirigintzako eta Etxebizitzarako Topagunea; Euskal Etxebizitza Zerbitzu Publikoa).
- Azkenik, etxebizitza lege bat onartzeko nabarmendutako helburuak porrot egitea. Etxebizitza lege horrek bat etorri behar du herritar guztien benetako premiekin eta, batik bat, gizartearen sektore behartsuekin. Eta, gainera, etxebizitzara heldu ahal izatea administrazio publikoek erantzun beharreko eta bide judizialek eska daitekeen eskubide subjektibo moduan arautu behar du.

Premiaz esku hartu behar dela eta, hasieran planteatu diren lau esparru horiez gain, **Aralarrek** behin eta berriz eskatu duen etxebizitza politika osoak aipatutako egiturazko gabeziak erremediatzen ditu, honako programa ildo hauetan:

- Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legearen arauzko garapena egitea eta berehala egokitzea Estatuko oinarrizko legedi berriari (8/2007). Egokitze hori ez da mugatuko bateragarritasun formaleko kontuetara, baizik eta modu serioan helduko dio gainbalioak sortzeko espekulazio aukerak ezabatzeko funtsezko arazoari. Izan ere, lurzorua sustatzea horietan oinarritzen aritu baita. Horrek berekin dakar errotik erreformatzea lurzorua sailkatzeko teknika eta lurzoru urbanizagarria legez ezaugarritzeko indarrean dagoen modua.
- Egokitze horrek barne hartzea etxebizitzaren gaineko tokiko planak eta horien ondorio diren alokairu babestuko kupoak udalaren hirigintza planeamenduari lotzea.
- Indarrean dauden lurralde antolamenduko zuzentarauak sakon berrikustea, garapen iraunkorraren printzipioak sartuta eta,

benetako premiei dagokienez, lurzoruaren eskaintza biderkatzeko faktorea ezabatuta.

- Udal legean aurrekontu berme nahikoak arautzea, lurzoruaren gaitan udalen autonomia bultzatu ahal izateko.
- Herri Kontuen Euskal Epaitegiak kontrol zorrotza eta zehatza egitea lurzoruaren udal ondareak gauzatzeko eta dinamizatzeko gaitan.
- Etxebizitza plan gidatzailea berrikustea, legegintzaldi baten epean, alokairuko etxebizitza ondare publiko batez hornitzea bermatzeko. Hartara, benetan dauden premiei erantzungo zaie, eta kontsumoa eta ekonomia erreala estutzen dituen hipoteka presioari lasaialdia emango zaio. Horrek esan nahi du sustapen publikoko baliabide gehienak eskaini behar zaizkiola etxebizitzara heldu ahal izateko modu horri; hain zuzen ere, urtean 10.000 etxebizitza gizarte alokairuan jartzeko erritmoan.
- Etxebizitza politika osoa sustatzeko legezko tresnak garatzea, gai honetan administrazio desberdinek egiten dituzten ekintzak koordinatu eta bermatu ahal izateko.
- Okupazioa despenalizatzea.

5. Ingurumen politikak

Ingurumena

Sarrera

Egun behin eta berriz erabiltzen den garapen iraunkorraren kontzeptuak (bere garaian, garapen iraunkorraren honako definizio hau eman zen: egungo belaunaldien premiak askiesteko aukera ematen duen garapena, etorkizuneko belaunaldien premiak askiestea behartu gabe) berekin dakar nahitaez aintzat hartu behar izatea ingurumenaren aldagaia beste politika batzuk ezartzeko. Paperean idatzita eta politikari askoren hitzetan hain ondo gelditzen den kontzeptu hori, ordea, utopia hutsa da Euskal Autonomia Erkidegoan gauzatzen den garapen ereduan. Izan ere, sistema kapitalista neoliberal baten barnean gaude, eta, hartara, helburu nagusia izan da epe laburrean etekin ekonomikoa ateratzea, eta horrek, ondorioz, iraunkortasunaren egiazko kontzeptua galtzea eragin du. Hain zuzen ere, “adabaki berdeak” jarri dituzte administrazio publiko guztiek.

Zeharkakotasunak ingurumen politika eraginkor baten gako izan behar duen arren, ez da existitu ere egin, besteak beste, energia, garraio, lurralde antolamendu, industria eta abarren politikekin lotutako gaietan. Politika horiei aurpegia jartzeko adibide ugari dugu, esate baterako, zentral termikoen aldeko apustua egitea, abiadura handiko trenak egin nahi izatea, hondakinak errausten jarraitzea, ingurumenari dagokionez, sentiberak diren zonaldeetan hirigintza garapenak egitea, natur parkeen barnean harrobi ustiaketak egitea, eta abar eta abar, zoritxarrez. Gizarteak kontzientzia handiagoa hartu duela eta, horrek eraginda nagusiki, egia da zenbait pauso eman direla zeharkakotasun hori lortzeko, baina garapen sistema planteatu gabe, eta hori alderdi gakoa da Aralarren ustez. Ez da planteatu errotik aldatzea, garapen eredu aldatzea, egiazki eredu iraunkorra den eredu baten aurrean egoteko: ekosozialismoa. Gainerako guztia “adabaki berdeak” jartzea da.

Lege esparru arautzaileak duen garrantzia

Funtsezkoa da ingurumenaren gainean jarduteko esparru desberdinak erregulatuko dituen arau multzo batez hornitzea. Hain zuzen ere, arautze horrek bat etorri behar du egungo garaiekin, eta European gai horren gainean egiten diren aldaketak hartu behar ditu. Egungo garapen ereduak natura baliabideei etengabe egiten dien jazarpenari aurre egiteko, ingurumen zeharkakotasuna ezarri eta iraunkorra den ereduaren benetan lortuko duten arauak izango dira.

Hori dela eta, eskandaluzkoa da, hartzen duten gaia dela eta, hain garrantzitsuak diren bi arau –Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko 3/1998 Lege Orokorra eta Euskal Herriko Natura Babesteko 16/1994 Legea– guztiz garaiz kanpo egotea eta bai erkidegoko bai eta Europako errealitate normatiboak gaindituak egotea. Egia da Estatuaren eta EAEren arteko eskuduntza banaketak azken horri ematen diola garapen eskuduntza bat eta Estatuko legediaren babes gehigarria. Baina, eskuduntza hori dela eta, Eusko Jaurlaritza egiten ari den kudeaketa, gutxienez, urria da. Honenbestez, esate baterako, jarduera sailkatuen eta ingurumen ebaluazioaren gaiak ondo arautzeak ingurumen politikak zeharkakotasun izaera horretaz hornituko lituzke, hainbat arlotan abian jarri nahi diren proiektu, plan edo programekin lotuta.

Proposamenak

- 3/1998 Legea berrikustea eta sektorean dauden gai guztietan errealitate normatibora egokitzea, batik bat, gai garrantzitsuetan, esate baterako, jarduera sailkatuen eta ingurumen eraginaren ebaluazioaren gaietan. Hartara, komenigarria litzateke planteatutako gaietan legea garatzea garapen arau baten bidez. Arau horrek administrazio baimenen prozedura bateratuko luke, ingurumen baimen oso baten ereduaren arabera eta ingurumen eraginaren ebaluazioa barne hartuta.
- Ingurumen eragineko ebaluazio bateratuaren eredu zaharkitua gainditzea eta 2001/42 Zuzentarauak abian jarritako ingurumen ebaluazio estrategikoari egokitzea.

- Natura ondarea eta bioaniztasuna babesteko lege berri bat promulgatzea, Euskal Herriko natura babesteko lege zaharkitua gaindituta.

Atmosfera kutsatzea

Airearen kalitatearen gaian ez dira betetzen EBren eskakizunak: urtetik urtera gainditzen dituzte herri ugarian, airearen kalitateari dagokionez, legez onartuta dauden balio handienak. Arazo handiena partikula eseki txikiek dakarte, herritarren osasunari larriki egin baitiezaikete kalte: arnasa hartzeko arazoak, arazo kardiobaskularrak eta heriotza bera ere eragin dezakete. Partikula horiek nagusiki industriak eta errepideko garraioak sortzen dituzte.

Gainditze horiez jabetuta, Eusko Jaurlaritzak ekintza planak egin zituen legediak exijitutakoaren ondoren, baina argi gelditu da ez dela nahikoa. Kasu gehienetan ez dute hartzen dagokien eskualde esparrua edo zonaldea, eta, beraz, exijitutako mugak gainditzen jarraitzen dute.

Airearen kalitatea dela eta bete gabe utzi direnez gain, berotegi efektuko gasak aineratzeagatik, bereziki CO², **klima berotzeari** dagokion arazo globala ere hor dago. Izan ere, alde horretatik ere EAEn oso urrun gaude Kyotoko Protokoloa betetzeko ezarrita dauden balioetatik. Hartara, 1990. urteko erreferentziazko balioak aintzat hartuta (Kyotoko Protokoloaren arabera lortu beharrekoak), Estatu espainiarrari onartu zitzaion balioa, +%15, gaindika pasatu da; hain zuzen ere, 2007ko parametroak +%52 izan dira Estatu espainiarrean, eta +%45, EAEn. EAEkoak Estatukoak baino hobeak badira ere, Kyoton hitzartutakotik oso urrun daude. Alor hau aztertu eta proposamenak egiteko orduan, oso interesgarria da ohartaraztea berotegi efektuko gasen igorpenen %75 energiaren (%34), garraioen (%22) eta industriaren (%19) alorretatik datozela. Hortaz, alor horiek nabarmendu behar dira. Hori dela eta, atal honetan proposatu behar ditugun neurriak alor horietara bideratuta daude, eta ildo horretatik Klima Aldaketaren Aurka Borrokatzeko Euskal Planaren balioespen kritikoa egin behar dugu, ziklo bateratuko zentral termikoak

“konponbidetzat” jotzen baititu, nahiz eta atmosferara CO² aireratzeko bide nagusietako bat diren.

Azkenik, atmosfera kutsatzeko beste modu batzuen gaineko proposamenak ere egin behar ditugu, azkenaldian geroz eta garrantzi handiagoa hartzen ari baitira, hala nola kutsadura akustikoa, argiarena eta, batez ere, kutsatzeko modu berriak, esate baterako, igorpen elektromagnetikoak. Igorpen elektromagnetikoek pertsoneri eta ingurumenari egiten dizkieten kalteak direla eta egun dagoen eztabaidan sartu gabe, gure iritziz, eta aurrez neurriak hartzeko printzipioari jarraituta (pertsonentzat edo ingurumenerako arriskua egon daitekeelako zalantza funtsatuaren aurrean, gaia arautu egin behar da), arautu egin behar dira.

Proposamenak

Airearen kalitatea

- Airearen kalitateko ekintza planak gauzatzeko, garatzeko eta horiei jarraipena egiteko esparrua berrikustea, EAE osoko 2010eko balio objektiboak lortzeko asmoz. Ekintza plan horiek eskualde guztietan gauzatzea, eta ez bakarrik zaintza sareak erreferentziazko balioak gainditu direla adierazten duen eskualde horietan.
- Ingurumen arloko Baimen Osatuaren mende dauden jardueretarako ezarrita dauden igorpen balioak urtero jakitera ematea, banaka, eta bai legea betetzen ez den kasuetan hartu beharreko neurriak ere.
- Ingurumen zaintzarako sareko estazioen kokapena berrikustea eta bai neurtzen dituzten kutsatzaileak ere, partikula zatiki txikienak ere hartuta, PM_{2,5}.
- Mugikortasun iraunkorrerako lege bat egitea, gutxienez, honako atal hauek arautuko dituena:

a) Hirigintza eta ekonomia garapeneko politikak eta mugikortasun politikak bateratzea, ohiko lekualdatzeak minimizatu eta lantokietara, bizilekuetara eta kultura, gizarte, osasun,

prestakuntza edo aisialdi intereseko guneetara iritsi ahal izatea guztiz bermatu ahal izateko, ingurumenari ahalik eta eragin txikiena eginda eta ahal den modurik seguruenean.

b) Mugikortasunaren gaineko zerga eta tarifa zuzenen sistema modu progresiboan egokitzea honako hauek hartuko dituen eskema bati: eragin onak edo txarrak hartzen dituen eskema, sistemen ekoizpen eta erabilera gastuei dagokienez, garraio publikoa eta pribatua parekatzen dituen, hiriguneetara modu ordenatuan heldu ahal izatea arautzen duena, eta ibilgailu pribatuaren erabilera ez oso arrazoizkoa egiteko asmoa kentzen duena.

c) Garraio publikoko eta taldeko sistemei eta eragin txikiko gainerako sistemei lehentasuna emanda egitea mugikortasunaren plangintza, esate baterako, oinez edo bizikletaz egindako lekualdatzeei.

d) Pertsonak eta salgaien fluxuek dituzten beharrei erantzutea, gaitasun, kalitate, segurtasun eta iraunkortasun baldintza egokietan.

e) Ahalmen urritasuna duten pertsonak dituzten mugikortasun baldintzei modu egokian erantzutea.

f) Koordinazio mekanismoak ezartzea, taldeko garraioak ahalik eta gehiena aprobetxatzeko, direla garraio publikoak, direla eskola edo enpresa garraioak.

g) Garraiobide ekologikoenak sustatzea, batez ere, trakzio mekanikoa ez dutenak, hala nola oinez edo bizikletaz ibiltzea, batik bat, hirian. Eta gainera, hain ekologikoak ez diren garraiobideei sustagarria kentzea.

h) Ibilgailu motordun pribatuaren erabilera arrazoizkoagoa mesedetzen duten sistema berritzaileak bultzatzea, esate baterako, erabiltzaile anitzeko autoa edo auto partekatua.

i) Metropoli eremuetan garraio publikoaren tarifa integratioko formulak abian jartzea eta garraio publikoa erabiltzea sustatuko duten finantza neurriak bultzatzea.

j) Talde garraioko sistemak industriaguneetan eta jarduera handiko guneetan dagoen eskaerari egokitzea.

k) Hiriguneetan pilaketak gertatzea gutxitzea, garraio publikoaren erabilera bultzatzeko neurrien bidez eta bai hiriguneetan ibilgailu pribatua erabiltzeko asmoa kentzeko jarduketan bidez, horietan airearen kalitatea hobetzeko helburuarekin.

l) Errepideetako segurtasuna hobetzen eta istripu-tasa murrizten lagunduko duten jarduketak sustatzea.

m) Tren eta autobus geltokietan, autobusaren geltoki nagusietan eta hirietarako sarbideetan, beribilak eta motozikletak uzteko aparkaleku gomendatuak eraikitzea bultzatzea, garraio intermodala mesedetzeko. Edukiera nahikoa izan beharko dute bi kasuetan erabiltzaileen eskaerari erantzuteko, eta, baldin badute, duen helburuari egokia zaion prezioa izango dute. Era berean, tren eta autobus geltokietan bizikletak uzteko aparkaleku seguruak eta egokiak egitea bultzatzea.

n) Salgaien garraioaren garapen harmoniatsu eta iraunkorrerako bidea emango duten politikak zehaztean aurrera egitea, horren eskaerari erantzunik eman gabe utzi gabe, garraio horren eragina minimizatzen asmoz; batez ere, beste garraio bide batzuekin, esate baterako, burdinbideetako eta itsasoko garraio bideekin, intermodalitatea bultzatuta.

o) Mugikortasun iraunkorraren gaian, ingurumen heziketako politika bizia bultzatzea.

p) Eskualdeen arteko eta beste azpiegitura batzuetara heltzeko garraibide gisa (aireportuak, industrialdeak...) trenari ematea lehenetsuna, eta dauden sareak, erdibitzeak, eta errepideen, geltokien eta geralekuen mantentze lanak hobetzea.

q) Lege hori indarrean jarri arte, garraio azpiegitura berriak diseinatzea eta gauzatzea atzeratzea.

Klima aldaketa

- Epe ertainerako eta luzerako energiarekin lotutako plangintza onartzea. Energia aurrezteko, horren erabilera eraginkorra egiteko eta energia berriztagarriak ekoizteko helburu jakinak ezarri beharko ditu; nahitaez bete beharreko helburuak, hain zuzen. Klima aldaketaren aurka borrokatzeko EAEn dagoen plana laburra da (4 urte), nahiz eta ekoizpen guztia berriztagarria izan dadin lortzeko egin beharreko plangintzak eskatzen duen epeak luzeagoa izatea (Greenpeaceren “Renovables 100%, Un sistema energético renovable para la España peninsular, y su viabilidad económica” Azterketa irakur dezatela eszeptikoek).
- Energia berriztagarriak ekoiztea eta horren aplikazioak aztertzeko I+G-ko proiektuak diruz laguntzea, batez ere, biomasarekin, energia geotermikoarekin, marea-energiarekin, eguzki-energia termikoarekin eta eguzki-energia fotovoltaikoarekin lotutakoak. Bestalde, erregai fosilak eta teknologia horien gaineko I+G-ko proiektuak, zuzen edo zeharka, diruz laguntzen amaitzea.
- Ziklo bateratuko zentral termiko gehiago eraikitzea atzeratzea, aurreneko puntuan adierazitako energia plana egin arte.
- Energia nuklearraren aurka dago guztiz Aralar, eta, hori dela eta, zentral mota horiek ixtea aldarrikatuko du. Hasteko, Garoñako zentral nuklearra ixteko eskatuko du.

- Aurreko idazpuruan adierazitako mugikortasun iraunkorrerako legea.
- Energia berriztagarriak ekoiztea eta kontsumitzea saritu ahal izateko erabilgarri dauden zerga tresnak erabiltzea.
- Klima aldaketan eragina gutxitzeko asmoarekin, beren ekoizpen prozesuak egokitzen dituzten enpresak bultzatzea eta laguntzea, honako hauen bidez: teknologia garbiagoetara aldatzea, energia eta ura kontsumitzea murriztea, ingurumen kudeaketako sistema egiaztatuak ezartzea eta abar.
- Energia berriztagarrien gaian teknologia-transferentzia erraztea herrialde behartsuei, bidezkoak diren baldintzetan, zor ekologikoa ordaintzeko asmoarekin.
- Herritarrak gai honetan sentiberatzeko eta ingurumen heziketa emateko kanpainak bultzatzea, bakoitzak bere ekintza esparruan igorpenak gutxitzen lagundu dezan.

Atmosfera kutsatzearen gaineko beste neurri batzuk

- Argi kutsaduraren legea.
- Igorpen elektromagnetikoak dituzten azpiegiturak kokatzeko legea. Aurrea hartzeko printzipioan oinarrituta idaztea, bai pertsonak eta bai ingurumena ere babeste aldera.
- Hirietako mapa erradioelektrikoak diruz laguntzea/sustatzea.
- 20.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan soinu mapak egitea. Gero, horien datuetan oinarrituta, soinu horiek murrizteko helburuak ezartzea, eta herritarrengan soinuen eragina minimizatzea xede duten hirigintza neurriak hartzea.

Hondakinak

Hondakinak sortzeko dugun joera geroz eta handiagoa ingurumen arazo larrienetako bat ari da bihurtzen herrialde industrializatuetan. Orain arte aurrekaririk izan ez duen eraso ari zaio egiten ingurumenari eta osasun publikoari hondakinak handitzeko joera sistematikoa, bai kopurua handitzekoa, bai eta arriskugarritasuna handitzekoa ere. Eta, gainera, ez gara bilatzen ari konponbide egokiak. Gai honetan jarraitu beharreko politiken xede nagusiak

izan behar du estatu mailan legez ezarritako hierarkia printzipioa ezartzea; aurrea hartzea, berrerabiltzea, birziklatzea, balorizazio energetikoa bultzatzea eta ezabatzea. Baina egiazko moduan egin behar da, interpretazio interesaturik egin gabe. Izan ere, EAEk duen gabezia handiena da garapenerako esparru arau-mailerik ez izatea, hierarkia printzipio horretan oinarrituta, hondakin guztietarako politikak bateratzeko. Beste alde batetik, hiri hondakinak direla eta, hiru lurraldeetako hiri hondakinen plan osoak aintzat hartuta, honako gezur hauek ari dira saltzen: dena oso ondo gelditzen da paperean idatzita, baina, azken batean, egiatan erraustearen alde egiten ari dira, erraustea balorizazio energetikotzat hartuta. Izan ere, Europar ezarri dute isurtzetzat hartu behar dela, eta, beraz, hierarkiaren azken mailan jarri behar dela. Hartara, komenigarria dirudi gogora ekartzea EBko Justizia Epaitegiak, C-458/00 Gaia dela eta, 2003. urtean ateratako ondorioak. Haren arabera, hondakinak errauste plantetan erretzea, baita energia berreskuratzen dutenetan ere, hondakinak ezabatzeko modutzat hartu behar da eta, hortaz, teknologia hori isurtzearekin parekatu behar da Europako hierarkian.

“... errausteko eragiketa jakin bat ezabatzea da, hori bada horren xede nagusia, nahiz eta energia berreskuratze intzidental bat egon...”.

Aintzat hartzen badugu hiri hondakinen artean zati handiena, %35,58 hain zuzen, konpost bihur daitekeen materia organikoa dela –papera eta kartoia, eta plastikoa baino gehiago, %28 eta %11, hurrenez hurren (EAEko datuak dira, 2005ekoak)–, guztiz esplikaziorik gabekoa da egun ez egotea hiri hondakinen gaikako bilketaren eta konpostatzearen aldeko apustu garbirik.

Proposamenak

- Hondakinen euskal legea promulgatzea. Lege horrek honako printzipio edo arau nagusi hauek izango ditu:
 - Hondakinak murriztea izango da helburu nagusia, zerga neurri positiboak eta zigor neurriak baliatuta hondakinak ekoizten ditzutenentzat. Hain zuzen, kutsatzen duenak ordaindu behar du printzipioan funtsatuko dira neurri horiek.

- Tamaina handiko saltokiekin eta txikiekin borondatezko hitzarmenak egitea, erabiltzen dituzten bilgarrien eta ontzien kopurua murrizteko, salgai jartzen dituzten produktuen “ekoizpen garbia” bultzatzeko eta itzul daitezkeen ontziak ere saltzeko konpromisoa har dezaten, pixkana, biltegiratzeko eta itzultzeko sistemak ezarrita. Merkaturatzen dituzten ontzi guztiak bere gain hartuko balituzte, erabili eta botatzekoak diren ontzien erabilera neurri handi batean gutxitzen lagunduko lukete.
- Hondakinen gaikako bilketa bultzatzea eta ezartzea baita hiri hondakinen multzo organikoan ere, balorizazio energetikoa bultzatze aldera (biogasa) eta konpost bihurtzearen bidez berriro erabiltze aldera, erraustea alde batera utzita. Gero, gaikako bilketak udal zergen arautegiak aplikatzeko ematen dituen aukerak erabiltzea, kutsatzen duenak ordaintzen du printzipioan oinarri hartuta.
- Udalerri edo eskualde mailako hondakin kudeaketari lehentasuna ematea, maila horretarako planak eginda eta azpiegiturak kokatuta. Alde batera utzirik, lurralde historikoaren mailan koordinatze helburua izango duen plangintza bat izatea.
- Produktu birziklatuak eta birzikla daitezkeenak erabiltzea bultzatzea eta sendotzea; izan ere, ez baitago merkatu indartsurik horietarako eta, merkatuko baldintza ekonomiko berberetan, zailtasunak baitituzte lehen belaunaldiko lehengai naturalen bidez ekoiztako antzeko beste produktu batzuekin lehian aritzeko. Alderdi horrek garrantzia du erosketan publikoetan.
- Ekoizpen garbira, birziklatzera eta hondakinak balorizatzen bideratuta dauden I+G-ko proiektuak diruz laguntzea.

Natura: Bioaniztasunaren, natura baliabideen eta eremu babestuen alde egitea.

Alor honetan dagoen arazo nagusia da egungo garapen sistema eta natura babestea aurkako norabideetan dabilzala, eta, zoritxarrez, kasu gehienetan,

ingurumenaren eta, hedaduraz, bioaniztasunaren kalterako gertatzen da hori. Lurralde antolamenduko zuzentarauak promulgatu zirenetik, 2000. urte aldera, egun arte azpiegituren esparrua ezartzen zuten sektore planak garatzen joan dira, lurraldeko trenbide-plan arlokakoa, errepideetakoa, jarduera ekonomikoetakoa... Beste batzuk direla eta, ordea, bederatzi urte geroago haien berri izan gabe jarraitzen dugu, nahiz eta lurralde antolamenduko zuzentaruetan bertan estrategikotzat jotzen ziren garapen iraunkorra arautzeko eta, era berean, natura balia bideak kontsumitzen dituzten eta, ondorioz, naturguneak hondatzen dituzten azpiegituren garapenaren kontrapisu izan behar zuten. Esate baterako, horrelakoak dira harrobi bihur daitezkeen zonak eta nekazaritzakoak eta basogintzakoak.

Gai honen inguruan EAEn dagoen gabezia handienetako bat da 1994. urteko araudi bat izatea esku artean. Izan ere, ez du barne hartzen Natura 2000 Sarea, hau da, ez Hegaztien Babesgune Berezitzat jotzea (HBB), ez Batasunaren Intereseko Lekuak (BIL), ez eta horien tratamendu juridikoa eta babesekoa. Honenbestez, ezin dugu esan gure autonomia erkidegoan naturguneen sare koherentea eta erlazionatua dagoenik, oinarri hartuta horiek zaintzea.

Proposamenak

- Naturguneak eta bioaniztasuna zaintzeko lege berri bat berrikustea eta promulgatzea; hain zuzen, Natura 2000 Sarea barne hartzen duena. Eremu horiek babesteko eta kudeatzeko tresnak ezarri behar dira, Zainketa Bereziko Eremutzat hartzea lortu ahal izateko. Horretarako, besteak beste, jarduera suntsitzaileak berariaz debekatzen duen legedia onartu behar da, hala nola eremu babestuen barnean harrobiak jartzea.
- Naturgune babestuen arteko lotura lortzeko helburuarekin, korridore ekologikoak ezartzea eta horien babes erregimena zehaztea.
- Abian jartzea naturgune babestuen katalogoa, eta horren arabera, araudiaren arabera arau bat garatzea, toki horien helburuei zuzen edo zeharka eragiten ahal dieten planen edo proiektuen ingurumen ebaluazioa finkatzeko (6.3 art., Habitat Zuzentaraia).

- Paisaia berezien katalogoa martxan jartzea, paisaia horiek aukeratzeko irizpideak eta babesteko helburuak ezarrita.
- Mehatxatuta dauden espezieen katalogoa berritzea eta osatzea, eta abian jartzea espezie mehatxatu horien kudeaketa planak.
- Landare eta animalia espezie inbaditzaileak katalogatzea, eta aztertzea zenbateraino dauden hedatuta. Gero, horiek errotik kentzeko premiazko neurriak erabakiko dira.
- Bertako zuhaitz, zuhaixka eta belar landareen espezieak ekoizteko eta ugaltzeko ikerketak bultzatzea.
- Lurraldeko arlo-plana idaztea eta promulgatzea, erauzpen jardueren alorrean, eskaerak aztertuta eta araututa. Ingurumenean eragin txikiena duten baliabideak eta tokiak lehenetsiko dira.
- Lurraldeko arlo-plana idaztea eta promulgatzea, nekazaritzako eta basogintzako alorretan. Agrobiologiaren aldetik balio handiko lur sailak erabiltzea saihestuko da bestelako azpiegiturak edo jarduera ekonomikoak garatzeko, eta nekazaritzako lur sailen gune bat ezarriko.

Uraren zikloa

Azken legegintzaldi honetan Uraren Legea promulgatu dutela aurkitu dugu. Baina, gure ustez, lege hori osatugabe dago eta, batez ere, Europan dagoen legedia aintzat hartuta, ingurunea ez du hainbeste babesten, nahiz eta Europakoa erreferentziatzen hartu behar den. Hortaz, gure proposamen nagusiak lege hori aldatzera eta protekzionistagoak diren neurri batzuk sartzera bideratuta daude. Ez ditugu ahaztu behar, ordea, legean zuzenean araututa ez dauden beste alderdi batzuk eta, hirien hazkundera dela eta, ibaietatik gertu dauden lur sailak iragazgaitz bihurtzearekin zerikusia dutenak.

Proposamenak

- Estatuko gobernuari eskatzea erkidegoen arteko arro hidrologikoen kudeaketa, baldin eta ibilbide gehiena EAEko lurraldean badute (%80). Hartara, arroekin lotutako erakunde mistoak edo bitarikoak sortuko dira, arro horiek hartzen dituzten gainerako autonomia erkidegoekin.
- Ibaien ertzak lehengoratzeko planak egitea, iragazkor bihurtze aldera, ahal den guztietan erabilerak tokiz aldatzeko proposamenak eginda.

- Uraren 1/2006 Legea aldatzea, honako alderdi hauek sartuta:
 - **Ingurumenaren kontrola.** Uraren inguruneari dagozkion babes neurriak eta ekologia egoera onean eustekoak areagotzea, Uraren Abiaturuko Europako Zuzentzaruan ageri diren moduan. Hain zuzen, aurre egin nahi zaio legeak eskaintzen duen lehentasunezko norabide hidraulikoari eta uraren erabileraren kudeaketari, honako hauek bermatzeko helburuarekin:
 - Kutsadura kontrolatzea, isurketak, igorpenak eta uretan gai arriskutsuen galera murriztuta.
 - Ur emari ekologikoak arautzea, eta ibaietako ekosistemaren eraketa, egoera kuantitatiboa eta egitura babestea.
 - Ingurumenaren aurkako atentatuak direla eta, erresalbuak neurriak edo aurrea hartzeko ekintzak gailentzea, gehienbat, iturrian bertan.
 - **Herritarren parte-hartzea.** Herritarrek parte hartu ahal izateko bideak zehaztea, honako hauek araututa:
 - Urarekin eta horren jarduerak sustatzearekin lotuta dauden erakundeak eta elkarteak sustatzea.
 - Uraren Euskal Agentziako gobernu erakundeetan uraren erabiltzaile diren komunitateek parte hartzea.
 - Interesdun diren aldean parte-hartze aktiboa bultzatzeko formulak proposatzea, bereziki, plangintza hidrologikoa egitea, berrikustea eta eguneratzea.
 - **Plangintza hidrologikoa.** Plangintza hidrologikoko figurak modu xehean zehaztea, honako hauek barne hartuta:
 - Babeserako oinarrizko neurriak; Uraren Abiaturuko Europako Zuzentzaruan gutxieneko baldintzatzen jota daudenak, hain zuzen.
 - Gainazaleko uren egoerari jarraipena egiteko programak arautzea.

- Uraren azterketa ekonomiko oso eta sakona egitea, kudeaketa zerbitzuen kostuak berreskuratzea lortzeko asmoarekin.
 - Lan hidraulikoen ekonomia, teknika, gizarte eta ingurumen bideragarritasuna justifikatzen duten txosten egokiak egitea.
- **Uraren erabileraren araudia.** Hornitzeko, sanotzeko, arazteko eta ureztatzeko arauen ezaugarriak zehaztea, honako hauek eginda:
- Indarrean dagoen teknika-osasun araudiak ura edateko ona izan dadin exijitzen duen kalitateak dituen salbuespenak ezabatzea.
 - Bereizteko sareak guztiz ezartzea, hornikuntzen kudeaketa eraginkorra bermatze aldera.
 - Zerga ekologikoaren zenbait salbuespen ezabatzea, bai eta hainbat hornikuntza pribaturi ematen zaizkion doako diru laguntza ezin zurituzkoak ere.
 - Erabileren arrazoizko lehentasun ordena ezartzea; esate baterako, nekazaritzako erabilerak bereizten ez dituen, industria erabileren aldean.

Garraio iraunkorrerako eredia

AHT, Super Sur autobidea eta Pasaiako super portua... Horiei guztiei aurre egiteko, garraio estrategia berria eta lurraldea giltzatzekoa zehaztea, honako irizpide hauetan oinarrituta:

- **Garraioaren norabide politiko berria:**
 - Egungo sarearen etengabeko hobekuntzarako konpromisoen alde egitea lehenetsiko duena, natura korridoreetan, azpiegitura erraldoien eskaintza sinplearen aurrean. Izan ere, konponbide kutun gisa

aurkezten badituzte ere, ez dute balio dauden arazo askotarikoei heldu ahal izateko.

- Sistema bakoitzerako egokia den lastertasuna duen garraio publikoa zehaztuko duena, lastertasun handiena lortzeko helburu generikoari aurre eginez.
 - Multifuntzionaltasunaren alde egingo duena, garraiobideak espezializatzearen aurrean, garraioaren konplexutasunari heltzeko norabide malgu gisa.
 - Oinezkoen mugikortasunak duen izaera nagusia onartzen duena eta bizikletaren erabilera bultzatuko duena, garraio publikoa aintzat hartuta, garraiobide moten arteko konbinazioa sustatuta.
 - Egiaz duten eraginkortasunaren arabera inbertsioak programatzen dituen, eta ez egun dagoen irizpidearen arabera, jarduketa berezietan gastua maximizatuta, dirua xahutzea baitakar.
 - Gizarte eta ingurumen eraginak minimizatuko dituen, eragin horiek ekoizpen kostu erreal gisa balioetsita.
- **Programatzeko eta diseinatzeko irizpideak aldatzea**, honako hauetan ahaleginduta:
 - Salgaiak eta bidaiariak errepideetatik burdinbideetara aldatzea.
 - Penintsulako gainerako tokiekin eta EBrekin eraginkorra den lotura lortzea.
 - Euskal Herriaren lurralde egituraketa egitea.
 - Garraio publikoari, taldekoari eta intermodalari lehentasuna ematea.
 - Ibilbide berrien gizarte eta ingurumen eraginak minimizatzea, aukeren artean hautaketa egiteko irizpide funtsezkotzat jota. Eta egiteko kostuak ere minimizatzea.
 - **Burdinbide sare multifuntzionala**, dauden korridoreak osatuko dituen eta egun dauden ibilbideak zuzenduko dituen. Hain zuzen, honako hauek hierarkizatuko dute:

- Modernizatzean oinarritutako oinarritzko sare bat, Gasteiz-Irun ibilbideari eta egun Iruñearekin duen loturari egindako zuzenketen eta lurperatzeen bidez, eta Bilbo-Donostia linea bitan zatituta. Bilbo eta Gasteizen arteko lotura berri batek osatuko du, Bilboko portuarekin lotura eginda.
- Bigarren mailako sarea, aldirietako sare txiki batetik abiatuta garatutakoa. Horretarako, metropoli inguruetan linea berrien sarea diseinatuko da eta alde batera utzita dauden zenbait linea lehengoratuko dira.
- **Azpiegiturak finantzatzen direnean burdinbidea lehenetsiko duen eredia bultzatzea.** Hain zuzen ere, horrek honako hau esan nahi du:
 - Errepide proiekturik ez egitea, baldin eta ez badago 1999. urteko Errepideen Planean sartuta.
 - Finantzatzeko gaitasuna handitzea, erregulatzeko tresnen bidez, hala nola bidesarien eta erregaien zerga gehigarrien bidez.
 - Burdinbide estrategia berria finantzatzea %50ean, Eusko Jaurlaritzaren eta aldundien artean, Bilboko metroaren kasuan gertatu den moduan, eta onartzea garraio publikoak duen izaera defizitarioa.
- **Zirkulazioaren eskaera kudeatzean arreta jarriko duen garraio politika egitea, eta ez azpiegitura berriak itsu-itsuan eskaintzean oinarritutakoa.** Eskaera kudeatzeko politikak askotarikoak dira. Jada eraginkortasuna frogatua dutenez, honako neurri hauek nabarmendu behar dira:
 - Zergekin lotutako neurriak. Erregai kontsumoaren arabera ibilgailuak matrikulatzeari zergak ezartzen dizkieten neurriak, gasolinei eta CO² igorpenei ezartzen dizkietenak. Hain zuzen ere, honako premisa hau hartu behar da abiapuntu: garraio pribatuaren erabiltzaileek ordaintzen dituzten tarifek barne hartu behar dituzte modalitate bakoitzari lotuta dauden kanpoko kostuak.

- Bidesariak. Dabiltzan kamioien gainean eta gaitasun handiko bideak erabiltzeagatik, zonen, ordutegien eta bideen pilaketa mailaren arabera. Ekopuntuak emateko sistemak, ibilgailu astunen igorpenak mugatzeko asmoz. Errepideei tarifazio nagusia jartzea edo Suitzan duten ereduak ekartzea: errepide sare osoa erabiltzeagatik urteko bidesaria ordaintzen dute han.
- Arauekin lotutako neurriak. Taldeko garraioa bereziak, lanik gabe dauden gazteak garraio publikora dohainik heldu ahal izatea arautzea, enpresetan aparkaleku kopurua mugatzeko arautegiak, dauden taldeko garraio zerbitzuen arabera, edo ibilgailu pribatuaren taldeko erabilera egiteagatik hobariak emateko zenbait sistema.
- Egiturarekin lotutako neurriak. Mugikortasuna zuzentzen eta irisgarritasuna sustatzen duten hirigintza eta lurralde antolamendu plangintzak egitea, edo desmaterializatuta dagoen ekonomia –handitzen joan den desmaterializatzea– sustatzea.
- Gizartea sentiberatzeko neurriak. Egungo ereduak ekarri duen zirkulazio kolapso ezin saihestuzkoa dela eta ohartaraztea, bai eta garraioak osasunean eta bizikaltatean dituen eragin txar ugariak direla eta ohartaraztea.

Nekazaritza

Gaur egunean jakiak merkantzia batean bihurtu ditugu, eta batez ere multinazionalak dira etekinak ateratzen dituztenak egoera honetatik. Beste sektore batzuetan ematen ari den krisiaren ondorioz espekulatzailerak jakietan inbertitzen hasi dira, hauen prezioak neurri gabe igoz, eta honek ez du nekazal sektoreari hobeto ordaintzea ekarri, baizik eta espekulazio hutsa eginez, urrea edo petrolioak balitz bezala, gutxi batzuen irabaziak handitzea bakarrik lortu da. Multinazionalak dira jakien produkzioa, eraldatzea eta banaketa

monopolizatzen dutenak eta horren ondorioz sortzen diren etekin guztien jabe egiten direnak.

Egoera honetan munduan zehar gosea hedatzen ari da eta herri aberatsetan eguneroko jakiak nola garestitzen diren pairatzen ari gara. Egiten ari diren politikak nekazaritza familiarra eta hurbileko komertzioa amaitzea dakar eta hauek behar beharrezkoak dira bertoko ekonomiak sendotzeko, horretaz gain jakiekin gero eta ziurtasun gutxiago daukagu gure janak gero eta urrunagotik etortzen direlako eta nekazaritza eta abeltzaintza intentsibo bat bultzatzen ari direlako, horrek dakarren pestizida, ongarri kimiko, antibiotiko eta abarren erabilera areagotuz eta etekin ekonomikoa ingurumena eta biztanleen eskubide sozialen gainean jarriz.

Janariaren merkantilizazioaren aurrean, Aralarrek herrien elikagaien subiranotasunaren alde egingo du eta nekazaritza eta elikagaiak kontrolatzeko ahalmena aldarrikatzen du. Jakiekin ezin da espekulatu eta horren aurrean nekazaritza eragiketa komertzial bat baino gehiago dela errebindikatzen dugu. Bizibide bat izateaz gain, ingurunea eta paisaiak babesten ditu, lurraldea kudeatzen du eta sare soziala mantentzen laguntzen du. Horregatik nekazaritzaren paper eta helburu anitzak ezin ditugu ahaztu, eta ohikoa duen elikagaiak sortzeaz gain egiten dituen gainerako lanak ere baloratu beharra daudela ikusten dugu. Benetan apustu sendo bat egin behar da funtzioaniztasun hau garatzeko eta horretarako beharrezkoak diren ekintzak eta baliabideak jarri beharko lituzke administrazioak. Orain inoiz baino beharrezkoagoa dugu, daukagun elikagai, ekologia eta finantza krisi honen aurrean. Neurriak hartzen hasi behar dugu egoera honetatik ahalik eta sendoen ateratzeko eta gure baserrietako inguruak orain arte bezain txukun eta zainduak egon daitezen eta kalitatezko produktuak geure barne merkatuan ekoiztu eta komertzializatu daitezen.

Helburu orokor bezala ondorengoak aipatu genituzke:

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzaren eta landa ingurune osoaren funtzioaniztasuna eta jasangarritasuna bermatzea eta

- sustatzea, horretarako bertako nekazaritzaren egoera eta ezaugarrietara egokitutako eredua diseinatuz, landa eremuak despopulatu eta lagatzeko prozesuak geldiaraziz, eta landa eta hiri-inguruen arteko elkarreragina bereizkeria positiboaren bitartez bultzatuz.
- b) Landa ingurunearen berezko ezaugarri nagusiei eustea, landa-ingurunea nekazaritzako elikagaien sektoreko produkzio eta eraldakuntzan inguruan egituratzea, eta hori guztia oinarri ekonomikoa dibertsifikatzearekin bateragarri izatea.
 - c) Nekazaritzak lehiatzeko duen gaitasunaren hobekuntza sustatzea, ingurune fisikoaren ezaugarriak eta nekazariak gizartean betetzen duten zereginaren garrantzia aintzat hartuta; izan ere, nekazarien zeregina familiako ustiakuntzaren eredian oinarritzen da, asoziazionismo eta kooperatibismoaren bidez eratzen da, eta merkatuari - euskal kontsumitzaleei kalitate handiko elikagaiak eskainiz-, ingurumena babesteari eta kalitatezko nekazaritzako elikagaiak lortzeari begira dago.
 - d) Landa ingurunekeo enpresen eta ekonomia egituren lehiakortasuna areagotzea, batez ere nekazaritzako elikagaien enpresetan, nekazalturismokoetan, nekazaritza ekologikokoetan eta landa ingurunean garapen endogenoko proiektuei ekitan dien beste edozein enpresetan. Helburu nagusia enplegua mantendu eta sortzea da landa ingurunekeo biztanleen onurako.
 - e) Landa ingurunean eragina duten administrazio eta erakunde publikoen arauak eta jarduerak bateratzea, disfuntzioak eta koordinazio eza saihesteko, eta, aldi berean, tresnen koherentzia hobea, esku hartzeen eraginkortasun handiagoa, eta landa eta hiri- inguruneen arteko elkareragina eta elkarkidetzak bultzatzeko.
- Aralarren iritziz Landa Garapeneko Elkarrekin dira indartu beharreko tresna bat, ardura handiko eragin gunea dute eta hitzarmenen bidez administrazio ezberdinen ekimenak uztartu ditzakete, baina horretarako behar beharrezkoa da Jaurlearitza hauen finantzabideaz arduratzea eta pertsonalez hornitzea.
- f) Landa eremuaren protagonismoari eustea, bai biztanleria, bai bertako erakundeetan; eta horretarako, asozianismoa bultzatzea, eta

- emakumeek eta gazteek prozesu ekonomiko eta sozialetan parte-hartzeko erraztasunak ematea.
- g) Landa inguruneetako natura, historia, kultura eta hizkuntza ondarea berreskuratu, artatu, garatu eta zabaltzea.
 - h) Lurraldearen antolamendua hobetzea, espazioaren erabilera arrazoizkoago eta orekatuagoa bultzatuz. Aralarren iritziz administrazioak eredu izan behar luke gai honetan eta lur publikoen babesa eta kudeaketaren optimizazio bat bultzatu behar luke.

Helburu orokor hauek lortzeko helburu espezifiko eta sektorial hauek lagundu dezakete:

Lurralde antolamenduan arloan:

- a) Lurraldearen eta hirigintzaren antolamendurako tresnak landa-inguruneen ezaugarri eta beharrezanen arabera ezartzea. Horretarako nekazaritza eta basogintzaren ikuspegitik balio handia duten lurren babesa bermatu behar da eta landa-inguruneetako herri guneak behar beste zerbitzuz eta azpiegituraz hornitu behar dira.

Nekazaritza eta basogintzaren arloan:

- a) Mendietan gutxiegi erabilitako lurrak eta natura-baliabideak hobeto aprobetxatzeko, artatzeko eta agentean partaidetzaz antolatzeke, eta halaber, lurraldea behar bezala artikulatzeko legea egokitu eta tresnak prestatu behar dira. Tresna hauek zigortzaileak eta bortxazkoak izan beharrean politika positiboak bultzatu eta lurren kudeaketa egoki eta arin bat lortu beharko lukete. Bestetik behar beharrezkoa ikusten dugu lurren errolda edo katalogo bat egitea, lurren balioa eta daukaten erabilera azalduz. Informazio honekin lurraren kudeaketa optimizatu bat lortzea da helburua.
- b) Sektoreko enpresen lehiakortasuna hobetzea, produktuak kalitateagatik bereiztea sustatuz eta barne kontsumorako ekoiztuz. Gure baserriarrek hemengo herritarrek eskatzen dutena eskaintzen saiatu eta barne kontsumora begira ekoiztu behar lukete.

- c) Gazteak eta emakumeak nekazaritzan aritzea errazteko baldintzak sortzea. Horretarako dauden dirulaguntzak indartuz.
- d) Nekazaritzako elikagaigintzan kooperatibismoa bultzatzea eta elikagaien industriaren garapena bultzatzea. Ahalik eta handiena izan dadin haren balio erantsia, hurbileneko merkatuak bereziki kontuan izanda. Horretarako lagungarri izango da herrietako asteroko edo hileroko azokak sustatzea eta zuzeneko salmenta egin ahal izateko baliabideak egokitzea.

Landa-inguruneko ekonomia ehuna dibertsifikatzeari eta enplegua sortzeari dagokionez.:

- a) Enplegu sorkuntza eta aukera berdintasuna sustatzea eta bultzatzea.
- b) Industri lurzorua eta haren oinarritzako azpiegiturak era ordenatuan eta zentzuz garatzen laguntzea, beti ere landa ingurunearen ezaugarri bereziak errespetatuz eta zainduz.
- c) Industri-enpresa txiki eta ertainak ezartzeko erraztasunak ematea, arreta berezia jarritz garapen endogenoko proiektuak eta baita zerbitzu enpresetan ere, eta nekazaritza tradizionalako ekoizpenari balio erantsirik handiena ematen diotenei lehentasuna emanez.
- d) Lana informazioaren teknologia berrietan oinarriturik antolatzeko eredu berrien garapena bultzatzea, landa-inguruneko enpleguaren laneko baldintzak eta bizitzaren kalitatea hobetzeko aukera egon dadin.

Hezkuntza eta kultura arloan

- a) Hezkuntzako eskaintza landa inguruneko biztanleriarengana iristeko modua bermatu eta gero eta hurbilago egon dadin ahalegintzea.
- b) Landa-inguruneko biztanleen lanbide heziketa eta heziketa okupazionala egokitzea alderdi bakoitzak lanesku kualifikatua lortzeko dituen beharrian berezien arabera, lanesku hori beharrezkoa baita enpresa berriak irekitzeko, aktiboen birziklapena bultzatzeko eta teknologia zein ekoizpen modu berriak erabiltzeko.
- c) Landa-inguruneen kulturaren ezagutza, zabalkundea eta balorazioa sustatzea.

Osasunaren arloan

- a) Osasun arloko eskeintza sustatzea, arian-arian osasun baliabideak lurraldeko gunerik apartatu eta txikienetako biztanleengana hurbiltzeko.

Etxebizitzaren arloan

- a) Landa-ingurunearen berezitasun eta aukeren araberako etxebizitza politika garatzea, kalitate onekoa eta dentsitate txikikoa. Era horretan landa-ingurunea ohiko bizilekutarako erakargarri bilakatzeko, espekulazioa eragozteko eta bertako gazteei etxebizitza lortzeko modua errazteko.

Azpiegituren arloan

- a) Landa-inguruneko biztanleek lana, zerbitzuak, heziketa, aisia, gizarte harremanak eta kontsumoa eskuratzeko dauzkaten aukerak hobetzea, hartarako beharrezko diren azpiegitura guztiak behar bezala garatuz.
- b) Oinarrizko azpiegiturak presaz eta lehentasuna emanaz garatzea, hala nola garraio, elektrifikazio, ur horniketa, saneamendu, gas, telefonia eta ureztatze arlokoak, azken horiek nekazaritza sektorearentzat funtsezkoak baitira. Era berean arreta berezia jarriko da telekomunikazioko azpiegiturretan.

Ingurumenaren arloan

- a) Garapen jasangarria bultzatzea, oraingo beharrezanean erantzunez, baina etorkizuneko belaunaldiei beharrezan asebetezeko ahalmena eragotzi gabe. Nekazaritza jasangarria diogunean, ekonomikoki, sozialki eta ingurumenarekin oreka bilatzen duen nekazaritza batetaz ari gara eta nahita nahiez lurrari lotua behar du izan.
- b) Ingurumena babestea, narriadurari aurrea hartzea eta kaltetuak izan diren aldeak lehengoratzea.
- c) Bioaniztasuna babestea. Arreta berezia jarriko da agroaniztasunean eta euskal espezie eta arrazak artatu eta berreskuratzen; horretarako, jatorrizko ekosistemetak material genetikoa erabiliko da.

- d) Aralarren iritziz administrazioak transgenikorik gabeko nekazaritza baten alde egin behar du eta ondorioz beraien erabilera debekatu, bai gizakientzat eta baita ere animalien elikadurarako. Hala, animalientzako elikagaietan 5 urteko moratoria bat planteatzen dugu pentsu ekoizleak egokitu daitezzen eta hortik aurrera guztiz debekatzea proposatzen dugu.
- e) Administrazioak energia berriztagarrien (fotoboltaikoa, haize errotak, eguzki plakak...) instalakuntza sustatu behar du ustiapenen barne kontsumorako.

Turismoaren arloan

- a) Landa- turismoa bultzatzea sustapen ekintzak burutuz, baina Nekazalturismoa nekazaritzako ustiategien osagarri gisa ikusten dugu. Ez ditugu landa eremuetako hotelak babestuko, turismo mota honen zentzua beste sarrera batzuen osagarria izatea baita.
- b) Landa-turismoaren garapena antolatzea, masifikazioa saihestuz.

Alor hauetako ideia batzuk aipatzearen, interesgarria deritzogu ondorengo ekimenak bultzatzea:

- **Prezioen behatokia sortzea.** Datu ekonomikoak bildu eta elikaduraren katean aktore bakoitzari dagokion %a zehazteko azterketak egitea. Modu honetara etiketan bi prezio azaldu behar lukete, bat ekoizleari ordaintzen zaiona eta jatorria izango da eta bestea amaierako salmenta prezioa.
- Mendiko **kalteordainen osagarriak** eta ingurumeneko neurriak hartzeko dirulaguntzak indartzea.
- Beharrezkoa ikusten dugu Aralarretik **mendiko nekazaritzari** ematen zaion dirulaguntza hau, legeak baimentzen duen maximoraino igotzea. Gure orografiak zailtasunak ematen dizkie bertako ekoizleei eta modu batetara konpentsatu beharra daukagu eta bestetik ingurumena babesteko neurriak hartzeagatik ere diruz lagundu beharra adierazten dugu.

- **Kalitate bereizgarri berri bat sortzea “baserrikoa” izenarekin.**
- Honen helburua, baserriko produktuekin bertan sortu edo landutako kalitate altuko janarien sustapena egitea da.
- **Nekazaritza eta abeltzantza ekologikoaren sustapena.**
- **Ekoizpen ekologikoa** pixkanaka goraka doan aukera bat da, eta Aralarren iritziz krisi garai hauetan alternatiba erreal bat da. Administrazioak apustu sendo bat egin behar du ekoizpen mota hau sendotu eta behar dituen baliabide material eta pertsonalez hornitzeko.

6. Hizkuntza, Hezkuntza, Gazteria, Kultura eta Kirola, Euskal Herriaren ardatz

Hizkuntza Politika

Euskararen normalizazioa hizpide izan dugu azkeneko urte hauetan. Alde batetik, aurrerapausoak gertatu direlako (horiek azpimarratu ditu Jaurlaritzak), eta bestetik, gabeziak egon badaudelako (hori azpimarratu dute euskalgintzako zenbait eragilek).

Aralarren aurrera pausuak eman direnik ez dugu ukatzen, baina uste dugu ez direla euskararen berreskurapena bermatzeko nahikoak eta behar bezain sendoak.

Aldiz, gaztelaniaren kontrako urradurak gertatzen direla aldarrikatu du batez ere PPK, baita, baita PSEk ere. Urradura horiek daudenik ere sinistea zaila egiten den arren.

Azkeneko hogeitun urteetan aurrerakada handiak gertatu dira Euskal Autonomia Erkidegoan alor batzuetan, txikiak beste alor batzuetan eta, azkenik, batere aurrerapausorik egin ez duten esparruak ere badira. Hori bai, epe berean Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian euskarak izan duen bilakaeraren aldean, autonomia erkidegoan urrats handiak eman dira, batez ere —baina ez bakarrik— hizkuntzaren ezagutzari dagokionez. Alabaina, horrek ez du esan nahi emaitza horiek EAEn euskararen berreskurapena bermatzeko nahikoak direnik, izan ere erabileran oso gutxi egin da aurrera, eta kezka zabalduz doa euskalgintzan eta euskaldun askoren artean.

Nolako gizartea? Aralarrek 'pertsona eleanitzez osatutako gizarte nagusiki euskalduna' lortzeko moduko hizkuntza politikaren alde egiten du.

Euskara hizkuntza bizia izango bada, mintzaera nagusia behar du izan bere lurraldean, beste edozein hizkuntzak bezala. Oraingo honetan Euskal Autonomia Erkidegoaz ari gara: eskualde bakoitzaren abiapuntu

soziolinguistikoa ezberdina den arren, eskualde guztiek dute lege-marko bera. Hori horrela, asmatu egin behar da nola jardun eskualde guztietan egin dezan aurrera euskararen normalizazioak. Gauza bat argi izan behar dugu: euskararen normalizazioak eskatzen du euskara guztion hizkuntza izatea, ez bakarrik abertzaleona. Guztioi dagokigu hizkuntza hari horretatik ere bultzatzea.

Hezkuntza ereduak

Inon aurrerapausorik egin bada, hezkuntza sisteman izan da. Gizarteak arlo honetan egin du euskararen aldeko apusturik sendoena eta irakasleen erantzuna ere, neurri berekoa izan da. Ez dago beste arlo profesionalik irakasleen mailan erantzun duenik. Arian-arian, euskarazko ereduaren aldeko eskariak eta irakaskuntzako langileen erantzunak egungo egoerara ekarri gaituzte, eta duela hogeita urte gurasoen erdiek baino gehiagok euren seme-alabak A ereduaren matrikulatzen bazituzten ere, egun %5 inguru dira lehen matrikulazioan seme-alabentzat eredu hori aukeratzen duten gurasoak.

Hala ere, gizartearen beraren bilakaerak eredu-sistema hobetu eta doitu beharra ekarri du derrigorrezko irakaskuntza bukatzean ikasleek hizkuntza ofizial biak nahikotasunez mendera ditzaten. Egun, zati batean baizik ez da gertatzen hori (D ereduko ikasleek bi herenek eta B ereduko heren batek). Gainera, eskolak bakarrik ezin du ikasleek euskalduntzea bermatu: aisialdian eta eskolaz kanpoko jardueratan askoz sendoago eragin beharra dago ikasleek euskaraz (ere) jarduteko nahikotasuna erdietsiko badute.

A ereduak ez da baliagarria eta ez da bidezkoa. Elebitasunik ez du inondik inora bermatzen (beraz, legea ez du betetzen) eta batez ere horregatik gizarteak bizkarra eman dio. Edonola ere, azken urteotako etorkinen hazkunde handiak bizi berritu egin du A ereduaren zenbait hirigunetan, sarri ghetto bilakaraziz. Horregatik guztiatik, marjinal bilakatzen ari delako, hezkuntza helburuak lortzeko balio ez duelako eta integrazioarako ere arazo delako, argi dago eredu horren jarraipena ez dela gure gizartearen onerako.

Hizkuntzen ereduak, ikuspegi zabalago batetatik oratu behar zaiolakoan gaude, alor, esparru guztietara hedatuz, Auzo eta herri normalizazio proiektuetan

txertatuz, orain arte ikastetxeek belaunaldi berriak euskalduntzeko eta euskararen normalizazio prozesuan oro har jasan duen gehiegizko zama, beste antolamendu eta gizarte eragileekin banatuz. Baina horretarako baliabideak bermatu behar dira, gaur egun dauden baliabide berdinekin ezin izango delako eraginkorra izango den eredu sistema berri bat martxan jarri. Beharrezkoa eta lehentasunezkoa da baliabideak definitzea, jakin behar dugu zein errekurtsio izango ditugun eskura, bai pertsonalak, irakaslegoaren formakuntza barne, eta bai materialak. Zeren bestela, alperrikakoak baitira legeak, berauek garatzeko eta praktikara eramateko ez baldin badago bitartekorik. Beraz, ereduaren sistema berriaren alde egingo dugu, baina beti ere errekurtsioak bermatzen baitira.

Euskal Herri osorako proiektu bat izan behar du. Baina gaur egungo eremu administratiboetara egokitua, baldintza desberdinetan eta erritmo desberdinetan. Ikastetxeen autonomiatik, dagokion gune soziolinguistikoaren egoeran oinarritutako egitasmoa abiarazi.

Jauzia ezin da egun batetik bestera eman. Etapetara egokituko den, bien bitarteko fase baten beharrea gaude (5-10 urte). (Beti ere gune soziolinguistikoaren arabera.). Prozesu hau beti ere bi ardatzen inguruan oinarrituz: ikastetxeen autonomian eta auzo zein herri mailako proiektuetan. Azken xede, gaur egungo D eredu bezala ezagutzen dugunera heltzea izanik.

- Haur Hezkuntza: murgiltze eredu.
- Lehen Hezkuntza: euskaraz %60 gutxienez.
- Bigarren Hezkuntza: euskaraz %50 gutxienez eta atzerriko hizkuntza behikularra izatea lortuz.

Bien bitartean, A ereduaren berez desagertzen doan bitartean, A ereduaren sortu den ghetizazioarekin bukatu beharra dago. Edozein dela hemendik aurrera hartuko den bidea ezinbestekotzat jotzen dugu irakasle izateko egingo diren kontratazio guztietan 2. Hizkuntza eskakizuna eskatzea.

Lanbide Hezkuntzan D eredia hedatu beharra dago premiaz eta ereduaren sistemak beharrezkoak dituen hobekuntzak aplikatzeko, diru eta giza baliabide nahikoak esleitu behar dira, baina ezer berri abian jarri baino lehenago frogatuak egin beharko dira.

Aisialdian euskararen presentzia sendo areagotu beharra dago. Dagoeneko badakigu euskalduntzea ingurune soziolinguistikoari estu lotuta dagoela: beharrezkoa da eskolak oinarria jartzea, baina oinarri horiek ez dira nahikoak ingurune soziolinguistikoa nagusiki eralduna denetan. Bigarren arrazoiak erabilerarekin du zerikusia: euskara = eskolako hizkuntza identifikazioa gainditu egin behar dugu, erabileraren kaltetan baita. Baliabide nahikoak jarri behar dira helburu horretarako eta, hainbatetan, kirolean egin behar da berebiziko apustua. Gazte eta gaztetxoekin kirol jardueran euskara ohiko hizkuntza izan dadin, federazioak, monitoreak, entrenatzaileak eta enparauak euskaraz jarduteko plangintzak egin eta diru-baliabidez hornitu beharra dago. Lan hori, baina, ez dezake administrazioak berak bakarrik egin: gurasoen inplikazioa ere ezinbestekoa da.

EITBko komunikabideak

Ikus-entzunezkoen eragina gero eta handiagoa da gaztetxoengan, baita euren hizkuntzen erabileran ondorioz. Horrek ikus-entzunezkoetan askoz arreta handiagoa jartzera behartzen gaitu.

ETB1 telebista osoa behar du izan fikzioa, eztabaidak, zinea, magazinak eta gainerakoak programatuko lituzkeena. EITBren erdarazko komunikabideek ere hizkuntzaren normalizazioan eragile izan behar dute. ETB2n eta Radio Euskadin eta Radio Vitorian euskararen eta euskal kulturaren presentzia normalizatzea, bukatu behar dute informatiboentzat bi hizkuntzetan eginiko elkarrizketek.

Euskarazko Bikoizketa Agentzia sortu eta estreinaldiko zinearen euskarazko bertsioak egitea premiazkoa da. Euskarara bikoiztutako pelikulen kuota ezartzeko bideak jarri. Gazteei begira kultur jarduerak, ikuskizunak, kontzertuak

eta antzekoak EAE osoan antolatuko lituzkeen organoren bat bultzatuko beharko litzateke.

Administrazio publikoa

Administrazioaren lan eskaintza hizkuntza-eskakizunekin lotzen dute zenbait komunikabidek. Euskaraz jakin gabe funtzionario izaterik ez dagoela ematen dute aditzera, nahiz eta ondotxo dakiten hori ez dela horrela, badagoela euskaraz jakin gabe funtzionario izatea, baina, ostera, inor ez daitekeela funtzionario izan gaztelaniaz jakin gabe.

Gizarteari argi azaldu behar zaio hizkuntza eskakizunak administrazioko lanpostuen erdietarako ere ez direla egun, eta gainera eginkizunen arabera mugatutako gaitasuna eskatu ahal izateko ezarri zirela, lanpostua eskuratzeko bidea erraztuz. Progresibitatearen printzipioaren arabera aplikatzen direla Hizkuntza Eskakizunak.

Hori horrela, administrazioak badu hizkuntza eskakizunekin beste eginkizun bat zuzendu beharra. Egokitu egin behar dira hizkuntza eskakizunak; lanpostuari areago doitu behar zaio eskakizuna, lanpostu eta betebeharrak zehatzei. Hizkuntza eskakizunak lanpostuaren ezaugarri gehiago lotzeak ekarriko du, beharbada, zenbait lanpostutarako hizkuntza-eskakizuna apaltzea –edo arrazoizkoago bihurtzea, ahozko harremanak baino izango ez dituenari ahozko trebetasuna baino ez eskatuz, adibidez–. Baina edonola ere, herritarrari aukerako hizkuntza erabiltzeko aukera ziurtatuko zaiola bermatu behar da Hizkuntza Eskakizunen bidez.

Euskal administrazioan sartzeko euskarazko ikastaroak. Zergatik ez? Gaur egun lehenengo oposaketak, gero, lanean dagoela, liberatu egiten dira euskara ikasteko. Zergatik ez alderantziz? Ikastaro trinkoak administrari laguntzaile euskaldunak prestatzeko (puntuak emango lizkioke oposaketei begira, baina inportanteago, testuak idazten, jendearekin berba egiten... jakingo lukete).

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak, hizkuntzaren normalkuntza prozesuko gidaritza hartu nahi badu, eredu bilakatu beharra dauka.

Berari dagokio ez bakarrik besteentzat arautzea (kontsumitzaileen eskubideak zehaztu dituenean egin duen moduan), baizik eta, lehentasunez, herritarren hizkuntza-aukeraketa librea une oro ziurtatzeko ahalegina egitea, arian-arian baina etenik gabe, administrazioaren atal eta modu guztiak kontuan harturik. Izan ere, zenbat Merkataritza erakunde autonomiadun, zuzenbide pribatuko erakunde publiko, eta autonomia erkidegoko sektore publikoko gizarte eta fundazio daude, ez jada herritarrari berak nahi duen hizkuntza erabiltzen uzten ez dionik, baizik eta normalizazio-plangintzarik egin ere egin gabe dutenak? Hizkuntzaren normalizaziorako bitartekoak, lehentasunak, hedapena, epeak eta egutegiak gardentasunez azaldu behar zaizkio herritarrei.

Hizkuntza Politika sailaren kokapena: Hizkuntza-politikak administrazioearen sail, atal eta eginbide guztiei eragingo badie ezin du inongo sailen menpeko atal izaten jarraitu. Administrazioaren erdi gunean kokatuta behar du, hortaz, Kultura sailetik atera egin behar da eta lehendakaritzara eroan, hizkuntzaren normalizazioarenak lan transbertsala izan behar duelako: sail guztiak inplikatu behar dira, guztietan egin behar da ahalegina. Hizkuntza normalizatzea ez daitekeelako kultura arlora mugatu, hori baino askoz gehiago beharko baitugu. Sail guztiek eragiten dute hizkuntzaren erabileran, hasi Lurralde Antolamendutik eta buka Justizian, nahi bada. Hortaz, sail guztiek dute normalkuntza prozesu antolatuaren behar gorria.

Ertzaintza eta Osakidetza. Herritarrekin harreman ohikoa eta estua duten sailak dira biak ala biak, baina euskararen normalizazioari dagokionez, sailik atzeratuenetakoak dira. Normalizazioan aurrerapauso sendoak egin behar dira bietan beranduago gabe. Premiaz.

Administrazioak jendaurrerako zerbitzu guztietan behargin elebidunak ipini behar ditu. Hasteko, langile bat baino gehiago diharduten zerbitzuetan, gutxienez batek euskalduna izan behar du. Berdin Ertzaintzaren patruiletan

zein ogasuneko leihatilan. Batetik, euskaldunen oinarrizko hizkuntza eskubideak bermatzeko, eta bestetik, legeak administrazioari herritarraren hizkuntza aukera ziurtatzea agintzen diolako.

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

UEMA indartu eta Administrazioak erakunde horrekin harremanak normalizatu beharra dago. Udalerri euskaldunak ezinbestekoak ditugu euskararen berreskuratze prozesuan, gehiago ala gutxiago euskaraz normaltasunez bizi diren gune ia bakarrak (eta azkenak?) horiek baititugu. Euskara gizarte-alorrean nagusi den tokietan (euskaldunak > %70 esaterako), administrazioak euskararen gune bereziak sortu behar lituzke eta politika berariazkoak bultzatu, inguru horietan euskara izan dadin hizkuntza nagusia bizitzaren alor guztietan. Beste gune batzuetan ere aurrera egin nahi bada, gizarteak udalerri euskaldunen erreferentzia eta adibidea behar-beharrezkoa du. Gero eta urriagoa den lurralde eremu euskalduna babesteko borondaterik badago, UEMA bultzatzea ezinbestekoa da.

Euskararen normalkuntzarako zerbitzu homologatuak eratu behar dira udal guztietan, biztanle kopuruaren arabera osaketa bermatuz. Udal lege berrian jaso behar litzateke hori, besteak beste.

Kargu publikoak eta euskara. Ordezkarri publikoek EAEko bi hizkuntza ofizialak jakitea xede izan behar lukete talde guztiek. **Aralar**ren konpromisoa da euskaraz eta gaztelaniaz jarduteko gai izango direla EAEko administrazioetan arituko diren hautetsi guztiak.

Espainiako Administrazioa edo Euskararen erabilerarik eza

Ausardia ez, erabakimena beharko da, Espainiako gobernuak legea betetzera ekarri nahi bada. Auzitegi Konstituzionalak aspaldi argitu zuen hizkuntzaren normalizaziorako legeek autonomia erkidegoetako administrazio guztiak barne hartzen dituztela, guztiak. Espainiako gobernuak, beraz, betetze bidean jarri behar zituen, aspaldi jarri ere, autonomia estatutuak eta 10/82 legeak xedatzen dutena, baina ez du egin. Gobernuak joan, gobernuak etorri, sozialista zein popular, Estatuaren administrazioak ez du hizkuntzaren aukeraketa librea

bermatzeko inolako pausorik egin. Eta hala ere, Jaurlaritzak inoiz ez du gai hori mahai gainean jarri, inoiz ez du ahaleginik egin Estatuko erakundeek herritarren hizkuntza eskubideak berma ditzaten. Gaur egun, alderdi sozialista da Espainiako agintean. Berari dagokio, beraz, Estatuaren administraziorako ere normalizazio planak bultzatzen hastea. Baina horrela egin ezean, Jaurlaritzari dagokio hori exijitzea.

Etorkinak

Lehenago Espainiako lurretatik bezala, gero eta gehiago dira Ekialdeko Europatik, Hego Amerikatik eta Afrikatik gurrera etorri diren pertsonak. Lanera etorri dira, eta asko eta asko betiko geratuko dira hemen. Helduekin lan bi behintzat egin behar dira: lehenengoa, hemen hizkuntza bi daudela jakitera eman eta euskara ikasteko aukera ahalik eta gehien erraztu behar zaie. Zertarako? Beharbada bizitza arrunterako ezinbestekoa ez den arren, Euskal Herrian integratzeko tresnarik eraginkorrena delako.

Gizarte Zerbitzuekin eta sindikatuekin egin beharreko lana da hori, lehenik. Areago, eremu euskaldunetara etorritakoei, Lanbide ikastaroak eskaini dakizkieke, euskararekin batera. Ofizio batekin batera euskara.

Etorkin horien seme-alabentzat, D eredua aukera dezaten lan egin behar da: hizkuntzaren geroak, baina baita integrazio sozialak ere eskatzen du lan hori egitea.

Egun, ordea, Inoiz eskolatik pasa gabekoentzat euskara ikastarorik ez dago!!!! Ez hori bakarrik erdararik gabeko euskalduntze materialik ez dago... Eta gaztelaniaz ez dakiten etorkinak, harrigarria bada ere, euskararekin batera gaztelania ikastera behartzen ditugu, horretarako ikastetxearen beharrik izango balute moduan.

Helduen euskalduntze alfabetatzea

Helduen euskalduntzeari dagokionez sakondu egin behar da azkeneko urteetan eginiko lanean. Mesfidantzak eta lehia gorria alde batera utzi dira, eta badirudi gobernuaren eta helduen euskalgintzaren arteko elkarlana inoiz baino

errazagoa eta, beraz, oparoagoa dela. Irakasleen lan baldintzak hobetuz jarraitu beharra dago, lanbidearen prestigio soziala handitzeko. Euskaltegien mapa osatzeari ekin beharra dago behingoz, helduen euskalduntzea ahalik eta eraginkorra izan dadin. Eta dibertsifikaziorako aukerak aztertu behar dira, helduen euskalduntzeak esparru gehiago har ditzan. Honetan ere, ausardia beharko da.

Modelo berri bat eraiki behar da euskalduntzea, erabiltzea eta integratzea batera landuko duena eta horretan berbalagun eta antzeko ekimenek zabalduko bideak sustatu behar dira.

Berbalagun egitasmoa bultzatu egin behar da, baliabidez hornitu, gero eta gehiago izango diren euskaldun berriei euskara erabiltzeko aukerak emateko ekimen bikaina delako.

Gizarte ekimeneko euskalgintza

Gizarte Ekimeneko Euskalgintzari dagokionez, administrazioarekin harreman-marko egonkorra eskaini behar zaio, marko horretarako legealdi osorako iraupena bilatuz. Erakunde asko dira hizkuntzaren normalizaziorako lan eskerga egiten dutenak, euskararen berreskurapenean ezinbesteko lana egiten dutenak. Hala eta guztiz ere, urterik urterako plangintzak diseinatuzera derrigorturik daude, sarritan ez baitute jakiten urte bi barru zein baliabiderekin kontatu ahal izango duten. Batez ere hedabideen kasuan, legealdi osorako egonkortasuna eskaintzea behar-beharrezkoa da, esate baterako lurreko telebista digitalak euskaraz eskaintzeko proposamena egin nahi duten elkarteei begira. Horretan ere atzetik ailegatu nahi ez badugu, funtsezkoa da eragile sozialek eta administrazioak elkarlanerako bitartekoak aurkitzea, euskarazko eskaintza kalitatezkoa behintzat gure autonomia erkidegoko esparru guztietara hedatu dadin.

Teknologia berriak

Euskarak teknologia berrietan tokia izan behar du: Internet, gailu mugikorretan, teknologia linguistikoan, etab.etan. Bertako hizkuntzen industria bultzatu eta sektorea trinkotzeko neurriak eta ekimenak abiatu. Hizkuntzen industrien I+G+b

gunea antolatu (CIC-berbagune). Bertako industriari lehentasuna eman kanpokoaren aurrean.

Interneten euskarazko edukiak ugaritzeko neurriak indartu, eduki entziklopedikoak bereziki. Interneteko euskarazko entziklopedia abian jarri. Kontsumo handiko produktuen lokalizazioa indartu.

Euskararen corpusaren normalizaziorako baliabide teknologikoak landu.

Euskararen analisirako oinarritzko tresnen azpiegitura indartu. Euskararen Corpus Orokorra, corpus eleanitzak, ahots-corpusak, etab. Euskaltzaindiak euskararen corpus normalizazioaren abiadura azkar dezan baliabide ekonomiko handiagoz hornitu

Euskarazko produkzioa munduratzeko euskararen eta erdara nagusien arteko itzulpen automatikoa bultzatu. Euskarazko produkzioa, literarioa bereziki, hizkuntza nagusietara itzultzeko laguntzak handitu.

Komunikabideak

Euskarazko komunikabideen kontsumitzaileak aukeratzeko parada izan dezan baliabideak jarri behar dira, kalitatean aurrera egiteko lehia ezinbestekoa baita. Kalitatearen uretan sarturik, ezin aipatu gabe utzi euskarazko herri komunikabideetan diharduten kazetarien lan baldintzak eta prestigio profesionala. Helduen euskalduntzearen sektorearekin egin den moduan, profesional horien baldintzak hobetzeko planteamendu bateratua egin beharra dute administrazioak eta hedabideen enpresek. Administrazioaren laguntza zuzena ezinbestekoa da, lehia erdarazko komunikabideekin ematen baita lehenik; euskarazko komunikabideak baino hamaika gehiago direnak eta baliabidez askoz aberatsagoak direnak.

Hizkuntza-paisaia

Herrietan dermio izenak jaso eta seinalizatu. Gorde eta babestu ezean, aldaketa azkarrak eta sakonak gertatzen dira hizkuntza paisajea, populazio erdaldunaren proportzioa handia den eremuetan bereziki. Herri

inguruko landen, basoen, iturrien eta erreken jatorrizko izenak jaso eta bide seinaleen bidez agerian jartzea lehentasunez burutu beharreko lana da.

EAE n ekoiztutako produktuetan, bereziki jatorri izendapena dutenetan, euskararen marka bultzatu behar lirateke, produktuok lehentasunez euskaraz etiketatuta egon daitezzen.

Era guztietako merkataritza eta zerbitzu guneetan hizkuntza paisaia ele bietan jartzea lehentasuna behar du, bai kanpo errotulazioari dagokionez, bai produktuen izenei dagokienez ere.

Erdal abizenak erdaraz idatzita behar duten bezala, euskal abizenak euskaraz idatzita behar lukete. Herri eta toki izenak bezalaxe, normalizazio zeinu litzateke abizenak ere behar bezala idatzita ikustea.

Sentsibilizazioa eta euskararen bilakaeraren historia gizarteratzea

Gaztelaniak horren beharrik ez duen arren, gaztelaniaren erabilera sustatzeko eta zabaltzeko kanpaina betean daude zenbait komunikabide eta erakunde une oro. Tamalez, sarritan gaztelaniaren sustapen kanpaina baino, gehiago dirudi euskararen berreskurapenaren aurkakoa, komunikabiderik indartsuenen eskutik jasan behar izaten duguna (Ingurumaria horretan baizik ez daiteke ulertu, adibidez, PSEk oraintsu egindako Hizkuntza Politikarako proposamen sinesgaitza).

Kanpaina zorigaitzoko horien planifikazioa agerikoa den bezala, bistakoa da euskararen aldeko kanpainen ahulezia eta planifikazio urria. Normalizazioak ezin du aurrera egin bizi duguna bezain giro gaiztotuan, baina ematen du normalizazioaren ardura nagusia duen euskalgintzako sektoreak, hau da, EAEko administrazioa, ez dela jabetu egoeraz, edo ez dakiela zer egin. Euskalgintzako beste esparru batzuei gertatzen zaien bezalaxe, aitor dezagun, bidenabar.

Etxepare institutua, edota euskal kultur munduko (bere adierarik zabalenean) ordezkarien ekarpen jarraitua eta planifikatua ezinbestekoak dira euskararen

eta euskaldunen irudia hobetuko badira eta eraso baztertzaile erdarazaleari aurre egingo bazaio. Baina horiekin batera euskararen aldeko jarrera irmoagoa eta askoz ohikoagoa erakutsi behar lukete ordezkari politiko euskaltzaleek, adibidez.

Euskararen gizarte-normalizazioaren alorrean I+G+B landuko duen erakundea sortu behar litzateke, alorreko agenteekin elkarlanean. Izan ere, erakunde horren betebeharreko bat euskararen berreskurapen prozesuaren aldeko sentsibilizazio jardun jarraitua eta planifikatua antolatzea behar luke.

Hezkuntza

Herri batek etorkizunik baldin badu, ezinbesteko du kalitatezko hezkuntza sistema. Hezkuntza sistema **integrala, inklusiboa, berrikuntzan** oinarritutakoa, **demokratikoa**, hots, **parte-hartzean oinarritutakoa**. Eta, noski, Euskal Herrian bizi garenez, **euskalduna**. Hezkuntza edozein gizarterentzat, edozein kulturarentzat etorkizuneko bermea da, ezinbesteko oinarria da, baldin eta identitate, kultura, ideia, proiektu guztiak errespetatu, aitortu eta onartzen dituen gizarte integratzaile, zabala eta kohesionatua nahi badugu. Baina Hezkuntza bermea izateko, kalitatezkoa izateko, finantziazioa behar da, errekursoak behar dira, hots, hezkuntzan inbertitu egin behar da. Legeak, erreformak eta errekursoak eskutik joan behar dira. Gogoratu gaur egun EAEn hezkuntzaren gastua BPGren %3,8a dela, Europar Batasuneko baxuenen artekoa: Europan % 6a da, batz bestea.

Gure erantzukizuna eta egin beharra —gizarte anitz, aberats eta integratzailea helburu izanik— pertsona guztien gizarte integrazioa ahalik eta modu egokienean bideratzea da. Hemengoak izan ala ez, gure herriaren nortasunetik, hizkuntzatik, kulturatik, ingurunetik abiatu behar dugu gure herrian bizi dugun errealitate politiko, sozial eta kulturala ahaztu gabe eta marko orokorraren barruan ditugun errealitate desberdinak presente izanik. Ez dugu ahaztu behar garai hauetan gero eta etorkin gehiago datozkigula. Euren identitatearen eta kulturaren errespetutik abiatuz, gure hizkuntza eta kulturarenganako ezagutza eta interesa era positiboan zabalduz kulturen arteko interakzioa ahalbideratu

behar dugu eta gure nortasun, hizkuntza eta kulturarenganako lotura afektiboak sor daitezen bideak irekia behar ditugu.

Beraz, testuinguru berri baten aurrean aurkitzen gara. Mundu globalizatu baten murgilduta gaude, eta, nahitaez, hezkuntza sistema, hezkuntza proiektua, garai berrietara egokitu beharra daukagu. Gizarte globalizatuari uko egin gabe eta tokian tokiko egitasmoak uztartuz. Norbanakoaren eta Komunitatearen nortasuna galdu gabe. Testuinguru horretan etorkinak artatzeko dugun harrera-eta integratze-ereduak eta hori gauzatzeak duen garrantzia berebizikoa da.

Gaur Egungo Errealitateak Etorkizunera

2005-2009 legealdi grisenetakoa izan dela esan genezake. Konpromiso ugari gobernuaren aldetik, baina ekintza gutxi. Hitzetatik ekintzetara iragateko inpotentzia. Besteak beste, onartutako lege zein dekretu batzuk praktikara eramaterako orduan erakundeetatik ez dagoelako laguntzarik, errekurtsorik ezta babesik.

Oro har, esan genezake erakundeetatik ez dela hezkuntza sistema garai berrietara egokitzen jakin. Immobilismoan erori da eta aurrera egin baldin badu ikastetxeen eta irakasleen jarrera aktiboagatik, autonomiagatik, borondateagatik izan da. Baina hezkuntza sistema, hezkuntza proiektuak, ezin dira soilik ikastetxeen eta irakasleen borondatean oinarritu, baldin eta hezkuntza sistema kalitatezkoa, iraunkorra nahi baldin badugu. Ikastetxeen autonomia bai, baina erakundearen lidergo, kontrol eta errekurtsoen babesa beharrezkoa da, baldin eta eboluzionatu, hezkuntza proiektu trinkoak eta kalitatezkoak bermatu nahi baldin baditugu. **Aralar**ren taldean sinesten dugu, elkarlanean sinesten dugu, eta berau oinarri izanik pentsatzen dugu bultzatzea daitekeela etorkizuneko herritar parte-hartzaile, aktibo eta solidarioak izateko hezkuntza proiektuak. Alegia, ikastetxeak = irakasleak+ikasleak+gurusoak+garbitzaileak+.... Guztion artean osatzen baititugu auzoak, herriak eta hiriak.

Guztion diruarekin finantzatutako ikastetxe orok eskubide eta betebeharrak izan behar ditu. Legea denentzat berdina izan behar da, aspektu

guzietan (kuotetan, matrikulazioan...). **Aralarrek** guztiontzako eskola defendatzen du, ikasle guztiak barnean hartzen dituena. Hasierako abiapuntuan euren artean dauden diferentziak gutxitzea helburutzat hartzen duena. Inklusiboa. Aniztasunean oinarrituta segregazioari uko egiten diona. Eguneroko praktikaren gainean egindako hausnarketaz etengabeko hobekuntza bilatzen duena. Bizikidetzat eta balore demokratikoak ikur propiotzat dituena eta euskara eta euskal kultura oinarritzat hartzen dituena. Helburu horiek erdiesteko balio duten eskolak dira ardatza.

Hezkuntzaren zama guztia ezin da eskolaren gain jausi. Baina eskola ez da uharte bat, berau kokatzen den auzoan, herrian, hots, ingurune hurbilean, heziketa sarea zabaldu, konpartitu eta denen artean landu behar dugu. Horrela hezkuntza proiektu integralak osatuz. Beraz, hezkuntza proiektuak lantzeko eta garatzeko orduan ingurune hurbileko agente guztien parte-hartzea ezinbestekoa eta garrantzitsua da.

Egitasmo berriak bai, baina baliabideekin.

Hezkuntza sailetik egitasmo berriak proposatzen direnean, edo eta hezkuntza erreformak planteatzen direnean, euren ardura guztia ezin da ikastetxeen gain utzi, autonomiaren aitzakiaz. Esaterako, Hezkuntza Sailetik "liburuen mailegua" delako egitasmoa bultzatzen bada, edo eta beste egitasmoren baten betetzea ezin da ikastetxeen eskuetan utzi. Ikastetxeek ere laguntza behar dute, errekursoak behar dituzte.

Irakasleen balorizazioa eta talde formakuntza. Irakasleak gutxietsita daude. Beraiekiko errespetua gero eta kaskarragoa da gizartearen aldetik. Irakaslearen lanari eta betetzen duen funtzioari duen garrantzia emateko egitasmoekin hasi beharra dago. Irakaslearen izena eta izana garai berrietara egokituz berrasmatu beharra dago, bai bere ikasketa akademikoan inguruko hausnarketa eginez eta birmoldaketak planteatuz. Baita, etengabeko trebakuntzak indartuz, bereziki ikastetxe mailako talde trebakuntzak.

Eskola-mapa. Sare publikoa ardatz izango duen errealitatera egokitutako eskola-mapa baten beharrean gaude. Sareen arteko elkarlana bultzatuko duen eskola-mapa. Behar adina plaza publiko sortzeko oinarriak ipini behar ditu.

Hezkuntza legearen beharra. Gure hezkuntza sistema propioa diseinatzeko eta garatzeko oinarri sendoak finkatuko dituen hezkuntza lege baten premia daukagu. Gure curriculum propioaren bidez praktikara eraman behar dugu.

Ikastetxe publikoetan zuzendaritza-lanari bultzada. Euren kudeaketa ez da askotan eskatu beharreko minimoetara iristen. Zuzendarien hautaketa ikastetxearen eskuetan izateari ondo deritzogu, baina, beti ere, administrazioak bere ardura ahaztu ez badu eta eskaini beharreko prestakuntza, motibazioa eta babesa ematen badu. Ezin ditu noraezean utzi.

Irakasle guztien arteko berdintasuna/egonkortasuna. Irakasle guztiak pertsonen hezitzaileak izan behar direlako. Ikasleak, pertsonak osotasunean ulertu behar direlako irakasleak ezin dira gai partzial eta solteen irakasle gisa ulertu. Ulertu ezin dugun bezala pertsona guztien arteko berdintasuna aldarrikatzen dugun momentutik irakasleen arteko desberdintasunak irakasten duten alorraren arabera edo duten egonkortasun mailaren arabera.

Auzo eta herri normalizazio proiektuak ardatz. Etorकिन artatzea ikastetxe guztietan orekatuz. Eskola, edo eta eskolak, herrira zabalduz eta herria eskolara eta eskoletara zabalduz. Etorकिनeko herritar inplikatu eta aktiboak heziz, integrazioarako bidean, kohesio soziala da azken xedea. Bakoitzaren kulturaren eta identitatearen errespetutik abiatuz, euskararen normalkuntza bideratuz. Etorकिन artatzea sare guztietara zabalduz ardurak partekatuz eta portzentaje beretan. Udalak koordinazio-gune izanik.

Integrazioa. Aniztasunaren trataera. Interkulturalitatea ardatz izanik.

Euskara. Erabilera planak ikastetxe guztietan abiarazi, auzo eta herri proiektuen barnean. Ikastetxearen jardun hizkuntza (ez soilik ikasgelakoa), auzora, herrira zabaldu. Tokian tokiko euskalkien erabilerarako irizpideak landuz. Euskararekiko harreman afektiboa landu eta bermatu. Ikasle etorkinari

berezkoa duen kultura, hizkuntza aitortu eta errespetatuz. Atzerriko hizkuntzei duten garrantzia aitortuz, euren garapena eta ikasketa ziurtatuz.

Familia eta lan mundua uztartzeko bitarteko desberdinen garapena sustatu eta gauzatu. Familia guztiek aukera berdinak izan ditzaten: zerbitzu unibertsalak. Emakumeen eta gizonezkoen berdintasuna lortzeko urratsak emanaz. Haurtzaindegiak (0-3). Zaintza zerbitzuak. Jantokiak. Orduategien egokitzapena.

Laikotasuna. Gure hezkuntza sistemak laikoa izan behar du. Erlijioak gizabanakoaren eta familien eremu pribatukoa izan behar du, edozein kasutan ere, eta, beraz, eskola curriculumetik eta ikastorduetatik kanpo egon behar du.

Eskola txikiak herri txikiak bizirik. Euskal Herria ez delako hiri bat baizik eta herri askoz osaturiko Herri aberats eta anitza, bakoitza bere idiosinkrasiarekin, bere ezaugarri, bere kulturarekin... Euskal Herria osatuz. Umerik gabeko, ikastetxerik gabeko herriak, etorkizunik gabeko herriak direlako, Herri bat eskola bat.

Helduen eskolak sustatu eta garatu. Berdintasunean aukerak zabaltzeko helduen eskolak izan dezaketen papera funtsezkoa da, bereziki emakumeen artean. Bizitza osoan zehar trebakuntza, heziketa, funtsezkoa da. Eta horretarako erakundeetatik baliabideak eskaintzea eta bideak irekitzea garrantzitsua da.

Auzo, herri, hiri hezkuntza proiektu integralak eta euskal curriculumak

Gaur egun hezkuntzaz ari garenean pentsatu behar dugu aldaketa garai batean bizi garela: gizarte desberdin batek hezkuntza desberdina behar du. Gaur egungo informazio gizarteak beste beharrak baditu, ikasi behar du jasotzen duen informazio hori guztia, bide hain desberdinetik kudeatzen. XX. mendeko irakasleak ditugu, XXI. mendeko ikasleekin XIX. mendeko geletan sartuta.

UNESCO erakundearentzat egindako txostenean, “Hezkuntza ezkutuko altxorra da” (Delors txostena), XXI. mendeko hezkuntzaren 4 zutabe azaltzen dira: Ezagutzen ikasi, egiten ikasi, elkarbizitzen ikasi eta izaten ikasi.

Ikasleak bizitzarako eta lan mundurako prestatu behar ditugu. Bizitza osoan zehar ikasi beharra baitago.

Ezagutzaren iturri anitz badira bai esparru formaletan bai ez formaletan ere. Ez da nahiko jakintza multzo bat eskuratzea, testuinguru desberdinetan jakin behar da aplikatzen, hau da, gaitasuna lortu behar da. Benetan sinesten badugu hezkuntza zerbait gehiago dela eduki batzuk ezagutzera ematea baino, apustu eder bat egin behar dugu ikasleek derrigorrezko eskolaldia amaitzean oinarrizko gaitasunak garatuak izan ditzaten.

Adimen anitza kontzeptua zabaldu egin da, hala izanda, gure eskoletan ezin da mantendu “betiko” adimenak lantzeko prozesua. Gaitasun pertsonalak, gaitasun sozialak eta erantzukizunerako heziketa landu behar dira, gure ikasleek lor ditzaten: autoezagutza emozionala, emozioak kudeatzeko gaitasuna, nor bere burua motibatuzeko gaitasuna, besteon emozioak ulertzeko eta onartzeko gaitasuna, parte-hartzeko trebetasuna.

Lehenengo aldia da Dekretu batek Oinarrizko Hezkuntza osoa arau bakarrean biltzen duela Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza batera. Hori aurrerapauso bat da, baina Haur Hezkuntzak eskolaldi hasiera bezala agertu baino ez du egiten eta hor ematen dira lehenbiziko pausoak Oinarrizko Hezkuntzarako, beraz, hezkuntza mailan duen garrantzia eman behar zaio curriculumean ere.

Garrantzitsua da oso ikastetxeen autonomia beren hezkuntza proiektuan zehazteko zer eta nola irakatsi behar den, baina autonomia horrek eskatzen ditu beste gauza batzuk ere Hezkuntza Sailaren partetik: baliabideak, formazioa, kontrola, babesa. Autonomia ematea ezin da soilik izan erabaki zailak ikastetxearen gain uztea, adibidez, zein ikasgairi orduak eman eta zeini ez... Kalitatezko hezkuntza bermatu behar da.

Hezkuntzako lege orokorra

Aspaldi honetan askotan aipatu izan da EAEko Hezkuntza Sistema arautuko lukeen Lege Orokor baten beharra. Horrek Sare Publikoari zein Kontzertatuari (ikastolak barne) eragingo lioke eta gure hezkuntza sistema ordenatu eta arautuko luke.

- Gure ustez, Sare Publikoak izan behar du EAEko Hezkuntza Sistemaren ardatz. Beraz, Sare Publikoa subsidiario bihurtzearen kontra gaude.
- Lege horretan hezkuntza zerbitzu publiko bezala ulertzea nahi dugu. Are gehiago, beharrezko da ikastetxe kontzertatuek zerbitzu publikoaren aitortza egitea legean, hau da, zerbitzu publikoa eskaintzeko bitartekariak direla onartzea.
- Marko horretan ikastetxe publikoek eta ikastetxe kontzertatuek antzeko betebeharrak eta eskubideak izango lituzkete, sare bakoitzak kudeaketarako ezaugarri propioak izango dituelarik. Hala ere, hezkuntza eskaintzaren planifikazioa administrazio publikoaren esku egon beharko litzateke.
- Kudeaketan zenbait printzipio orokor onartu beharko lukete ikastetxe guztiek, hala nola: ikasle guztiei zabalik egotea, doakotasuna, kudeaketa demokratikoa, hizkuntza normalizazioa...
- Ikastetxeen autonomia ez da nahastu behar sare bakoitzak izan behar duenarekin. Eremu bi hauek bereiztea oso inportantea da.

0-3 zikloa. Haurreskolak

Familia eta lan mudnua uztartzeko bitarteko desberdinen garapena sustatu eta gauzatu. Familia guztiak aukera berdinarik izan ditzaten: zerbitzu unibertsalak. Emakumeen eta gizonezkoen berdintasuna lortzeko urratsak eman. **Aralarretik** ikusten dugu, eta aitortzen dugu Haurreskolak Partzuergoaren sorrerarekin eta garapenarekin urrats garrantzitsua eman dela zentzu horretan, baina bai pentsatzen dugu oraindik orain ere urratsak daudela emateko, eta Haurreskolaren izana eta kokalekua berdefinitzeko; hots, gure ustez, Haurreskolak hasteko hezkuntza sailaren menpe eta barnean kokatu beharko lirateke eta zikloa ez litzateke apurtu behar gaur egun egiten den bezala. Haurreskoletan 0-3 eskaini beharko litzateke. Izan ere, 0-3 zikloak

pertsonen heziketan oinarrietakoa da eta hori lantzea eta garapena kalitatezko izatea funtsezko dira, hurrengo etapekin lotuz eta hezkuntza proiektuan txertatuz, nahiz eta etapa horrek zaintza izaera ere eduki.

Lanbide Heziketa

Oinarrizko Hezkuntzan ezinbesteko gaitasuna bada komunikazioa, Lanbide Heziketan gure hizkuntzetan trebetasun nahiko lortzen dela bermatu behar da. Euskara bada, Euskal curriculumaren arabera, marko berri horren hizkuntza nagusia, koherentziaz, Lanbide Heziketan ere horrela jarraitu behar izanen du. Bestela, gure ekintzekin adierazten dugu euskara ez dela lan egiteko hizkuntza aproposa, bakarrik eskolako hizkuntza dela.

Delors txostenean agertzen den bezala porrota ekiditeko modu eraginkorra aukerakotasuna zabaltzea da. Bideak eman eta heziketako ateak inoiz ez itxi, formazio maila anitza eta eduki mota oso desberdinekoa eskainiz. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan bideak irekitzen joan behar da Hasierako Lanbide Prestakuntzarako programak balioetsiz, behar direnetan DBHko eta Lanbide Heziketako irakasleak elkarlana bultzatuz, ikasleei zer den Lanbide Heziketa ezagutzera emanez...

Lanbide Heziketa ertainetako mailetan sustatu egin behar da, gizartearen beharrak ongi aztertu eta gero. Eskaintza zabala behar da premia guztiei egokitzeko, prestakuntza maila nahiko emanez lanerako eta hain beharrezkoa den etengabeko formaziorako.

Goi mailako Lanbide Heziketa, Unibertsitatea eta enpresen arteko elkarlana eta ezagutzen eta beharren transferentzia bultzatu beharra dugu kalitatezko hezkuntza nahi badugu.

Lanbide Heziketako irakasleek bereziki behar dute etengabeko formazioa, berrikuntza, ikerketa eta teknologia berriei lotuta.

Ikas komunitatea. Zerbitzu desberdinak

Ikas komunitatea hainbat eragile, elkartek eta zerbitzuek osatua dago. Sare konplexua osatuz, baina gehienetan soilik ordutegi koordinaziora soilik mugatzen dena, eta batzuetan ezta hori ere. Dena komunitate baten parte, hezkuntza, auzo herri proiektu bezala ulertu beharrean, partzialki ulertzen da, pertsona, umea bat dela, bere osotasuna, integritatea ahaztuz. Horregatik aldarrikatu eta bultzatu nahi dugu eskola ordutegi barruan eta kanpoan dauden zerbitzu osagarrien berrantolaketa, koordinazioa eta hezkuntza proiektuan txertatzea. Berauek aurrera eramaterako orduan eskolarekin, irakasleekin eta gurasoekin ardurak partekatzeko, eta antolatzeko. Praktikara eramateko araudien aldaketak eta araudi berrien garatzea administrazioaren aldetik: ikastetxeetan ematen diren eskolaz kanpoko klaseak (ingelera, musika, tailer desberdinak...), zaintza zerbitzuak.

Zer esanik ez, **testu liburuak** ikas komunitatean betetzen duten paperaren garrantzia eta berorren kudeaketa eraginkorra izateko jarraitu beharreko metodologiak duen garrantzia.

Oraindik goiz da Hezkuntza Sailak onartutako testu liburuen eta material didaktikoaren kudeaketa solidario eta parekiderako programa baloratzeko, momentuz urte bat daramagu (07/08) eta soilik martxan dago Lehen Hezkuntzako lehen. zikloan. Emaitzak zeintzuk diren ikusiko dugu, hala ere, denbora izan dugu konturatzeko berriro ere betiko jokabideaz. Beharrezkoa jotzen dugun zerbait, kasu honetan liburu testuen kudeaketa, izugarrizko zama suposatzen du ikastetxe baterako mailegua ongi kudeatzea. Kudeaketa horrek laguntza jaso behar du, administrazioaren laguntza zuzena izan behar du.

Konpartitzeko filosofia printzipioz txarra ez bada ere atzetik dakarrena ez da makala. Alde batetik, parte-hartzea boluntarioa izanik ikasleen arteko diferentziak sortzen ditu eta, beste batetik, liburugintza sektoreari lagundu egin beharko litzaioke sistema horrek suposatzen duen galera orekatzeko. Hori dela eta, gure proposamena txeki bidezko sistema laguntza zuzena ezartzea da, beti ere familia kide kopurua eta berauen diru sarrerak irizpide izanik.

Unibertsitatea

Aralarrek, bere pentsamendu politikoan oinarritzen den Unibertsitate Hezkuntza Proiektua argitu nahi du, lerrootan azaltzen diren ardatzak jasotzen duen proiektuari sostengua eta indarra eskainiz.

Euskal nazioan errotua. Euskal Unibertsitate Sistemak euskal kultura indartzeko eta nazioa eraikitzeko agente aktiboa izan behar du, kultur agerpide propioak —lehengoak, oraingoak eta gerokoak— zainduz eta gizarteratuz. Euskal Unibertsitate Sistemak euskal identitatea proiektatu behar du, bertan eta mundu zabalean, naziotasuna garatuz eta mundu zabaleko sare kultural sozial eta ekonomikoetan integratuz. Errealitate administratibo desberdinen zatiketa leuntzeko Euskal Herriko (Zazpiak Bat) unibertsitateen arteko loturak tinkotzearen alde egin behar dugu.

Euskalduna. Euskara da gure hizkuntza, gaztelaniarekin eta frantsesarekin batera. Euskara lehenesten dugu eta gure euskal identitatearen ezaugarri nagusizat daukagu. Unibertsitate Sistemak, inongo hizkuntza baztertu gabe, euskara zaindu eta bultzatu behar du, erabilera aktiboaren esparrua izanik. Euskara eta unibertsitatea, unibertsitatea eta euskara elkarren beharrea daude nazio gisa hazteko. Euskara esparru guztietako komunikazio hizkuntza izan dadin lan egin behar da. Irakaskuntza eskaintzan Euskararen lehentasuna eta nagusitasuna aldarrikatzen dugu, munduko bertze hizkuntzek duten balio akademiko eta instrumentala aldi berean aitortuz. Unibertsitateetako aginteek, proiektio publiko eta eredugarri edukirik, euskara bultzatu behar dute erabiltzaile aktiboak izanik.

Anitza eta demokratikoa. Aralarrek Euskal Herriko Unibertsitate Sistemaren baitako aniztasuna aitortzen du, eta bertan gara daitezkeen proiektu desberdinen zilegitasuna aldarrikatzen. Proiektuak bideratzeko demokrazia eta gardentasuna dira halabeharrezkoak. Sistema hierarkiko zaharkitua eta presio talde uherren eragina gainditze aldera Unibertsitate desberdinen barreneko

antolamendu organoen demokratizazioa indartzeko lanarekin konprometitu behar dugu. Giza eskubideak elkarbizitzaren oinarritzat jotzen ditugu eta, era berean, indarkeria unibertsitateko izpirituaren kontrakotzat eta etsaitzat jotzen. Giza gatazkak bideratzeko metodoa demokrazian oinarritutako estrategietan datza hala unibertsitatean nola gizartean ere.

Unibertsala. Aralarrek unibertsitatearen erroak Euskal Herrian kokatzen ditu, adarrak mundu zabalera luzatuz, ezaguera zabalduz eta emanez. Ezinbestekotzat jotzen dugu Unibertsitatearen arloko eskumen guztiak geurean izatea.

Publikotasunean oinarritua. Aralarrek gizarte berdintasuna, ekitatea eta giza duintasuna sektore publiko indartsu batean oinarritzen direla sinesten eta aldarrikatzen du. Unibertsitatea zerbitzu publikotzat jotzen du eta, horrenbestez, baliabide publikoen nahikotasuna aldarrikatzen du Euskal Herriko Unibertsitate Sistemaren sostenguan. Aralarrek, publikotasunaren baitan antolamendu eredu desberdinen izatea onartu eta aldeztu du.

Integrala. Aralarrek ezagutza adar guztien arteko garrantzia eta unibertsitate berdintasuna aldeztu ditu. Euskal Unibertsitate Sistemak, bere osotasunean harturik, irakaskuntza eskaintza zabala eta integratzailea egin behar du, ezagutza-adar guztien arteko orekari eutsiz. Era berean adar guztietako irakaskuntza zein ikerketa lerroak gara eta proiektu daitezkeen zaindu behar du, sor daitezkeen merkatu-joera baztertzailak ikuskatuz eta berriazko esku-hartze berronkatzaileak eginez beti ere gizartearen interesak lehenetsiz.

Formatzailea. Unibertsitate Sistemaren helburu nagusia, ikerketarekin batera, herritarrak ongi formatzea da. Irakaskuntzaren kalitatea bermatu behar da irakasleriari formaziorako aukerak eskainiz, ingurune pedagogiko egokiak bermatuz eta praktikarako baliabide didaktiko askoak irakasleen eskuetan jarriz.

Ikertzailea. Ikerketak ematen dio unibertsitateari bere-berea duen izaera; ez dago unibertsitaterik ikerketarik gabe. Unibertsitate Sistemak baliabideak jarri behar ditu irakasleen eskuetan, baita funtzionalak ere, ikerketan jardun ahal

izateko. Ikerketak kanpoko baliabide ekonomikoak behar ditu garatzeko eta, muga etiko eta sozialak kontuan hartuz, oro har zenbat eta baliabide gehiago ekarri orduan eta hobe. Baina, hori horrela izanik, merkatuaren logikatik aparte Unibertsitate Sistemak ikerketa-politika propioak diseinatu eta garatu behar ditu, merkatuak baztertzen dituen arloetan ikerketa sustatzeko, gizartearen beharrei erantzuteko, eta, bertze alde batetik, goi mailako ikerketara ailegatzeko ahaleginetan ari diren taldeak laguntzeko.

Emaila. Euskal Unibertsitate Sistemak sortzen duen ezagutza gizarteari zor dio. Bildutako jakintza eta jakintza berria gizarteratu behar da eta gizartearen beharrei erantzun behar die, zekenkeriarik edo berekoikeriarik gabe. Euskal Unibertsitate Sistemak bere baitako komunitatetik ezagutza gizarteratzeko sor daitezkeen ekimenak eta tresnak (aldizkari elektronikoak, eztabaida edo mintzaldi gelak, paperezko orriak, e.a.) bultzatu eta lagundu behar ditu ekarpen berriei bideak eskainiz eta, aldi berean, inguruko gizarteari unibertsitate hurbiltzeko guneak jarriz. Unibertsitate Sistemak ezagutzaren transferentziarako sare propioa eratu behar du eta egun dituen tresnak indartu behar ditu. Unibertsitateak modu aktiboaz eta zuzenaz hurbildu behar dira herritarrengana eta langileengana, beren ezagutza enpresa munduan zein gizarteko beste edozein esparrutara zabaltzeko.

Ezagutzaren demokratizazioaren bultzatzailea. Ezagutza zientifikoa gizateria osoaren ondarea da. Subjektu guztiek daukate ezagutza zientifikora iristeko eta hartaz baliatzeko eskubidea. Euskal Unibertsitate Sistemak, ezagutzaren erabilpen partikularra eta partziala gaitzetsi behar du eta erabilpen demokratikoa bermatzeko tresnak eraiki behar ditu.

Dialektikoa. Euskal Herriko Unibertsitate Sistemak eragile aktiboa izan behar du Euskal Herriak dituen arazoaren konponbidean. Indarkeria, ingurumenaren zainketa, ongizatea, zerbitzu publikoen kalitatea, hiritarren formazioa, elkartasuna, berradiskidetzea,... giza ekintza esparruetan dauden galdera eta erronkei erantzuteko agente dinamizatzailea izateko lidergoa, bere egin behar du. Unibertsitateek, eztabaida gune irekiak, anitzak, herrikoiak eta eraikitzaileak izan behar dute.

Inklusiboa. Euskal Unibertsitate Sistemak inklusio kulturaz blai egin behar ditu bere jardunbide guztiak. Inklusiboa izan behar du bere barne komunitatearentzat, eta inklusiboa izan behar du bere baitara etorri nahi dutenentzat. Aukera berdintasuna sustatu behar da, unibertsitatearen ekimenetan abiapuntu desberdinak badaudela aintzat hartuz eta bakoitzaren garapen-esparru propioari errekonozimendua aitortuz.

Gizatasunezko Meritu Sistemaren oinarritua. Aralarrek ontzat jotzen du norberaren zein erakunde merituak aintzat hartzea antolamendu ereduetan, giza aurrerakuntza indartzeko eta bultzatzeko. Baina merituak ebaluatzeko irizpideak eztabaidagaitzat jotzen ditu eta, aldi berean, oso kritikoa agertzen da egun meritutzat jotzen diren irizpide merkantilista hutsalekin. Produkzio zientifikoan oinarritutako irizpideaz ez ezik izaera soziala dituzten irizpideak aintzat hartu behar dira, gizatasunean oinarritutako meritu sistema eraikitzeko.

Elkartasuna eta kooperazioa. Euskal Unibertsitate Sistemak laguntasun sare propioa sortu eta bultzatu behar du Ezagutzaren Demokratizazioa mundu osoan zabaldu dadin laguntzeko.

Eusgarritasuna. Euskal Unibertsitate Sistemak Eusgarritasuna eta Ekologia balore propioetat barneratu behar ditu eta bere jardunbide guztien gidaritzan zein garapenean izan behar dute.

Politika zientifikoa

Euskal Herria oro har, eta EAE bereziki, ez da aberastasun natural eta lehengai ugari dituen lurraldea. Hortaz, gizartearen ongizatea bermatzeko jarduerak ekonomikoak beste oinarri batzuk izan behar ditu eta horiek gurean sektore industrial eta zerbitzu-sektore sendoak izatean gauzatzen dira. Alabaina, bizi garen mundu globalizatuan industria- zein zerbitzu-sektoreak sendoak izateak jakintza eta berrikuntza muinean txertatuta dituen gizartearen antolatzea eskatzen du. Beraz, I+G+B jarduerak sendo sustatuko dituen politikoa zientifikoa garatu beharra dago. Halaber euskal gizartearen berrikuntzaren balioetan hezi behar da.

Aralarrek sustatuko duen politika zientifikoa gizartearen parte-hartzea izango du funtsean, politika horien ezarrera eta garapena ezin delako soil-soilik ordezkari politikoen eta alorreko agenteen ardura izan. Dena dela, **Aralarrek** politika zientifikoaren alorrean proposamen propioak ditu gizartearen aurrean jartzen dituenak.

Bestetik, **Aralarrek** alor militarrean egiten diren I+G+Bko jarduerak alde batera uztearen alde lan egingo du. EAEko enpresak, ikerketa-zentroak eta unibertsitatea teknologia militarra garatzeko lanak ez egitea defendatzen du, mezu antimilitarista arlo guztietan aplikatu behar baita.

Proposamen zehatzak

- **Enpresa-inbertsioa emendatzea.** I+G+B alorreko inbertsioan *Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza 2010 Planak* jasotzen duen BPGarekiko jarritako helburua betetzetik urrun gaude oraindik, hots, horretarako BPGaren %2,15 baliatzetik. Helburu hori lortzeko, batetik, enpresek inbertsioak emenda dezaten sustatu behar da eta, bestetik, inbertsio publikoak igoera nabarmena izan behar du.
- **Inbertsio publikoaren gehitzea.** Inbertsio publikoa I+G+B alorrean egiten den inbertsioaren herena da gaur egun. Inbertsio publikoaren pisua handiagoa izan behar da eta legealdiaren bukaeran %42ra iritsi beharko da. Eusko Jaurlaritzak eginiko inbertsio gehigarria bereziki unibertsitate publikoan egiten den oinarritzko ikerketa bultzatzera bideratu behar da.
- **I+G+B alorreko transferentziaren diru-esleipena kopuru errealetara eraman.** I+G+B alorrean eskumenaren transferentzia lortu berri da, baina horri esleitu zaion diru-kopurua, —86,5 milioi euro hain justu— txikiegia da, ez delako kontuan hartu Estatuak egiten duen inbertsio osoa. Hortaz, I+G+B alorreko transferentziaren diru-esleipena kopuru errealetara eraman behar da, hots, 480 milioi euro/urte.
- **Enpresa-sareak I+G+B inbertsioak handitzea.** Enpresa-sareak I+G+B inbertsioak handi ditzan neurriak bultzatu, hobari fiskalak barne, beren ekarpena BPGaren %1,25ekoa izan dadin. Enpresa txiki eta ertainak ahalegin horren protagonista izan daitezen bultzatuko da.

- **Innobasque eraldatu.** Innobasque antolatu da, EAEko gizartean berrikuntzaren kultura errotzeko erreminta moduan eta gure herria mundu mailako erreferente bihurtzeko dadin lagun dezan helburuarekin. Helburuarekin bat etorrira ere, gaur arte goitik behera antolatu den ekimena izan da Innobasque. Nolabait, erakunde publikoetatik, Lehendakaria bera buruan, bultzatu eta sustatu da. Errealitate horri kamutsa deritzogu eta Innobasquek behetik gorako arnasa ere behar du, hots gizartetik bertatik sortuko dena. Hori horrela izan dadin, Innobasqueren eraldaketa burutzea proposatzen du **Aralarrek**.
- **Oinarrizko ikerketa bultzatu eta sendotu.** EAEren I+G sisteman ikerketa aplikatuak eta garapen teknologikoak duten pisu erlatiboa handiegia da. Oinarrizko ikerketa bultzatu eta sendotu beharra dago. Batetik, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailak oinarrizko ikerketa finantzatzeko baliatzen dituen diru-funtsak 2,5 bider handituko dira. Funts horiek nagusiki EHUren ikerketa-jarduera finantzatzera bideratuko dira.
- **Ikerketa-zentro publikoen sarea zabaltu.** 1980ko hamarkadan zentro teknologikoak sortu ziren eta gure zientzia- eta teknologia-sistemaren oinarri eraginkorra osatzen dute. XXI. mendearen hasierarekin, Donostiako DIPC eta Leioako Biofisika unitatea sortu ziren oinarrizko ikerketa helburu. Orain da garaia oinarrizko ikerketa burutuko dituzten ikerketa-zentro publikoen sarea handitzeko eta egituratzeko. Bikaintasunezko Oinarrizko Ikerketa Zentroen sarea (BERC) hedatu eta sendotu behar da. Horretarako unibertsitate publikoarekiko elkarlana ezinbestekoa ikusten dugu.
- **Espalazio bidezko Neutroi-iturriari ez.** Zamudioko parke teknologikoan kokatzeko hainbat erakunde publikoetatik bultzatzen ari den Espalazio bidezko Neutroi-iturriaren ekimena ez da egokia une honetan EAEko zientzia- eta teknologia-sistema sendotzeko eta indartzeko, gure sistema ez dagoelako presatuta eta ez duelako masa zientifiko kritiko nahikoa horrelako azpiegitura bati eusteko. Hori dela eta, **Aralarrek** ez du babestuko Zamudioko Espalazio bidezko Neutroi-iturriaren hautagaitza Europako erakundeen aurrean.

- **Hizkuntzaren Industriaren alorrean erreferente.** EAEko gizartea eleanitza izateak aukera paregabea da Hizkuntzaren Industria sendo bat antolatzeko, jada oinarriak baitauzkagu. Europa eta Ipar Ameriketako estatu batzuek apustu sendoa egin dute Hizkuntzaren Industriaren alorrean erreferente izateko beraien jarduera ekonomikoaren zutabeetako bat bezala. EAE neurriak hartu eta urratsak egin behar dira mundu mailan Hizkuntzaren Industriaren alorrean erreferente izateko eta horretarako beharrezkoa izango da, gutxien-gutxienik, alor horretako I+G+B jarduerak burutuko dituen bikaintasunezko zentro bat antolatzea.
- **CIC-Energiagune zentroa sortzea.** Energia eolikoaren alorrean erreferente dira munduan euskal enpresak. Ondorioz know-how teknologiko adierazgarria pilatu da enpresa horietan. Hori probestuz EAE energia alternatiboen alorrean, bereziki itsasoaren energiaren ustiapenean, erreferente bilatzeko urratsak egitea zentzuzkoa dirudi. Energia berriztagarrien alorrean bikaintasunezko I+G jarduerak burutuko duen CIC-Energiagune izeneko zentroaren sorrera beharrezkoa ikusten dugu.
- **Euskal gizartea zientifikoki alfabetatua.** EAEko gizarteak bere egin eta babes ditzan ikerketa zientifiko-teknologikoaren alorrean egiten diren inbertsioak eta berrikuntzaren kulturarekin bat egin dezan, ezinbestekoa da alor horietan egiten diren jardueraz ahalik eta informaziorik zehatzena eta egokiena izan dezan. Ondorioz, kultura zientifiko-teknologikoaren eta euskal zientzia- eta teknologia-sistemaren lorpenak gizarteratzen egiten den ahalegina indartu egin behar da, euskal gizartea zientifikoki alfabetatua izan dadin helburua izanik.
- **Ikasketa zientifikoak egitea bultzatu.** Nekez indartuko da I+G+B sistema bat gai ez bada sistema horrek dituen pertsona kualifikatuen beharra asetzeko gaitasunik ez badu. Oso kezkatzekoa da gazteen artean EAE alor zientifikoan dagoen bokazio zientifikoaren kantitate urria, unibertsitate-ikasketetan zientzia-alorreko matrikulazioak erakusten duenez. Ez gaitu lasaitu behar jakiteak fenomeno hori Europa mailakoa dela. Ahalegin berezia egin behar da berriazko programak abian jarrita eskola neska-mutilak ikasketa zientifikoak egitea bultzatzeko.

- **Politika zientifikoan parte-hartza sustatu.** Gizarteak politika zientifikoak eztabaidatzeko aukerak izatea osasun demokratiko onaren seinale izateaz gain, zientzia- eta teknologia-sistemari berari mesede egiten dio, zilegitasuna ematen dio. Horretarako, bestek beste, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Kontseiluaren izaera eta osaera birformulatu behar da gizarteak eta bere agenteek ere toki egokia izan dezaten bertan eta politika zientifikoaren diseinuan, jarraipenean eta ebaluazioan parte hartu ahal izan dezaten.

Gazteria

Aralarrek gazteek planteatzen dituzten beharrak asetzea bilatzen duten politikak babestuko ditu, politika parte-hartzaileak bultzatuaz. Gazteak parte-hartzaile izan behar du, eta ez erabiltzaile soila.

Helburu nagusiak

- Gazteari gizarte-erlaketari buruz eztabaidatzeko eta ekarpenak egiteko aukera eman.
- Gazteari aktibo kulturala izateko aukera eskaini
- Gaztea, etxebizitza politika eta lan politiken bitartez, emantzipazio prozesua bermatu.
- Aukera berdintasunaren alde lan egin.
- Gazteriak garapen jasagarria bere egitea.

Lan merkatuaren exigentziek, lan baldintza prekarioak, etxebizitzaren salneurria eta formazio iraunkorra emantzipazioaren batz bestekoa igotzen nekez lagunduko duten aldagaiak dira (Europako Batasuneko altuenetarikoa den batz bestekoa).

Etorkizuneko gazteri politikentzako legealdi garrantzitsua.

Datozen urteak gazteri politiken garapenerako erabakigarriak izango dira.

Argi izan behar da Gazteri Legea ez dela gazteriaren kontrolerako tresna bat, eta inolaz ere ez dugula gazteen parte-hartzea mugatuko duen legerik onartuko. Hauexek dira edozein gazteri-politikaren oinarri nagusiak:

- **Unibertsalitatea:** Gazteri politika gazte ororentzat zuzendua izan behar du. Inor ez da baztertuko, ez arraza, ez sexu, ez jaioterri, ez egoera zibil, ez adin, ez ideologia, ez sinesmen, ez sexu orientazio, ez bestelako izaera edo egoera pertsonal edo sozialengatik inor baztertuko. Hala ere, gazteri politika diskriminazio positiboarekin bateragarria izango da.
- **Bertakoa eta hurbilekoa:** EAEko gazteentzat eta gazte eragileentzat sortua eta eurek diseinatu behar du izan. Herrialde bakoitzean aplikatuko diren politikak hobetzarren, haien diseinua eta zuzenketen ezarpena tokiko erabaki guneetan, gazteengandik gertu egon behar du.
- **Berdintasunerako aukerak:** Gazteri politika berdintasunerako aukera politika gisa ulertu behar da, zeinaren bitartez norbanakoaren bizi proiektua osatzeko abiapuntu berak sortzen dituen desberdintasunak gainditzeko ahalmena eskainiko duen. Emakume gazteen aldeko politikak, gaztean artean matxismo estrukturala eta bere ondorioekin (indarkeria, desberdintasun soziala) amaitzeko.
- **Esperimentazioa eta berrikuntza.** Gazteri politikak eraikitzeko oinarriak: berrikuntza konstantea, giza heziketa, esperimentazioa eta negoziaketa dira.
- **Aniztasuna:** Aukera berdintasuna bermatu nahi izanez gero, aintzakotzat hartu behar da gazteriaren espektro zabala eta ondorioz bertan aurkitzen den aniztasuna eta aukera ezberdinen arteko desoreka sexuari, arrazari, egoera fisiko edo psikikoari eta egoera sozial eta kulturalari dagokionez.

- **Parte-hartzea:** Guztion artean parte-hartze kultura eraiki beharra dugu eta gazteak erabakitze gune eta prozesuetan partaide bihurtu beharko lirateke. Horretarako gazteria subjektu politikotzat hartu behar da eta eskubide horiek bermatuko dituzten tresnak ezarri behar dira.
- **Erantzukizun partekatua:** gai publikoetan, erabaki ahalmena eta kudeaketarako aukerak eskaini behar dira. Ekintzetan erantzukizuna partekatu beharra dago. Gazteek gazteri politikan parte hartu behar dute, bai ekintzetan parte hartuz eta baita politika beraren diseinurako administrazioarekin burutzen diren elkarrizketa eta eztabaidetan parte hartuz.
- **Jasangarria:** gazteek garapen jasangarria helburu duten ekintzetan eta partaide izatea bideratu behar da. Bide batez, gazteri mailako ekintzak eta instalakuntzak agenda 21ean txertatu beharko lirateke.

Azken urtetako politikak aztertuz gero, gazteengandik gero eta urrunago dauden politikak bultzatu direla ikus daiteke. Gazteek beraien askatasuna mugatua dagoela sentitzen dute eta beraiei eragiten dieten erabakiak parte-hartzerik ez duten esparrutan hartzen direla sentitzen dute. Gaztea, beste edonor bezala, izaki soziala da eta ondorioz bere eskubide eta eginbeharren jabe izan behar du.

Jarraibideak

- Gazteria **zehar-lerro gisa landu** beharra dago. Gazteriaren Behatokia proposatuko du **Aralarrek**, dauden gazte eragileekin batera. Gazteen beharren azterketa iraunkorrak larritasunez non eragin behar den azalduko digu. Etxebizitza duina eta lan iraunkorra, lortzerik ez dagoen amets bihurtu da gazteriarentzat. Beraz, argi dago administrazioari beste esparruetan ez bada eragiten, nekez sortuko direla behar bezalako aldaketak.

- **Etxebizitza:** Gazteentzako alokairu soziala bermatu. Babeseko etxebizitza izateko eskubide bermatuko duen ehuneko bat gazteentzat gorde beharko litzateke legealdiaren lehenengo urteetan. Etxe hutsen mobilizazio eraginkorra eta alokatzeko prezio mugatuak ezartzearen aldekoa da **Aralar**. Okupazioaren despenalizazioa bultzatuko du **Aralarrek**.
- **Lan esparrua:** Gazteak laneratzen lagunduko dituzten politikak eta formazio iraunkorra bultzatu behar dira. Lan ezegonkortasunari aurre egingo dituzten politikak bultzatu behar dira. Arlo pribatuan, euskal botere publikoen presentzia handitu, gazteei dagozkien eskubideak enpresariak errespetatu dituzten. Langile gazteak babesteko, isun sistema bat proposatuko du **Aralarrek**. Erakunde publikoetan, administratibotik soldata mailan bidezko ratioak dituzten enpresen alde eginez gero, irabazien bidezko banaketara hurbilduko ginateke eta perfil baxuko langileei lagunduko lieke. Sindikalizazio eskubidea gazteen artean zabaltzeko eta bermatzeko. Euskal lan esparrua bultzatuko du **Aralarrek**.
- **Kultura:** Gazteriarentzat aurrekontu parte-hartzaileak bideratu behar dira. Kultura eta Gazteri teknikariak eta elkarte eta gazte asanbladak elkarrekin lan egin beharko lukete eta bai kultura eta bai gazteriko partidaren zati bat modu parte-hartzailean erabaki beharko litzateke. Kultura kalera ateratzearen aldeko apustua eginez, kulturak herriei eta hiriei bizitza ematen dielako.
- **Garraioa:** Eguneko nahiz gaueko garraio publikoaren maiztasuna gehitu beharra dago. Gazteria, mugikortasun mailan, mugatua dago eta arazo hau gainditzeko bide egokiena garraio-sare eraginkor eta sozial bat da. EAEko garraio guztientzako gazte txartela bultzatuko du **Aralarrek**, 30 urte arte %40tik gorako prezio murrizketarekin. Garraio publikoa eta gau osoko zerbitzuak.

- **Hezkuntza:** Hezkuntza publiko ez baztertzaille baten aldeko apustua burutu eta aukera berdintasunaren alde jokatu. Bolognako prozesuak, unibertsitatean, eskaera sozial zabalena eta irteera gehien dituzten ikasketak unibertsitate pribatuetan egitea ekartzen du eta, ondorioz, gutxi batzuen esku egotea. Bologna prozesua gelditzea proposatuko du **Aralarrek**, eta benetako elkarlana beste Europako unibertsitateekin bultzatuko du.
- **Ongizatea eta osasuna:** Gazte aholkularitza eta formazio politikak drogo-menpekotasunei dagokionez, politika egokiak dira eta ahal den heinean areagotu behar dira. Kontsumo zabala eta maila askotan normalizatua da (marihuana, kostoa eta droga legalen kasua adibide), gainera, maila legaleko drogak gehituz gero (tabakoa eta alkohola), ia gehiengoak kontsumitu edo kontsumitzen du drogaren bat. Hauen legalizazioa ez den osasun kontzeptuetan oinarritzen, baizik eta kontzeptu ekonomikoetan. Droga guztien despenalizazioa bultzatuko du **Aralarrek**, hori bai, behar bezalako orientazio eta formazio politikak aplikatuz. Honen harira, droga trafiko ilegalaren aurkako politika irmoa egitea bultzatuko du. Norbanakoaren osasunari baino ez dionean eragiten, kontsumo arduratsuak norbanakoaren erabakia beharko luke.
- **Genero eta sexu eskubideak:** Sexualitatea beharra eta eskubidea da. Egunerokotasunean sexualitateak berebiziko garrantzia hartzen du. Horregatik, sexu orientazio guztiak askatasunez bizitzea bermatuko duten politikak bultzatuko ditu **Aralarrek**. Gazteen artean genero eta sexu orientazio guztiei buruzko informazioa zabalduko du **Aralarrek**, eta gazte transexualen eskubideak bermatuko ditu.
- **Osasuna:** Bizitza osasuntsua izateko eskubidea defendatuz, HIESA eta beste gaixotasunei erantzun

integralak eman, Osakidetzaren bidez. Orientazioa eta prebentzioa.

- **Emakume gazteak:** Ustezko aurrerapenak egon diren arren, emakume gazteak ondo bizitzeko aukerak gutxiago dituzte gizon gazteak baino, estatistika guztien arabera. Edozein ekintzetan (bai gazteri, bai beste edozein arlo) genero berdintasun mailako politikak, emakumeen eskubideak errespetatzera behartuko dituztenak. Indarkeria matxistaren aurkako erantzun integrala, matxismoaren deslegitimizazioa gazteen artean. Abortuaren despenalizazio osoa EAEn, Estatuari desobedientzia zibila eginez.
 - **Kirola:** Aukera osasuntsu eta atsegin gisa, Gazterian kirola sustatzen jarraitu behar da. Horretarako, kiroldegi eta kirola egiteko aukera publikoak egon behar dira, dauden baliabideak koordinatuz. 30 urte arteko gazteentzat kirol txartela proposatuko du **Aralarrek** EAE osoan, %40tik gorako deskontua eginez.
 - **Eskubide politiko-sozialak:** Parte-hartze politika eraginkorrak, gazte eragileekin batera. Gazte elkarteak bultzatu eta elkartegintza zabaldu. Gazteen auto-antolakuntza errespetatu, eta gaztetxeen zein beste esperientziei desalozatzeko garantiak ordeztatu babesa eman. Ekintza politika eta zibilarako askatasun osoa. Euskal preso gazteen eskubideak defendatu, zein euren lagun eta familiei dagozkienak.
- Administrazioaren berregituraketa gizartearen eskariei behar bezalako erantzun eraginkorrak eskaintzeko. Aipatu moduan, lege honen bitartez egitura hori lortu beharra dago. Bestalde, ematen ari diren gizarte eraldaketak kontuan hartzen baditugu, dagoeneko erabiltzen ditugun figurak eta kontzeptu berriak berraztertu beharra dago eta burutzen diren politika ezberdinetan txertatu.

Kultura

Balentziaga eta Guggenheim museoen iruzurrak izan dira legegintzaldian kultura politikaren alderik ilunenak. Kultura eredu agortu baten ikur bihurtu dira. Ikuskizun handi, jaialdi erraldoi, itzelezko azpiegiturak, eta horiek guztiak kudeatzeko fundazio, enpresa publiko, gestio pribatua. Ereduak huts egin du. Eta ereduaren huts egite horrekin batera, Kulturaren Euskal Planaren legegintzaldia izan da. Kultur arloa ordenatzera etorri da. Horrenbestean, beharrezkoa. Baina ekarpen berritzaile gutxi. Gogoetak bai, baina ekimen gutxi, eta ausardiarik gabeak. Eta batez ere, agortutako eredu horren bidetik jarraitzeko asmoa: herri mugimendua, sortzaileak, artistak... alde batera uzten dituen eredia, kultur elite baten alde. Euskal Kulturaren Plana (Euskal Herri osorako, eta euskarazko kulturarena) behar zuena, Kulturaren Euskal Planean geratu da.

Herri izaera garatzeko eta indartzeko prozesuan, ezinbestekoa da kultura sendoa edukitzea. Euskal kulturak, euskararen kulturak, mugarri bereziak ditu. Mendetan zehar transmititutako kultur adierazpenak egungo kulturara egokitzen jakin izan du. Ezin ukatukoa da kultur arloan konpententzia osoa izateak ahalbidetu duela ere euskal kulturaren garapena azken 30 urteotan. Baina era berean, aukera paregabea galdu da kultura arloan aurrerapauso nabarmenak emateko. Eusko Jaurlaritzarentzat kultura ez da ildo estrategikoa. Ez soilik nazioaren zein hizkuntzaren garapenean; herritarren, pertsonen garapenean ere duen garrantzia ez da aintzat hartu izan.

Kultura politiken garapenak herri osoaren garapenari loturik agertu behar du. Eta gainerako arloetan planteatzen dugun modu berean, kultura arloan ere ezinbestekoa da eredu horizontalago batera jotzea, zeharlerroko politika gehiago landuz. Eredu guztiz kontserbadorea jorratu du azken urteotan Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak. Ausardia falta erabat nabarmena da. Plangintzetan planteamendu berritzaileen beharra ezinbestekoa da. Kultura planifikazioak ingurugiroaren analogia behar du izan, alegia, kultura politiken garapena garapen orokorrari loturik agertu behar da: kultur garapen jasangarria. Egungo

administrazioetan zereginak arloka banatu dira (lurralde antolamendua, ingurumena, kultura, hezkuntza, kirola, turismoa...), eta gehienetan lotura handirik gabe egiten da lan. Kultura pertsonen garapen intelektualari erabat loturik dagoen neurrian, arlo horiek guztiak elkarloturik agertu beharko lirateke, kulturaren bidez.

Kulturak parte-hartzea sustatzeko, sarean lan egiteko, gure gizarteko arazoei aurre egiteko beste begirada bat emateko parada ezin hobea eskaintzen digu. Baina administrazioak, eta Eusko Jaurlaritzak nabarmen, kultura eredu elitista baten alde egin du. Ikusi besterik ez dago ikuskizunen kulturak plangintzetan hartu duen lekua (zinemaldia, jazzaldia, Guggenheim, Balentziaga, Euskadiko Orkestra Sinfonikoa...), eta sormenera, herritarrek euren kultur kreatibitatea lantzerantz eta sustatzera bideratzen den ahalegin eskasa. Eta herri mugimenduak sustatutako kulturak azken urteotan errekonozimendu handixeagoa izan badu ere, txikiegia da honi ematen zaion garrantzia, aurrekontuetan bezala, plangintzetan. Jaialdi distiratsuek, proiektu erraldoiek, sustapen handien erraztasunetik urrun bizi da herri ekimeneko kulturgintza. Eta kultura zerbait bada, herrigintza da.

Ingurumen arloan agenda 21eko proiektuak abian jarri diren modu berean, kultur arloan ere Kulturaren Agenda 21 egitasmoak sustatu behar dira. Kultura ez baita gauza monolitikoa, bakarra. Kultura aniztasuna onartu ez ezik, aldarrikatu egin behar da. Indarrean dagoen mundializazio prozesua estandarizatzailea eta baztertzaileri aurre egiteko neurriak behar ditu edozein kultura propioak. Eta are gehiago geurea bezalako kultura txiki eta txikiagotu batek.

Kultura politiketan sormen artistikoaren, ikuskarien, kultura industrien, sustapenaren arteko oreka bilatu behar da, baina sormenak izan behar du ardatza, abiapuntua. Geure artistak, sortzaileak, musikariak, idazleak, bertsolariak, dantzariak, margolariak, eskulturgileak... mimatu behar dira, horien formazioa, garapena, sustapena eta proiektzioa zein nazioartekotzea bermatzeko programa zehatzak garatuz.

Izan ere, kultur sormena guztiz ahaztua dago instituzioengandik, eta baita Jaurlaritzako Kultura Sailarengandik ere. Ez dago kultura sortzeko ez espaziorik; ez politika, programa zein plangintzarik; ez sortutakoaren sareratze, zabalkunde zein promoziorik. Ospea lortu duten izarrek izan ezik, ez hasiberriek, ez punta-puntako artista ez direnek, ez dute inolako erraztasunik euren lana garatzeko, erakusteko eta zabaltzeko.

Kultura ondareari ere bere garrantzia eman behar zaio. Museo-politika gehiegi landu izan da, eta hortaz, ezinbestekoa da bestelako ahaleginak egitea ondarearen arloan: indusketa arkeologikoak bultzatu; ondare inmateriala ikertu eta zabaltzeko; memoria historikoan sakondu; artxibo, agiritegi eta liburutegien digitalizazioan sakondu; industria ondarearen ikerketa, berreskuratzea eta balorizazioa landu...

Kultura gizarte bazterketa gainditzeko tresna gisa erabili beharko litzateke, nortasun kolektiboaren osaketarako baliabide gisa. Eta honetan guztian, dimentsio digitalaren gizarteratzean eta hauen sarbidearen garapenean kultura lagungarria izan daiteke.

Kultur arloan aldaketa sakonak behar dira honako eremuetan:

Azpiegiturak

Azpiegitura erraldoien loraldia bizi izan dugu azken urteotan. Ikono bihurtu dira eraikinak, eta alderdi arkitektonikoari ematen zaio garrantzia, edukiei baino. Izaera sinbolikoa eta monumentala ematen zaie egungo kultura azpiegiturei. Hirietako ikono berriak bihurtu dira. Kultura ikuskari moduan saltzen zaigu. Irauli egin behar da egoera, errotik aldatu. Azpiegiturak herritarren zerbitzura jarri behar dira, kultura sortzeko gune bihurtu, herrien dinamizatzailerak, gizartea astintzeko guneak. Sormenak baino ez du bermatzen herritarrengan benetako eragina izatea. Kulturguneek herritar guztien eskura egon behar dute, eta ez elite bakar batzuen eskura. Eta horretarako, ezinbestekoa da azpiegitura guztiek beren plangintza zehatza edukitzea, informazioan, esperimentazioan, ikerketan, erakusketan eta kontsumoan oinarrituak.

Kultura ekonomiaren motore

Oraindik orain ez zaio kulturari aitortzen ekonomian duen pisua eta eragina. Krisi garaiotan, inoiz baino gehiago aitortu behar zaio kulturari enpleguak sortzeko ahalmena, ekonomia bultzatzekoa. Bistakoena turismoan duen eragina bada ere, bestelako arlo askotan ere kultura ekonomiaren garapenaren sinonimo da. Horregatik, ezinbestekoa da kulturean inbertitzen duten enpresa zein norbanakoei pizgarri fiskalak ezartzea, zein interes baxuko kredituak eskaintzea, kulturaren garapena bermatzeko. Kultura industrien plangintza garatu behar du Eusko Jaurlaritzak, sektorearekin koordinaturik. Kultur sortzaile, artista eta kudeatzaileei fiskalitate berezia jarri behar zaie, artisten kotizazio egunak gainerako langileenekin parekatuz.

Publiko berrien lortzea

Kultura kontsumoa ohiturekin erabat lotua dago. Baina Jaurlaritzak ez du kultura kontsumoa sustatzeko plangintzarik, ez hezkuntza arautuan, ez gazteen artean, ez gainerako sektore eta gizarte taldeen artean ere. Ezinbestekoa da publiko berriak lortzeko sustapena lantzea, bereziki euskal kultur produktuena (euskarazko liburu, disko, ikusentzunezko, kultura digitaleko produktuen promozioa; antzez arteen, arte plastikoen ezagutza...). Kultur ohiturak haurtzaroan lantzen hasi behar dira. Eskola eta kulturguneen arteko loturak sakontzeko egitasmoak jorratu behar dira. Herrietako kultur eragileekin elkarlanean kultura zirkuituak abian jarri behar dira.

Euskal kultura euskal herriratzea

Euskal Kultura ez da soilik EAEko patrimonioa. Hain zuzen ere, izaera kulturaleko herri bat gara, eta kulturak izan behar du –historikoki izan den bezala- euskal herrien loturarako tresna. Ipar Euskal Herrian zein Nafarroan euskarazko kulturak bizi duten egoera ahula aintzat hartuta (agintari politikoen utzikeria, ankerkeria eta gorrotoaren ondorio, nagusiki), Jaurlaritzak bermatu eta babestu behar du euskal kulturaren garapena zazpi herrialdeetan. Horretarako, baina, ezinbestekoa da “Kulturaren Euskal Plana” “Euskal Kulturaren Plana” bihurtzea. Eta honetan ere, ezinbestekoa da ausardia gehiagoz jokatzeko.

Nazioartekotzea

Etxepare Institutua euskal kultura nazioartekotzera omen dator. Baina ez dugu ezagutzen bere egitasmorik, ez nola jorratuko duen nazioartekotze hori. Gaur egun arte, gure mugetatik kanpo jardun duten artistek (kantariak, idazleak, aktoreak, pintoreak...) bakarka jardun behar izan dute, apenas laguntzarik gabe. Euskal kulturak munduan tokia baduela erakutsi behar da. Artistei beren aukera eskaini behar zaie. Horrek berak prestigioa emanen dio euskal kulturari, gure mugetatik kanpo ez ezik, Euskal Herrian bertan ere, eta hau premiazkoa da.

Laburbilduz, hauek dira landu beharreko arloak:

- Irakurketa eta literaturaren sustapena
- Kulturaren izaera publikoa eta kolektiboa bultzatzea
- Hezkuntzaren eta kulturaren arteko politika komunak ezartzea
- Ondarea babestea, zaintzea, berreskuratzea eta herritaratzea
- Egile eskubideen birformulazioa eta horien kudeaketaren sistemen errotiko aldaketa
- Hedabideak eta kultur jarduna euskalduntzeko neurriak, bazterketa positibokoak
- Euskal Herrian egoitza duten hedabideen lege-araubidea programatu (talde horren barruan, zinemak eta film-banatzaileak daude)
- Euskarazko sortzaile eta ekoizleei diruz lagundu; ekoizpen eta kontsumo arloetan inbertsio publiko egokia egingo dela bermatuz; ikusentzunezkoen eskolak sustatuz; ekoizpen-areto publikoak eraikiz; arlo teknologikoko transferentziak sustatuz eta Internet bidezko ekoizpena bultzatuz
- Euskaraz sortutako produktuak edo euskal kultur ekoizpenekoak direnak sustatzea; haien aldeko erakunde-kanpainak eginez.
- Kultur aniztasunetik abiatutako kultur plangintza, globalizazio prozesuetan hain tipikoak diren estandarizazioari eta banalizazioari aurre egiteko.

- Euskal kulturaren plangintza benetako euskal plangintza izan dadin neurriak hartzea, Iparraldeko eta Nafarroako sortzaileak eta eragileak bere baitan hartuz
- Nazio mailako proiektu estrategikoa garatu: Euskal Herriko Nazio Biblioteka; Etxepare institutua definitu eta edukiz hornitu; Euskal Herriko balleta bultzatu; zinemagintzarako oinarrizko azpiegitura eta egitasmoak bideratzeko bitartekoak jarri; antzerki areto eta kulturetxe sarea; autore eta artisten egile eskubideak bideratzeko euskal agentzia sortu
- Kultur ondarea zaindu, interpretatu eta hedatu; hauen artean dira ondasun higiezinak eta higikorrak, eta ukigarriak eta ukiezinak
- Biblioteka sarea indartu eta irakurzaletasuna sustatzeko kanpainak egin. Euskal literatura zabaltzeko programak, hedapen, sustapen eta itzulpen politiken bidez
- Kultura industria sustatzeko neurri eraginkorrak
- EITB ente publikoa indartu. Edukien kontrol eta gestio publikoa, kultur industria zabaltzeko tresna eragingarria bihur dadin
- Kanpaina iraunkorrak audientzia erakartzeko euskarazko produkzioetara, eta bere leialtasunari eusteko
- Ezagutza zientifikoa eta teknikoa bermatu eta honen herri dibulgazioa sustatu
- Teknologia berriak jende guztiaren eskura egon daitezzen bideak jarri.
- Ezintasunen bat duten pertsonen kulturako ateak zabalik izan ditzaten bitartekoak jarri
- Artxibo eta ondare dokumentalaren plana garatu
- Memoria historikoaren institutuaren sorkuntza

Kultura digitala

Jendartea erakundeen aurretik doa gai honetan. Software librearen erabilera etenik gabe gora doan honetan erakundeek muzin egiten diote errealitate honi. Euskaraz jarduteko aukera edozein leihatilla publikotako eskatzen dugun moduan eskatzen dugu software librea erabilita edozein tramite egiteko aukera. Are gehiago: eskuratu ondoren erabili, kopia, aztertu, moldatu eta banatu daitezkeen softwarea behar dugu eta hori euskararekin lotuta onurak baino ez

dizkiogu aurkitzen librearen aldeko aukerari. Software libreak ez dauka zertan beti doakoa izan, baina doakoa izateko politikak bultzatu beharko lirateke Eusko Jaurlaritzatik.

Helburua edozein dela ere exekutatu ahal izatea ez da asko eskatzea eta erabilpen pribaturako, hezkuntzarako, erakunde publikoetarako, erabilpen komertzialerako, enpresetarako, osasungintzarako, hedabideetarako... aldekoak baino ez ditu. Komunitatearen onerako litzateke software librearen erabilpena, hobekuntzak ere komunitatean egingo liratekeelako, lizentzia berririk ordaindu gabe urtea joan urtea etorri, morrontzetatik aske.

Software librearen produktu bat zirkulatzen hasi den momentutik eskuragarri aurkitzen da koste oso baxuan edo inongo kosturik gabe. Erabilpena handitzen doa etengabe eta jendartearen ondasun izateraino heltzeaz gain hobekuntza etengabea da: erabilpen, aldakuntza eta berrerabilpena ziurtatzen delako.

Zerbitzariak, mahaigainak... beste herrialde batzuetan aspaldi dituzte politika aktiboak software librearen alde. Ez da harritzekoa ona, merkea eta askearen aldeko apustua egitea.

Abian jarri berri den puntueus ekimena geure egiten dugu, eta euskararen eta euskal kulturaren domeinua lortzeko bideak erraztea eta diruz hornitzea eskatzen dugu.

Proposamena:

- Lizentziapeko softwarean inbertitzen den diruaren ehunekoa txikitzea software librearen mesedetan. Ehunekoa zehazteko, European Firefox nabigatzailearen kopuruari begiratu eta horri %10 gehituta ateratzea zifra hori. Plan bat behar genuke puntan dauden herrialdeen mailetara heltzeko.
- Webgintzari dagokionez, erakunde publikoen diru-laguntzak jaso ahal izateko Firefox-ekin ere ikusteko eta erabiltzeko derrigorra markatzea, bestela diru-laguntza hori ukatuz.

- Aldaketak etxetik hasi: Eusko Jaurlaritza, Osakidetza, Herrizaingo Sailsa... erakunde guzti-guztietan tramiteak egin ahal izatea software libre erabiliz.
- Erakunde publikoetako ordenagailu guztietan software libreko posta kudeatzailea eta nabigatzailea jartzea, hasteko. Plana egitea openOffice paketea instalatu eta erabiltzeko, tendentziari muzin egin gabe. Urtebetean pausoak ematea eta ordenagailuen %15 jartzea modu honetara funtzionatzen urtero-urtero.
- Kanpainak egitea software libre zer den azalduz, nor aurki daitekeen, nondik jeitsi... Kontzientziazio eta erabilpenaren aldeko kanpainak bultzatzea.

Kirola

Sarrera

Gaur egun herri bat aurreratua den edo ez den definitzerako orduan irizpide gisa hartzen da eta garrantzia dauka, besteren artean, bertan dagoen kirol praktika maila, kirolari kopurua, kirolari horiek lortu ditzaketen dominetatik haratago. Nahiz eta azken horrek bere garrantzia izan herrialdearen izen ona mundu zabalean hedatzerako orduan.

Gure herriko agintarien arduretariko bat izan behar du, aisialdia era osasungarri baten bizitzeko aukera ziurtatzea. Kirola aisialdiko aukera arrakastatsuen dela, eta horrek gainera bizi kalitatean eta osasunean duen lotura zuzena jakinik. Beraz, herritar orori kirola praktikatzeko oinarrizko aukera, eskubidea bermatu behar zaio, edozein duela bee bizitokia, adina, maila zein ezaugarri fisiko nahiz psikologikoak.

Beraz, gaur egun ukalezina da, kirolaren praktika osasuntsuak pertsonen ohiko bizitzan ondorio zuzena dakarrela gaixotasunen prebentzioan. Are nabarmenagoa da kirolaren praktikaren garrantzia prebentzioaren ikuspegitik 3. adinean.

Kirolaren bilakaera azken urteotan

Agerikoa da, azken urteotan gure herrian kirola praktikatzeko modua aldatu egin dela, bereziki aisialdia kirolaren praktikaz gozatzerako orduan. Lehenago, nagusiki nabarmentzen zen kirol praktika elkarteen bidez praktikatzen zena zen, talde antolatuak sortuz, boluntariotzan oinarrituz, praktikatik haratago lehiaketa, aktibitate desberdinak antolatuz. Hain zuzen ere, gaurko garaietan krisian dagoen eredia, militantzia, boluntariotza egoera kezkarria baitago. Izan ere, gaurko gizarteak nahiago baitu norbanako kirolaren praktika aisialdiaz gozatzeko, baita taldeetako ere, baina inongo ardurarik eskatzen ez duena, batez ere kirolaren kontsumoan oinarritzen dena.

Halaber, kirola praktikatzeko orduan dibertsifikazio handia eman da, hemen ere globalizazioak bere eragina izan du. Horrek dakar, alde batetik, herri batentzat aberastasun handia, baina beste aldetik etorkizunera begira eskaintza zabal hori mantentzeko zailtasuna. Eta bertako kirolak ez dira salbuespen izango.

Eskola Kirolak hartu duen garrantzia, bai kantitatean eta bai praktikaren kalitatean, nabarmena da. Denontzako kirola sustatzen duten egitasmoak ere nabarmenki handitu dira azken hiru urte hauetan.

Baina nahiz eta eskola kirolak epealdi oparoa, osasuntsua bizi, gazte mailako kirolak ez du bizi bere momenturik onenetakoa, adin horietan gazteen kirol praktikak behera egin baitu eta zailtasun handiak baitaude adin horietan kirol praktikarekin jarrai dezaten.

3. adinean eta adin helduan kirolak berriz bere garai osasuntsuenetarikoa bizi du. Herritar helduak kirolean murgiltzen hasi baitira.

Goi mailako eta eliteko kirolari dagokionean egoera ez da hain positiboa, bereziki beronen finantziarioari, bideragarritasun ekonomikoari, sostenguari

dagokionean. Enpresa pribatu eta administrazio publikoaren betebeharren uztarketari buruz hausnarketaren beharra ikusten dugu.

Oro har, kirola bitarteko garrantzitsutzat jo daiteke gizarte baten kohesioari begira, oso lagungarri gerta daiteke pertsona desberdinen arteko harremanak normalizatzeko, estutzeko garaian, beti ere, kultura, ezaugarri identitate desberdinen errespetutik abiatuz eta baloreetan lantzen eta garatzen bada.

Kirol praktika anitza

Bizi kalitate oneko gizarte aurreratu baten zutabetako bat: kirol praktika anitza eta osasungarria da.

- Kirol Praktika maila guztietan ahalbidetu: eskola kirolean, herritar guztiengan, baita maila desberdinetako lehiaketetan helburuetako bat goi mailako kirolari eta taldeek emaitza onak lortzea izanik, eta emaitza horiek kirol modalitate gehienetara zabalduz.
- Bizi kalitatea oinarri izanik kirolaren praktikaren bidez aisialdiaz gozatzeko aukera desberdinak herritarren esku jarri, sentsibilizazio kanpaina, zein programa desberdinak inplementatuz erakunde publikoetatik, kirol entitate desberdinen laguntzarekin.

Azpiegiturak

- Kirol Praktika ahalbidetzeko azpiegiturak bermatu, horretarako Foru Aldundiekin eta udalekin kolaborazioa, elkarlana bideratuz eta hauei bitarteko ekonomikoak erraztuz.
- Lurralde desberdinetako Foru Aldundiei kirol azpiegitura desberdinak eraikitzen, garatzen lagundu.
- 3. adineko kirolaren praktikaren garrantzia azpimarratu, beronen praktika bermatzeko plangintza desberdinak martxan ipiniz Foru Aldundiekin batera, udalen laguntzarekin, horretarako bitarteko guztiak (azpiegiturak, ekonomikoak) garatuz eta inplementatuz.

Euskal kirola

- Euskal Herriko kirol autoktonoen kirol praktika bultzatu, zabaldu eta sustatu. Mundu zabalera ezagutarazteko programak abian jarri.
- Euskal Selektzioak kirol modalitate desberdinetan gauzatzeko estrategia diseinatu, kirol munduko agente desberdinekin (kirolariak, elkarteak, federazioak...).

Kirol entitateen sendotzea

- Kalitatezko kirol praktika bermatzeko egituraketa sendoa eraiki kirol federakuntzak sendotuz eta elkarteak berregituratuz garai berrietara egokituz.
- Elkartegintza, boluntarioria sufritzen ari den krisiaren inguruan azterketa egin, elkarteak garai berrietara egokitzeko neurri eraginkorrak martxan ipini al izateko.

Elkarlana

- Hiru lurraldeen koordinazio garatu, sendotu eta sustatu, bereziki eskola kirola arloan.
- Hiru Foru Aldundiekin koordinazioa, elkarlana estutu eta bideratu: estrategia beren inguruan lan eginez eta ekintza konkretuak inplementatuz.
- Lurralde desberdinetan garatu diren eredu desberdinak koordinatu eta eredu bakarrera hurbildu, beti ere lurralde bakoitzaren desberdintasunak kontuan hartuz.

Heziketa eta formakuntza

- Eskola Kiroletik afizionatu mailako kirolaren artean dagoen epealdia, gazte kirol planak garatuz landu eta berregituratu, kirol praktikaren

jarraipena egon dadin erraztuz bizi kalitatea eta prebentzioa ardatz izanik.

- Kirol praktika ezgaitasunen bat dutenen pertsonen artean ahalik eta gehien zabaltzeko planak martxan ipini, sentsibilizazio kanpainak burutu, azpiegiturak egokitzeko diru laguntzak bideratu.
- Kirol munduan kalitatea bermatuz lan egiteko adituak hezitzeko formakuntza ikastaroak burutu.
- Kirol eta jarduera fisikoaren onuren berri gizartean zabaltzeko beharko litzateke, bereziki, gurasoek onura guzti horietaz jabetu beharko lirateke.

Goi mailako kirolaren etorkizuna

- Goi mailako kirolaren inguruko hausnarketa eta eztabaida zabaltzeko, bereziki, kirol maila honen finantziario eta bideragarritasunari dagokionean, kirol emaitzak eta faktore ekonomikoak uztartuz.
- Emakumeak Goi mailako kirolean gizonezkoekiko dituzten baldintzen inguruan diagnostikoa egin, eta bertatik ondorioztatu daitezkeen egoerak hobertzeko joateko neurriak diseinatu eta garatu.

Kirolaren baloreak

- Kirolaren bidez kohesio soziala, integrazioa sendotzeko, errazteko kirol praktika desberdinak ezarri proiektu pilotuen bidez, etorkin kopuru nabarmenak dauden auzo, herri zein hirietan, beste departamentu batzuekin batera.
- Kirol Praktikan osasun politikak nabarmendu, horretarako dopinaren aurkako estrategiak diseinatu eta bultzatu. Baita prebentzioan, mediku azterketak ezarri eta zabaltzeko.
- Kirolean etikak eta baloreak duten lehentasuna gauzatzeko, beharrezkoak diren programak diseinatu eta zabaltzeko.

Kirol legeak eta planak

- 2003-2007 kirol Plana berraztertu eta egokitu.

- Nazioarte mailako lehiaketetan gure kirolarien presentzia areagotzeko mekanismo guziak martxan ipini.
- 1998ko Kirolaren Euskal Legearean berrazterketa, berriztaketa. Dagoeneko makina bat urte pasa dira, eta garai berrietara egokitu al izateko.